



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HEZKIDETZA IRAKURKETA PLANEAN

UZTARTZEA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Agiriano Iriondo, Itziar.

ZUZENDARIA: Lasarte Leonet, Gema.

2020-2021

Laburpena/Resumen

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lantzea gizarte osoaren eginkizuna eta erronka da. Hezkuntzak horren bidean duen lekua hezkidetzak kontzeptuak hartzen du; eta hori lantzeko, gaur egun, hainbat euskarri ditugu eskura. Lan honen helburua hezkidetzak gaia irakurketa baliabideaz lantzea eta uztartzea izan da, non egoeraren ikuspegi osoa jaso den, hezkuntza-errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzeko. Berau aurrera eramateko, ikerketa kualitatiboan oinarritu naiz, alegia, hainbat ikastetxeen web-orrien arteko behaketan eta ikastetxeetako hainbat kideekin egindako elkarrizketetan; praktikan, hezkidetzak ikas-zentroetan duen presentzia ikusteko. Ikerketaren emaitzei dagokionez, orokorrean irakasle nahiko kontzientziatuak aurkitu izan ditut, egoeraz kezkatuak daudenak, eta kezka horiei, era batean zein bestean esku hartzen diotenak. Eskoletako hainbat kideri elkarrizketak egiteaz gain, gaian adituak diren beste hiru emakume elkarrizketatzea erabaki dut, gaur eguneko ikuspegi zabalago bat izango dutelakoan, eta haien analisi hori eskainiko didatelakoan. Behin hori burututa, eskolentzat tresna baliagarria izango delakoan, interbentzioari ekin diot, irakurketa-unitate oso bi sortuz, hezkidetzaren bi arlo ezberdin jorratzen dituztenak, adin bakoitzak dituen gabeziei helduta. Ondorio modura, nahiz eta irakasle kontzientziadun asko topo izan ditudan, badakit zentroetan dagoen errealitatea ez dela ehuneko ehunean hori. Bidean gaude, baina oraindik bide luzea dago egiteke eta pertsona asko kontzientziatzeke. Hori dela eta, irakasleen, hezitzaileen, edo orokorrean, ikastetxeetako kide guztien formakuntzan sinisten dut, hurrengo belaunaldietan aldaketa benetan eraginkorra eta indartsua izan dadin, indarkeria mota guztiak albo batera utziz.

Hitz-gakoak: hezkidetzak, irakurketa, irakasleen formakuntza, gaur egungo interesak, errealitatea.

Trabajar la igualdad entre mujeres y hombres, es una tarea y un reto para toda la sociedad. El lugar que en este camino tiene la educación, lo ocupa el concepto de la coeducación, y para ello, hoy en día disponemos de diversos medios. El objetivo de este trabajo, ha sido elaborar y compaginar la idea de coeducación con el recurso de la lectura, en el que se ha recogido una visión completa de la situación, para acercarse al máximo a la realidad educativa. Para llevarlo a cabo, me he basado en la investigación cualitativa. Es decir, en la observación entre las páginas web de distintos centros educativos y en las entrevistas con varios miembros de los centros escolares, para ver en la práctica la presencia de la coeducación en dichos centros de enseñanza. En cuanto a los resultados de la investigación, en general, he encontrado profesoras bastante concienciadas y preocupadas por la situación, y que de una u otra manera abordan esas preocupaciones.

Además de las entrevistas a varios miembros de las escuelas, he realizado entrevistas a otras tres expertas en la materia, esperando que tengan una visión más amplia del momento y me ofrezcan ese análisis. Una vez hecho esto, en la convicción de que será una herramienta útil para las escuelas, he iniciado la intervención creando dos unidades de lectura completas, que abordan dos aspectos de la coeducación, atendiendo a las carencias de cada edad. Como conclusión, a pesar de que he encontrado muchas profesoras concienciadas, sé que la realidad actual que hay en los centros, no es cien por cien esa. Estamos en camino, pero todavía queda mucho trecho por recorrer y muchos/as profesionales por concienciar. Por ello, creo en la formación de profesores/as, educadores/as o, en general, de todos los miembros de los centros educativos, para que en las siguientes generaciones el cambio sea realmente efectivo y fuerte, dejando de lado todo tipo de violencias.

Palabras claves: coeducación, lectura, formación del profesorado, intereses del hoy, realidad.

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------------------------------------------------|-----------|
| 1. Sarrera | 1 |
| 2. Justifikazioa | 2 |
| 3. Marko teorikoa | 3 |
| 3.1. Hezkidetza | 3 |
| 3.2. Irakurketa | 7 |
| 3.3. Curriculuma | 12 |
| 3.4. Hezkidetza eta Irakurketa | 14 |
| 4. Helburuak | 16 |
| 5. Metodologia | 17 |
| 5.1. Erabilitako ikerketa | 17 |
| 5.2. Korpusa | 18 |
| 5.2.1. Behatutako web-orriak | 18 |
| 5.2.2. Elkarriketak | 19 |
| 5.3. Ikerketarako erabili diren tresnak | 21 |
| 5.3.1. Behaketa | 21 |
| 5.3.2. Elkarriketak | 21 |
| 6. Emaitzak | 23 |
| 6.1. Web-orriak | 23 |
| 6.2. Elkarriketak | 23 |
| 6.2.1. Zentro ezberdinetako irakasleei egindako elkarriketak | 23 |
| 6.2.2. Aditu ezberdinei egindako elkarriketak | 25 |
| 7. Interbentzioa | 26 |
| 7.1. Ataza | 26 |
| 7.2. Onurak | 26 |
| 7.3. Oinarrizko gaitasunak | 28 |
| 7.3.1. Zeharkakoak | 28 |
| 7.3.2. Diziplinari dagozkionak | 28 |
| 7.4. Helburu didaktikoak | 28 |
| 7.5. Metodologia | 28 |
| 7.6. Kronograma | 28 |
| 7.7. Jardueren deskribapena | 29 |
| 7.8. Ebaluazioa | 34 |
| 7.8.1. Lorpen adierazleak | 34 |
| 7.8.2. Tresnak | 35 |
| 8. Ondorioak | 35 |
| 8.1. Lanaren ondorioak | 35 |
| 8.2. Ondorio orokorrak | 37 |
| 9. Bibliografia | 37 |
| 10. Eranskinak | 41 |
| 10.1. I Eranskina | 41 |
| 10.1.1. 1. Multzoa: Zentro ezberdinei egindako elkarriketak | 41 |
| 10.1.2. 2. Multzoa: Aditu ezberdinei egindako elkarriketak | 53 |
| 10.2. II. Eranskina | 68 |
| 10.3. III. Eranskina | 70 |

1. Sarrera

Hurrengo orrialdetan hezkidetzaren kontzeptuaren osotasuna irakurketa-planetan uztartzeko ikerketa eta saiakuntza prozesuak daude irakurgai. Ez betidanik baina gelditzeko etorri den balio hau feminismoak hezkuntzan duen lekuari deritza; eta leku hau ezinbestekotzat eduki beharko genuke gure hezkuntza zentroetan. Gizartea aurrera doan heinean, aldaketak ematen dira heziketan, pentsamoldean, jarreran, balioetan... Eta gaur egungo gizarteak duen gaitz handienetako (sistema heteropatriarkala) bati konponbidea jartzeko, hezkidetzaren balioa dugu gidari.

Matxismoak bere aztarna uzten du gizartearen alor guztietan, horrekin hazi eta hezi egiten gara, eta konturatzen garenerako gu geu ari gara oharkabean sistemak ezarritako rolak betetzen eta erreproduzitzen, sistemak onartzen dituen arauen barnean mugitzen, eta arau hauen artean soilik. Hau oso adierazgarria da txikitatik ikusten dugun telebistan, marrazki bizidunetan eta nola ez, ipuin edo liburuetan. Honi aurre egiteko lanketa burutzen hasia da jada mundu osoan, denon arteko kontzientzia eta lana bultzatuz zein zabalduz.

Horren bidean, nik egindako ekarpena irakurketa planen bitartez hezkidetzaren lantzea da; etorkizuneko irakasle izango naizen horretan, lan honen bitartez egindako hausnarketa eta ataza beharrezkoak direla pentsatzen dudalako. Prestatuak egon behar gara eta formakuntza gehigarria jaso behar dugu arazoak duen garrantziari behar bezala aurre egiteko. Hori dela eta, nik egindako hasierako errebisio bibliografikoan, marko teorikoan alegia, hezkidetzaren historia, definizioa eta gaur egungo egoera aipatu ditut, honek gizartean eduki duen garrantziaz jabetzeko, eta haren existentziaren arrazoiak hausnartzeko. Jarraian, irakurketa atalari dagokionez, gaur egungo haren egoerari buruz aritu naiz. Ondoren, curriculumari bide eman diot, gaur egungo hezkuntza sistemaren gidaritzaren ardura harek duelako. Eta azkenik, marko teorikoarekin amaitzeko, hezkidetzaren irakurketa uztartzen saiatu naiz, lanaren zehaztasunetara ahalik eta gehien gerturatzeko. Hortaz gain, lanaren helburu, metodologia eta emaitzak atera ditut, eta horretan ikusitako gabeziei aurre egiteko interbentzio bat prestatu dut, berezko atal eta ondorioekin.

2. Justifikazioa

Gaur egungo gizartean etengabe ikusten ditugun jarrerak bultzatu naute gai hau jorratzera. Egia da legearen finkapenak, hezkuntza zentroak behartu dituela gai honekiko harreman bat izatera; baina kasu gehienetan egiten den lana oso eskasa edo desegokia da. Hutsune handia dago aurrera eraman behar diren metodologiaren edota baliabideen inguruan, eta horren arrazoi nagusia irakasleen formakuntza eza da. Emakumeok egunero sufritzen ditugu mota guztietako indarkeriak: makro edo mikro, fisikoak edo psikologikoak, erailketak edo bortxaketak, gure pertsona edo laguna... Historia liburuetan beti izan gara gu pribilegioak dituztenen objektuak, guztien errudunak, genero ahula... eta egia esan, diskurtso honek nazkatzen hasi nau. Ni eta emakume asko. Pentsamolde eta jarrera horietaz zeharo nekatuta gaude, eta komunean dugun injustizia honek gure artekoa kolektibizatzen eraman gaitu. Bakoitza bere bidetik, egin ahal duena egiten, helburu komun batera ailegatu arte.

Aurrekoan oinarrituz erabaki nuen gai honetan esku hartzea. Nire bidetik, guretzat positiboa izango den lanean murgiltzera. Nire esku dagoena egiten saiatzea eta behintzat nire burua ondo formatzea, etorkizunean jasotako informazio eta formakuntza horrek, eragin positiboa izan dezan hurrengo belaunaldietan.

Azkenik, gai pisutsu hau irakurketarekin uztartu nahi izan dut, aurtengo bibliotekak eta irakurzaletasuneko minorrak hori egiteko bultzada eman didalako. Gainera, errealitatea zein den ezagutuz, non teknologia gero eta leku gehiago hartzen ari den, irakurketa era batean zein bestean sustatzea zilegia bezain beharrezkoa iruditu zait.

3. Marko teorikoa

Soy feminista, me avergonzaría de no serlo porque creo que toda mujer que piensa debe sentir el deseo de colaborar, como persona, en la obra total de la cultura humana (...) Por eso, la primera tarea a realizar es la de preparar a nuestras mujeres, y claro está que yo confío, como único y exclusivo medio, en la educación, que al salvar las sustancias ideales que lleva dentro, ignoradas por ella misma, le dará fuerza para descubrir nuevos mundos, insospechados hasta ahora. (María de Maeztu)

3.1. Hezkidetza

Jendarteak atsedetik gabe egiten du aurrera. Horren isla sektore askoren bilakaera handia izan da. Hizkuntza, baloreak edota ohiturak guztiz aldatuak dira, bizi dugun garaira egokitzen dira eta arrastoa uzten dute historia delakoa sortuz. Horrek gertatutako gauza garrantzitsu eta nabarmen asko barnebiltzen ditu, eta orain, jarraian mahaigaineratuko dudun gaiaren zati handi bat feminismoak hezkuntza munduan izan duen bilakaera izango da.

Honen jatorrira abiatzeko, ez naiz diktadura aurreko garaietan oinarrituko, non neskek eta mutilak haien generoengatik eskola ezberdinetan segregatuak zeuden, historian zehar eduki dugun ikuspuntu androzentristaren erruz (Sanchez, 2002). Generoen arteko berrantolaketa eman eta aldi horretako egoera kolokan jar zedin, Simone de Beauvoir bezalako militante feministen teoriak edota pentsamenduak plazaratu behar izan ziren XX. mende osoan zehar. Idazle eta filosofo horiek sekulako lana egin zuten emakumeen eskubideen aldarrikapenean, hurrengo bezalako ideiak edota baieztapenak gizarterian zabalduz: *Una no nace mujer, sino que se hace mujer*. Hausnarketa hori generoen arteko desberdintasunen ikerketa abiapuntua izan zen. Genero segregazioaren galtzea 1970eko Hezkuntza Lege Orokorretik aurrera agertu zen, eskola mistoen aldarrikapena eman zenean. Hala ere, aldaera hau ez zen beharrezkotzat jo 1984-1985eko kurtsora arte. Erregimen demokratikoa eta eskola ulerkorra iritsi arte itxaron behar izan zen, haurrak berdintasun-balioen pean hezteko, gaur egun, eskola mistoa deritzona (Calvo, Susinos, García, 2011). Mota horretako eskolen ezarpena lorpen handia bilakatu zen emakumeen

eskubideen aldarrikapenean, mutilekin hasi baitziren haien espazioa partekatzen. Horren bitartez berdintasun egoera eman zela pentsatzen zen, neskak mutilen klaseetan sartu zituztelako. Nolanahi ere, ez zen berdintasun erreal bat, indarrean zegoen curriculum a gizonena zelako eta emakumeena bertan behera utzi zutelako (Codina, 2002). Denboraren poderioz, ikusi zen eskola mistoa edo hezkuntza bateratura ez zela nahikoa ikuspegi feminista batetik, horiek ez zirela sinonimotzat hartzen. Hori dela eta, momentu hartatik aurrera hezkuntza berdinkide eta bidezko bat sustatu zen, pertsona bakoitzaren desberdintasunak agerian jarriz, horiek baloratuz zein errespetatuz eta hezkidetzaren kontzeptua berdintasuneko hezkuntzaren sinonimo bilakaturik (Alvarez, Lasarte, Vizcarra, 2019).

Legearen bilakaera analizatu ostean, ematen du %100ean aldatu dela egoera instituzioek aurrerapausoak eman dituztelako. Baina horrela izan ote da? Zein da klase barruko errealitatea? Legea pertsona guztiontzat berdina dela eta berdina aplikatzen dela suposatzen da. Hala ere, argi dago estruktura soziala ez dela legea den hain berdinkidea (legea berdinkidea dela uste badugu). Kontuan hartu behar da hezkuntza politika erabat baldintzatuta dagoela garai historikoaren arabera, tokiaren arabera edota jendartearen antolatzearen arabera. Hala, bada, egungo eskola eredua (hedatuen dagoena) jendartearen isla dela esan daiteke: ikasgelatik at maskulinitate eredua nagusitzen da, eta ikasgela barruan beste horrenbeste gertatzen da (Aizpurua, Lasarte, 2016). Balio berrien sustapena ematen ari da gizartearen aurrerantza doalako. Hala ere, nahiz eta gizartearen aurreratu baten partaide garelako pentsatu eta balioen birdefinizioa eman, gure egunerokotasunean hainbat termino eta errealitate atzerakoi existitzen dira oraindik ere. Hala nola, era guztietako segregazioak, arrazakeria, homofobia...

Lehen aipatutako hezkidetzaren balioa hezkuntza munduan ezartzeko, kontuan hartu behar da zein den eskola bakoitzean dagoen errealitatea, zein den gurasoen eta umeen maila ekonomiko, sozial eta kulturala, eta nola egokitu haien ezaugarrietara. Horregatik argi dago, nahiz eta legea berdina izan eta berdina aplikatu, ez dela hain sinplea. Klase barruko zein kanpoko errealitatea analizatu behar da esku-hartze egokia egiteko. Irakasle edo aditu bezala hezkidetzaren gaiarekiko gure esku-hartzea ezin da berdina izan txikitatik feminismoarekin harremana izan duen umee baten (behintzat kontzeptuaren ezagutza izan duenarekin) edo kanpotik datorren familia baten umee baten. Kultura, ohitura eta sinismen desberdinak dituen umee baten esku-hartze desberdina eduki beharko du, inplementazioaren ezagutzetara eta errealitateara egokituz, baliogarritasuna izan dezan. Esku-hartzearen kontestualizazioa garrantzitsua da. Norentzat izango da mintzaldia, zer motatako

haurrentzat, haien ezaugarri orokorrak ezagutu (eskola eta umeena) eta horietara egokitu lana.

Hezkidetzak hitza hainbatetan aipatu dugu jada, baina, jakin ba al dakigu zer den? Hona hemen *Mondragon Unibertsitateak* (1992) egindako definizioa: hezkidetzak pertsona bakoitza norbanakoaren balio eta gaitasunen arabera heztea dakar, tradizioz, gizonezkoen edo emakumezkoen gauzatzen hartu direnak alde batera utziz, eta norbanakoaren garapen osoa helburutzat hartuta. Horren definizioaren beste perspektiba bat Salasek (Salas, 1997) *Ikastetxeko Hezkidetzak eredu egiteko gidan* ematen digu:

Hezkidetzak pertsonen garapen integrala lortu ahal izateko behar-beharrezko eremutzat definitzen dugu. Ikastetxeek estereotipo maskulinoak eta femeninoak baztertzeko bidea emango duten hezkuntza-eredu integralak eskaini behar dituzte, ikasle bakoitzak, generonortasuna alde batera utzita, bere nortasuna eraiki dezan eta gaitasun guztiak garatzea lor dezan (37.).

Baina orduan, zer egin dezakegu guk hau bezalako balio bat belaunaldi berrien bizitzetan feminismoaren abiapuntu izateko? Eskolaren gain jarri beharko genuke zama guztia? Eskolak al du erantzukizun osoa gai honekiko? Beste behin, galdera hauen erantzun egoki bat *Mondragon Unibertsitateak* (1992) ematen digu: Ez dezagun ahaztu eskolak gai honetan egin dezakeen lana mugatua delarik, umeak txikitatik bereizten baititu zein jarduera diren egokiak bere generokoentzat. Beraz, familiako giroak eragin handia du eta izango du neskatzaileen eta mutikoen hezkuntza integral horretan. Kontuan hartu behar dugu umeak gizarte oso zehatz eta markatu batean jaiotzen direla, eta momentu horretatik aurrera, kontaktu zuzena dutela hau osatzen duten eragile guztiekin: familia, hasierako urteetan; geroxeago eskola, eta bertan dauden elkarreragin guztiak: lehenengo adiskideak, lehen loturak; azken batean, lehenbiziko gizarte-harremanak. “Txiki-txikitatik hasten den sozializazio prozesuaren bitartez ikasten dugu ezarritako orden hegemonikoa etengabe erreproduzitzen; baina, era berean, aldaketarako ateak ere irekitzen dira sozializazio berriei eta praktika berriei esker” (Aizpurua, Lasarte, 2016, 44.).

Eskola hezkide bat sortzea erraza ez den arren, hau da Marina Subirats Martori-k (2009) Soziologiako katedradunak aurrekoa lortzeko proposatzen dituen bi printzipioak. Batetik, mutil zein neska haien hezkuntzarako baliabide eta aukera berdinak edukitzea, genero oztokoak desagertzen joateko, sexuaren arabera portaera batzuk edo besteak preskribatzen edo debekatzen dituztenak, giza gaitasun positiboak eta beharrezkoak etorkizuneko gizon eta emakumeen eskueran egon daitezen. Eta, bestetik, guztiek garatu

ahal izatea pertsona bakoitzaren aukeren neurrian, ekintzen mugatzea ekarri dezaketen aurreiritzi sexistarik gabe.

Hala ere, nahiz eta kanpotik erraza dirudien, eskola oso gutxik eramaten dute aurrera lanketa hau. Formakuntza faltagatik edo hezkidetzaren haien ikasgunearen balioen ildotik urrun gelditzeagatik. Eta horrek zer ondorio dakartza? Ba egun ikus, entzun eta bizitzen ditugun gizarte matxistaren jarreraren erreproduzioak: manadako kideak kalean egotea ahalbidetzen duen gizarte bat; soldata arrakala ahalbidetzen duen gizarte bat; edota, berdintasun falta eta kristalezko sabaia duen gizarte bat. Kontuan izan behar da gure kaleetatik dabilen jende oro pasa dela hezkuntza sistematik, horregatik da hezkuntza sistema garrantzitsua berdintasuna errotzeko (Moreno, 2019).

Behin hezkidetzaren zer den finkatuta, eta bere jatorria zein garrantzitsua den ezagututa, zer gehiago jakin beharko genuke gure klaseetan txertatzeko? Zer motatako esku-hartzeak egin ditzakegu?

Gaur egungo sistema guztiz teknifikatua dago, teknologiarekin dugun harremana gero eta estuagoa da, eta nahi ala ez, mundu honekiko mendekotasunaren existentzia hasia dago jada gure artean. Hala ere, gai honetan, esparru askotan (edo ia gehienetan) gertatzen den bezala, genero ikuspegi kritiko batetik analizatuta, desberdintasuna existitzen da nesken eta mutilen erabileraren artean. Horren harira, *Women's Action Allianc*-ek egindako ikerketa batek (Dumett, 1998, apud Alario, Anguita, 2001) erakutsi zuen mutilek seguruago eta konfiantza handiagoz jarduten dutela trebetasun informatikoetan, eta uste dute neskak ez direla hain kapazak, haien gaitasunarekin konparatuta, teknologia kontuetan. Iritzi horiek nesken kasuan ere berresten dira. Horren azalpena hemen aurkitu dezakegu: aurretiazko sozializazioek eta familia-giroek zerikusi handia dute neskak arlo ezberdinetan modu desberdinean murgiltzearekin; izan ere, hezkuntza informaleko espazio horiek genero-estereotipoak indartsu markatzen dituzte; gehienetan, ikasleek, eskola barruan baino indar handiagoarekin. (Alario, Anguita, 2001). Azkenengo azalpenezko esaldi hauek aplikagarriak dira generoen arteko, arlo desberdinetako desparekotasun askorekin.

Aurreko paragrafoan gizartearen estrukturazioa eta horren funtzionamenduaren berri eman dut. Gaur egungo umeen etorkizuna eskola barruan sortu, landu eta erabakitzen da; eta etorkizun horretan, genero bakoitzari eskaintzen eta ematen zaion formakuntza erabakigarria da haien geroko bizitzan. Eskolak ez du generoen arteko eskola porrota sustatzen. Are gehiago, ikerketa askok argi uzten dute neskek emaitza hobetoak lortzen dituztela ikasle bezala haien heziketa ibilbidean, mutilek baino.

“El 59% de alumnas consiguió el título de Bachillerato el curso pasado, frente al 45,5% de hombres.” (elDiario.es, 2014).

“En la Secundaria, el 80% de las jóvenes a las que correspondía por edad graduarse en 2012 lo consiguió. Sus compañeros varones se quedaron en el 69,9%.” (elDiario.es, 2014).

Datu hauek ikusi ostean garbi dago eskola ez dela generoen araberako diskriminatzailea, eskola porrota emateko orduan. Gai horren inguruko azalpen egokia eta ulerterraza Marina Subirats-ek ematen du: diskriminazio sexistak ez du eraginik eskola-arrakasta mailan, baizik eta generoaren prestakuntza-mailan, emakumeen nortasuna debaluatzen da; hala, neskek beren bigarren mailako eginkizuna eta mundu publikoan duten segurtasunik eza barneratzen dituzte, baita ume horiek ikasle bikainak izanda ere (Subirats, 1994). Haien ikaskuntzan jasoko dutena eragina eta indarra hartuko du haien etorkizuneko ibilbide profesionalean eta pertsonalean (erabat zehaztuta egongo dena genero segregazioagatik).

3.2. Irakurketa

Argi dago generoen arteko parekotasun ezak ia esparru guztietan ematen direla, bai. Baina hortik pixka bat urruntzen bagara, beste eztabaida bat mahaigaineratzen zaigu: teknologia berriak tresna egokiak al dira hezkuntza munduan erabiltzeko?

Honen inguruan irakurri eta egoera ulertu ostean, argi dago teknologia ez dela guztiz txarra. Tresna erabilgarria eta praktikoa dela (neurri egoki batean erabiltzen bada, noski) jakin badakigu, berarekin harremanetan gaudelako etengabe. Hezkuntza mundutik, garai berrietara egokitu behar gara eta horretan gaude. Baina... orduan, zein da arazoa? Bada, agian arazoa gazteen erabilera neurrigabea eta teknologiek dituzten balio-transmisioan datza; eta horrek, gure gure gizartean uzten du isla. Suntsipena, biolentzia edota sexismoa dira gaur egungo bideojokoek edota teleailek (adibidez) indarrez sustatzen dituzten balioak gazteen artean (Almagia, 2009). Haurren edo txikien erreferenteak (mutilenak, orokorrean) aurreko baloreak transmititzen dituzten pertsonaiak dira. Horiekin mantentzen duten harreman sendoa, ordu askoren emaitza da, eta horrek belaunaldi berriek dituzten jarrera edo balore desegokiak erlazio handia izan dezake, ikusten dutena erreproduzitzen baitute. Aurrekoaz gain, modernitatearen txertatzeak beste tresna eta oinarriko baliabide askoren gainbehera ekarri du. Liburua objektu bezala eta honek berarekin dakarren ekintza, irakurketa, horren adibide argia dira. Fenomeno horri erantzuna emateko argumentu asko aurki ditzakegu, besteak beste: baliabide batzuen (telebista, ordenagailu-jokoak), mailen

araberako beste egoera batzuen (parekideen arteko harremanak) edo beste arte batzuen (musika, adibidez) eragina edo garrantzia. Azken batean, interesen dibertsifikazioa litzakeena (Lage, 2019).

Lehen, aukera ezagatik bakarrik liburua geneukan gure ibilbidearen adiskide, ezagutzaren adierazle. Ikasi edo jostatzeko, material ezin hobea zen. Gehiagorik ezean, hori zen gure aliatua formakuntza gehiago izaterako bidean, bagenekien. Orain, teknologiek, aukeratzeko pribilegioa dugu. Horiek liburuak baino erakargarriagoak dira eta hori esparru guztietan ikusi daiteke: etxean, eskolan, lagunekin... tramankulu horiek nagusitzen dira.

Errealitate hori PISA probetan ere islatzen da. Horri buruz sakontzen hasi aurretik hona hemen PISAren definizioa: Ikasleen Nazioarteko Ebaluazio Programa ELGAren (PISA: Programme for International Student Assessment, ingelesez) proiektu bat da, eta haien helburua 15 urte betetzeko dauden ikasleen prestakuntza ebaluatzea da. Programa informazio ugari eta zehatza lortzeko baliabide gisa sortu da, herrialde kideek hezkuntza-mailak hobetzeko beharrezko erabakiak eta politika publikoak hartu ahal izateko (OECD). Gure herrialdean, zein beste askotan, horren aplikazioa eman eta ematen da; eta bertan irakurketa munduarekiko emaitza latza da. Batez beste, 500 puntuko eskalan, Espainiak 2018. urteko ebaluazioan, 477 lortu zituen, 2015ean baino 19 puntu gutxiago (496). Zifra hori, organismoak adierazten duen bezala, ELGAren batezbestekoa (487) eta Europar Batasunaren guztizkoa (489) baino "nabarmen" txikiagoa da.

Nicholas Carr (2008) idazle estatubatuarra, haren esperientzia kontatzen du irakurzaletasunaren inguruan. Berak argi du orain ez dela lehen zen bezala pentsatzen. Ideia hori, haren egunerokotasunean bereziki manifestatzen da liburu bat irakurtzera doanean. Lehen, liburu bat irakurtzen zuenean zentzumen osoz murgiltzen zen eta horretan orduak eta orduak pasatzen zituen, arreta maila berean mantenduz. Orain ez du irauten hainbeste denboran irakurtzen, paragrafo gutxi batzuk irakurtzeko adina denbora baino ez. Azkar despistatzen da. "Era naturalean gertatzen zen irakurketa sakona ahalegin bihurtu da azkenaldian" baieztatu zuen Carr-ek *Is Google making us stupid?* artikuluan (Atlantic, 2008). Idazle horrek planteatzen duen arazoa guk geuk ere ikusten dugu gure bizitzetan eta gaur egungo ikasleengan. Etengabe konektatuta gaude eta horrek eragina du sortzen ari garen gizartean eta gizaterian. "Irakurtzen gauden bitartean gure burmuinari pentsatzera behartzen diogu" esaten du Garcia-Ribas-ek (2013) (SENen Portaerak eta Dementziak Aztertzearen Taldearen koordinatzailea). Eta pentsatzera behartzeak, burmuin aktibo bat izatera bultzatzen gaitu.

Ikusten ari garenarekin, ondorio garbia da irakurketa, guretzat ere, ekintza oso aberasgarria dela. Baina, era berean, problematika bat existitzen da honekin. Arreta falta, desmotibazioa edo interes eza ohiko bihurtzen ari dira gure heziketan; eta zein izango ote da horien jatorria? Zergatik horien areagotzea? Beatriz Cortina-Perez-ek (2019) (atzerriko hizkuntzan adituak), argi du: “Edozein ikaskuntzaren klabea motibazioa da. Motibaziorik gabe ez dago ikaskuntzarik”. Horren harira, *Platero* aldizkariak gaur egun, irakurketa esparruan, ikasle askoren desmotibazioaren arrazoi batzuk aurkezten dizkigu:

1) Eskola-curriculumaren gehiegizko edukiak, edo eskolaz kanpoko gehiegizko jarduerak. Hau da, irakurtzeko denbora falta.

2) Irakurketaren “gaineskolarizazioa” edo irakurketa eskolako lan-tresna nagusi hartzea.

3) Gazte-literaturaren “gehiegizko oparotasuna” edo “booma”. Argitaratu bitartean, ia ezinezkoa da bereiztea eta hautatzea.

4) Bitartekarien, gurasoen edo irakasleen irakurzaletasunik eza eta eredurik eza.

5) Beste baliabide batzuen (telebista, ordenagailu-jokoak), mailen araberako beste egoera batzuen (parekideen arteko harremanak) edo beste arte batzuen (musika, adibidez) eragina edo garrantzia. Azken batean, interesen dibertsifikazioa litzakeena (lehen aipatu bezala).

6) Gizartearentzat erabilgarriak ez diren jardueretan parte hartzea.

7) Irakurtzeko gaitasunik eza edo *Pennac*-ek zihoen modura "ez ulertzearen beldurra".

8) Liburuaren lodiera edo “liburua betierekotasun-mehatxu gisa” hartzea, irakurketaren plazera bahitzen duten beste fobietako bat, *Pennac*-en hitzetan.

9) “Haurrek ez dute irakurtzen politikoki zuzena den literatura ematen zaielako”, Ana María Matute-k berresten duen beste arrazoi bat. Hau da: manipulatuak sentitzen direnean eta balioak transmititu nahi dizkietela sumatzen dutenean.

10) “Irakurtzeko plazeretik” “hizkuntzaren menderatzera”: Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzean, “ikasleak ezegonkortzen dituen irakurketa-arauen aldaketa sakona” gertatzen da, ikasle horiei adimen-aldaketa eskatzen baitzaie: hortik aurrera, beste jarrera bat hartu behar dute testuen aurrean, zentzua deszifratzeko jarrera. Testua “deskodifikatzea” edo “deszifratzea” den irakurketak emozioa eta identifikazioa murrizten ditu.

Tabla 1: Bibliotecas escolares y animación a la lectura. Platero. Elaborazio propioa.

Alor horretan dagoen arazoari konponbidea ematen saiatzeko, zer egin genezake? Komeni da curriculumari aldaketa ematea? Gaur egun, gero eta ikasle gutxiagok irakurtzen dute plazer hutsez, nahiz eta eguneroko irakurketa eskoletan errendimendu hobearekin eta helduetan irakurmena menderatzearekin lotuta egon. Familia eta hezitzaileentzako erronka, irakurketaren plazera irakastea da, ikasleek interesgarritzat eta garrantzitsutzat jotzen dituzten irakurketa-materialak eskainiz (OECD, 2011).

Horren bidean, beste arazo batekin egiten dugu topo. Ikastetxeak ez dira irakasleen etengabeko prestakuntzarako leku izaten. Prestakuntza hori lortu nahi bada, kanpora joan beharra dago eta denbora "libreetan" (Pascual, 1998). Aurreko helburua lortzeko, ikasleen ibilbidean porrota ez emateko, eta umeez duten gaitasuna loratzen laguntzeko eta indartzeko, irakasleek zein hezitzaileek formakuntza egokia izan behar dute arlo honetan zein beste askotan.

Hori eskuratzeko, kontzeptu orokor batzuen ezagutza eta horien kontu hartzea izan behar dute irakasleek. Alfabetatuta egoteak ez du esan nahi irakurtzen eta idazten jakitea. Irakurtzen jakitea irakurtzen dena ulertzea da (Sánchez, 2002). Irakurketa-ekintza (interpretazio-ekintza ere dena) oro berreraikitze-ekintza bat da (ez deskodifikazio huts bat) (Ricca, 2012). Alfabetatzea eta irakurtzea ez dira gauza bera, eta ideia hori argi eduki behar dugu buruan. Alfabetatze-prozesu hori eskolako lehen urteetan egiten da, eskola izaten da horren arduraduna, eta hauetako asko maila edo fase horretan gelditzen dira. Ikasturteak aurrera segitzen dute eta horien maila berdin mantentzen da. Horretan dago arazoa. Ikasle asko unibertsitatera heltzen dira irakurtzen jakin gabe, ulertzen ikasi gabe. Horregatik ez dute irakurtzea gustuko, edo irakurketarekin zerikusirik ez duen beste edozein gauza egitea nahiago dute, nork irakurri nahiko du ez badu ulertzen liburuek esaten dutena? (Sánchez, 2002).

Gaur egungo gizartearen egoera perspektiba zabal baten bitartez analizatu ostean, eta irakurketaren onuretz jabetu ostean, salto egingo dut praktikaren inguruan hitz egitera. Zentroek irakurketaren sustapena bultzatzeaz gain, horren inguruko prozesuak eraiki behar dituzte; horrela bakarrik lortuko dituztelako ikasle eta irakurle konpetenteak, gizartean bizitzeko eta komunikatzeko gai izango direnak. Prozesu horrek segida moduko bat osatzen du, aurrekoak hurrengoan eraginez eta alderantziz. Irakurketa-prozesuen eraikitze hori gaur egungo eskolen ahulgune adierazgarria da. "Irakurtzeko gaitasuna ahalik eta gehien garatzeko, hezkuntza-arloari eta arlo pertsonalari lotutako ekimenak eta jarduerak planifikatu

eta abiarazi behar dira ikastetxean; eta ikastetxea, familiak eta ingurua, denak, inplikatu behar dira egiteko horretan” (Berritzegune Nagusia, 2013, 11.).

Beste hainbat esparrutan hobekuntza emateko lanketa egiten den bezala, zentro bakoitzak plan bat abiarazi beharko luke, irakurketaren egoerari helduz eta irakurketaren hobekuntza jomuga bezala hartuz, hori sakonki lantzeko eta gabeziei aurre egiteko. Horren inguruan, Cristina Uriarte Toledok (“zergatik irakurketa plan bat?”), Hezkuntza sailburuak, argi azaltzen digu zergatik Irakurketa Plan bat ikastetxean ezartzeak garrantzia duen:

Irakurmenari buruzko lana ikastetxe guztietan egin behar da, modu sistematikoan egin ere, arlo, ikasgai eta eremu guztietan, bai eta ziklo eta etapa guztietan ere, ikasle guztiei irakurle trebeak izaten laguntzeko jarduera antolatu eta planifikatu bidez. Nola irakurtzen den, nola ulertzen den eta nola hobetu daitekeen ulermena, horiek dira Ikastetxeko Irakurketa Planean hartu behar diren erabakien eta gogoeten oinarria. Plan honek irakasleei lagundunahi die, ikastetxe bakoitzean ezarri eta egituratu dezaten irakurketari emango dioten tratamendua. Helburu garbi eta definituetatik abiatuz, zera lortu nahi da: gure ikasleak gai izan daitezen beharrezko informazioa lortzeko eta ulertzeko, norbere gozamenerako aisialdian irakurmenerako ohiturak garatzeko, eta ahozko eta idatzizko komunikazioa hobetzeko. (par. 7.)

Irakurketa plan bat ezartzearen garrantziaz gain, ezarpen horrek helburu edo nahi zehatz batzuk ditu, *Irakurguneak* jarraian aipatzen duen modura:

- “Ikasleak testuak ulertzeko eta irakurritakotik informazioa ateratzeko gai izatea, testuak espezifikatzea, zentzu orokorra hartzea eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, interpretatzea eta formaz nahiz edukiz aztertzea.”
- “Literatur-testuek ematen duten gozamina ulertu, interpretatu eta gozatzeko gai izatea, irakurtzea disfrutatzeke eta denbora gustura pasatzeko beste aukera bat izateko.”
- “Ikasleek, irakurtzeko gaitasuna hobetuta, ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasuna ere hobetzea.”

(“Zertarako Ikastetxeko Irakurketa Plan bat?”, par. 3.).

Hortaz gain, irakurketa modu eraginkorrean emateko, prozesuan zehar egiten edo egingo diren jarduerak eta ekimenek hiru fase bete behar dituztela ezagutarazten digu Berritzegune Nagusiak (2013, 15.)., alde zurretik planifikatuak eta irakasgai guztietan landuak izango direnak.

Hauek dira irakurketa-prozesuaren hiru faseak:

1. Irakurri aurretik

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuak esanahiaren aldetik eskain dezakeenaren inguruko hipotesiak eta jakinmina lantzea.
- Aurretiko ezagutzak aktibatzea.
- Iragarpenak eta hipotesiak adieraztea.

2. Irakurri bitartean

- Hipotesiak etengabe egin eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testua irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitzea.
- Irakurri ahala, atalen edukia laburbiltzea.

3. Irakurri ondoren

- Irakurritakoa laburpenen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea, eta ezagutza berria eraikitzea.

3.3. Curriculum

Hezkuntza munduan, ume guztien ezagutza prozesuen barneratzea era eta aldi berean eman dadin, curriculum proiektua dago. Curriculum, E. Becchi-k dioen modura, "Instituzioen bitartez, gizatalde desberdinek garaian garaiko ezagutza eta ideiak hautatu, antolatu eta transmititzea helburu duen prozesua da" (Erriondo, 1996, 25.).

Gaur egungo egoeran, umeak dira curriculumera egokitu behar direnak, logikoena alderantziz izan beharko zenean. Curriculum hezkuntza proiektu bezala eta eskola instituzio gisa, dira gaur egungo gizartera, metodologiara eta ezaugarrietara egokitu behar direnak, aniztasun hori errespetatuz. Eskola, antolaketa gisa, eta hezkuntza-aldaketa, behar bezala erlazionatu behar diren bi eremu dira, arreta handiz aztertuak, estrategikoki planifikatuak eta elkarrekin garatzeko animatuak egongo direnak (Pascual, 1998). Aldaketa horien bidean, curriculumeko zehaztapenek agerian utzi beharko lituzkete historian zehar gertatutako sexuagatiko bereizkeria-mekanismoak, eta desberdintasun horiek orekatuko dituen curriculum proposatu beharko lukete. Hartara, ikasleek ere emakumeen ekarpena izan dezaten munduko gizarte- eta kultura bilakaeraren erreferente gisa (Moreno, 2013). Horiek emateko analisi kritiko bat egin behar da gaur egungo egoeraren inguruan. Behin hori eginda, eta herren doazen arloak jakinda, esku-hartzea egin dezakegu, aldaketa eman dadin. Aldaketa horiek sakonak izan daitezten eta denboran iraun dezaten, funtsezkoa da zentzuzkoak izatea eta aurrera eramango dituztenek aldaketa horien ideiak partekatzea, hau da, haien kezka eta beharrei erantzuna ematea (Rimari, 2002).

Analisi kritiko horren bidean, nolakoak dira eskolek eskaintzen dituzten edukiak eta erreferenteak? Egokitzen al dira bizi garen garaietara eta ditugun balioetara?

Berdintasunaren isla al dira? Eduki horiek emateko, ikasliburuak dira irakasleen baliabide nagusia (baina ez bakarra) (Martínez, Rodríguez, 2010). Horiek, eskola-curriculumak ezartzen duenaren arabera, ikasleek izan beharko lituzketen ezagutzetan oinarritzen dira. Azalpen horren ondoren, hasierako galderetara bueltatuko naiz. Material gisa erabiltzen edo erabiliko ditugun ikasliburuak, klase barruan txertatu ahal izateko, baldintza batzuk bete beharko lituzkete. Hau da horri buruz, M^a Antonia Moreno Llana-k, 2013an *Queremos coeducar* liburu digitalean egin zuen ekarpena:

Todos los materiales que el profesorado lleva al aula dan una imagen de nuestra sociedad y de nuestra cultura y transmiten, a su vez, valores e ideas. Por lo tanto, es importante analizar si los libros de texto, los materiales, las unidades didácticas, los textos, las ejemplificaciones o las ilustraciones transmiten igualdad o, por el contrario, fomentan estereotipos y roles de género. Así, el estudio de todos estos materiales debería basarse en el tipo de lenguaje que se usa, si es sexista o no; si las imágenes que se utilizan para ilustrar los diferentes temas presentan la diversidad que actualmente tenemos en nuestra sociedad o si dan una imagen estereotipada de las profesiones, las ocupaciones y los intereses de las personas; si aparecen varones que sean referentes de una masculinidad no tradicional, etc. (30-31.)

Espania mailan duela gutxi finkatu zen hezkuntza lege berria. Lege berri hori LOMLOE siglek osatzen dute. Bere baitan dituen LHko helburuen artean hauek biak aurkitu ditut irakurketari eta hezkidetzari erreferentzia egiten diotenak:

-”Conocer, comprender y respetar las diferentes culturas y las diferencias entre las personas, la igualdad de derechos y oportunidades de hombres y mujeres y la no discriminación de personas con discapacidad.”

-”Conocer y utilizar de manera apropiada la lengua castellana y, si la hubiere, la lengua cooficial de la Comunidad Autónoma y desarrollar hábitos de lectura.”

(Lege Organikoa 3/2020, abenduaren 29koa, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, 20.).

Euskadin ordea, 2021ean, irmo finkatuta dagoen Curriculum eredua Heziberri 2020a (236/2015 Dekretua) da. Horretan, batetik, arlo eta ikasgaien eduki multzoen edukiak garatzen dira eta euskararekin eta euskal kulturarekin lotzen diren berariazko edukiak zehazten dira, eta, bestetik, ebaluazio-irizpideen lorpen-adierazleak finkatzen dira. Curriculum honetan eransten diren edukiak Dekretuarekin batera plazaratutako

curriculumaren osagarriak dira, eta ikastetxeei eta irakasleei laguntzeko asmoz plazaratzen dira (Eusko Jaurlaritzan). Atal horri dagokionez, irakurketaren edota hezkidetzaren inguruko aipamen eza nabarmentzea gustatuko litzaidake. Curriculumak eskeintzen dituen kompetentzia edota helburu guztien artetik, zertzeladatxo bat besterik ez da agertzen gaur eguneko gizartean, eta are gehiago hezkuntzan, ezinbestekoa izan beharko litzatekeen feminismo balioari buruz. Hurrengoko esaldi hau da elkarbizitzarako konpetentzia atalean feminismoari keinu egiten dion bakarra: "gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute" (Oinarrizko hezkuntzako curriculumak, 2020, 42.).

Bestetik eta lehen aipatu bezala, irakurketaren errealitatea, goikoak duen egoera berdinetik mugitzen da. Heziberrik, beste behin, ez du zer esanik gaur egun egoera kaxkarrean (PISA emaitzak besterik ez dira ikusi behar horretaz jabetzeko) dagoen irakurketaren munduarekiko. Orduan, curriculumak ez badio horrelako gaiei esku hartzen, ez badio erreferentziarik egiten, normala izango da haien bilakaera gero eta ilunagoa bilakatzea, ez?

3.4. Hezkidetzaren eta Irakurketa

Horien hobekuntzarako bidean, sekulako lana dugu; material, ezagutza eta kontzientzia falta handia dagoelako, oraindik. Testuliburuetan, adibidez, ikus daitezkeen pertsonarik gehienak gizonezkoak dira, lehen bezala orain ere. Azken urteko testuliburuetan, gizonak eta emakumeak batera agertzen diren ikonoei garrantzi handiagoa ematen zaien arren, oraindik ere emakumeen presentzia urria da (Bilbao, 2008). Presentzia handiagotu edo orekatu besterik ez da egin? Paragrafo batzuk lehenago aipatutako irakurketa munduan ere, gabezia asko existitzen dira, haur eta gazte literaturari dagokionez, ikasleen heziketa egokia eta integrala ostopatzen dutenak. Mundu horrekiko analisia eta esku-hartzea egin nahi badugu, etorkizun hurbil edo urrun batean, eskola konkretu batean, M^a Antonia Moreno Llana-k (2013), beste behin, analisirako klabe batzuk ematen dizkigu:

1. Nor da historiaren protagonista? Noizbait parte hartzen al du historian emakume batek?
2. Gizonezkoen eta emakumezkoen pertsonaien garrantzia eta ospea.
3. Bakarrik egiten al dituzte etxeko lanak emakumeek?
4. Bakarrik egiten al dituzte etxetik kanpoko eta soldatapeko lanak gizonek?
5. Parte hartzen al du beti gizonezkoak kirolean, zientzian eta abenturan?
6. Ausardia, erabakiak hartzea, erantzukizuna, anbizioa, jarduera, arrakasta soziala eta profesionala gizonezkoek bakarrik al dute?

7. Emakumezkoena al da bakarrik beldurra, negarra, emozioak, besteen zaintza, afektibitatea, sentsibiltatea?
8. Emakume pertsonaiaren azken helburua ezkontzea ala gizon bat bikote gisa aurkitzea da?
9. Bakarrik erabiltzen al dira pastel-tonuak pertsonaia femeninoentzat?
10. Azpimarratzen al dira emakume pertsonaien ezaugarri fisikoak? Mespretxatu ere egiten da itxura fisikoa dela eta, emakumeren bat?

Galdera horien bitartez ondorio batzuk atera ditzakegu irakurtzen eta irakurriko ditugun liburuen inguruan. Gorago, teknologiaren gaiari ekin diodanean, mutilen erreferentiei (bereziki haiena) buruz mintzatzen ibili naiz. Hainbeste ordu jolasten igarotzen duten mutilen erreferenteak bideojokoen pertsonaiak dira (biolentzia, sexismoa edota suntsipena gauzatzen duten horiek). Eta neskena, ordea? zein da neskok ditugun erreferenteak?

Kontzientzia pixka bat izaten hasten garenetik edota gure inguruan gertatzen denaz ohartzten hasten garenetik, jarrerak ikasten eta erreproduzitzen hasten gara. Ama makillatu egiten da, gonak jartzen ditu, eta oinetan zailak zein deserosoak diren takoiak daramatza dotore ikusteko. Hala ere, ama ez da gauza horiek egiten dituen bakarra. Izekok, amamak edota ikastolako andereñoak ere, horrelakoak egiten dituzte. Orduan, ni neska naizenez, amak zein nire hurbileko emakumeek egiten dituzten gauza berberak egitea egokitzen zait, ezta? Erantzuna baiezkoa dirudenez, amari makillatzeko, azazkalak margozteko eta bere takoiak uzteko (nahiz eta haiekin ibiltzen ez jakin) eskatuko diot; nik ere, haiek bezala, eder ikusi nahi dudalako neure burua. Arratsaldero ikusten ditudan pelikuletan eta auzokoak nire urtebetetzean oparitu zizkidan liburuetan, horrelako emakume asko ikusten ditut baita ere. Emakume eder-ederrak, Errauskine bezala. Errauskinek lan handia egiten du etxe barruan, zintzoa, apala eta errespetuzko pertsona da. Hala ere, berarekin bizi diren eta bere modukoak diren beste emakume batzuk, oso gaizki tratatzen dute. Ederra izateagatik izango da?, harekin konparatzeak besteen inbidia sortzen du? Beno, behintzat zortea du printze galant eta dotore batekin topo egiten duelako. Printze hori Errauskineren edertasunak jota [oso eder baitago jantzita zein prestatuta, kristalezko takoi deseroso (subkontzientea: “ala, beitu, ama bezala!”) eta soineko luze horrekin] liluratu eta maitemindu egiten da. Zelako zortea Errauskinena! Nik ere bera bezalakoa izan nahi dut!

Eskolak neskei ez die emakumeen erreferentziarik eskaintzen, eta erreferente horiek klabeak dira identitatea eraikitzeke (Ugarte, 2005). Aurreko paragrafoko hori, neska askok lehen sozializazio-prozesuetan ditugun erreferenteen adibide batzuk besterik ez dira. Erreferenteak horiek izanik, nola jarduten dute haien egunerokotasunean? Horren inguruan, Julen Gabiriak (2009), ikastola batean, esperimentu bat egin zuen. Esperimentu hori ipuin bat idaztea zen. Horretarako, baldintza bakarra ipuinaren hasiera emanda zegoela zen:

itsasontzia urperatuta, uharte batera heltzen ziren pertsonaia batzuen istorioa kontatu behar zuten, labur-labur. Amaitutakoan, hauek izan ziren atera ziren emaitzak: “umeak idatzitako istorioetan, 45 gizonezko eta 5 emakumezko agertzen ziren. Hain zuzen ere, mutilek idatzitako istorioetan ez zen neska bakar bat ere agertzen; neskek idatzitako istorioetan ere, mutilak ziren protagonista nagusi, %62,5eko portzentajearekin”. Argi dago orduan zergatik irten ziren horrelako emaitzak, ez? Gizartearen zein generori egokitzen zaio horrelako abenturazko istorio baten protagonista izatea? Emakumezko bati edo gizonezko bati? Azken batean, eta ondorio nagusi gisa, idazlanetan argi ikusi zen haurrek oso barneratuta dauzkatela zeintzuk diren emakumearen eta gizonaren esparruak gure gizartean. Umeek ez dute sortzen: imitatu egiten dute (Gabiria, 2009).

Arrate Egaña euskal idazleak, aurrekoarekin erlazio handia bilatzen diodan honako hau dio (2009): “Lo queremos o no, en nuestros escritos se cuellan nuestros valores y modelos” (21.). Idazleek sortzen dituzten pertsonaiak eta protagonistak dira etorkizuneko umeen erreferenteak. Denak ez du balio. Narrazio zein istorio aldetik bikaintasuna lortu dezakete, baina balioen transmisioa okerra bada edo gaur egungo gizarteak transmititu beharko lukeenaren kontra bada, liburua ez da egokia, ez dauka baliogarritasunik. Egin beharreko borroka guztion kontua da. Lerro fin horretan dago aldaketa.

Un tema fundamental ya que los niños no reconocen como referentes a las mujeres monitoras y necesitan que éstas vayan acompañadas por compañeros que demuestren que hay formas no violentas e igualitarias de ser hombre. Hace falta que los chicos digan: yo trabajo con ellas, es un proyecto común. De lo contrario, volvemos de nuevo al esquema de que el mundo de los cuidados y la lucha por la igualdad son problemas de mujeres. (Fernández, 2009, 59)

Kontzientzia eta kontzientzia. Horrekin bakarrik aldatuko ditugu gauzak. Etorkizuneko irakasle eta haurren hezitzaile bezala, alienaziotik, ezjakintasunetik aldentzeko, Platonen haitzulotik irten behar gara eta irtearazi behar ditugu besteak. Besteak, guztiak. Formakuntza egokia eman eta kritikotasuna landu. “La formación no sirve de nada si no va acompañada de un trabajo de reflexión personal. Las criaturas son esponjas y el monitorado es su referente, lo imitan todo” (Fernández, 2009, 59.).

4. Helburuak

Hezkidetza Irakurketa planean uztartzea izenburu daukan Gradu Amaierako Lan honetatik, azaleko bost helburu atera ditut, era orokortuan aipatuak:

-Hezkidetza eta irakurketa gaien inguruko eskolen lanketa zein den jakitea.

Hasierako jarrera azterlan handi honekiko interesa eta motibazioa izan behar dira. *Hezkidetza Irakurketa planean uztartzea* lanaren gaia zehaztuta dagoela, buru-belarri sartu behar gara horren inguruko, gaur eguneko egoera analizatzen. Kasu honetan, bi arlo konkretu horietan (hezkidetza eta irakurketa) egungo eskolak zer motatako lanketa egiten duen jabetzera.

-Lanketa horretan aurkituko ditudan gabeziei buruz analisi bat egitea.

Jabetze prozesu horretan, gaur eguneko egoera gutxi gorabehera zein den begiztatuta, gabezi sakon batzuekin topatuko gara. Horiei konponbidea emateko edota hutsune horiek betetzen saiatu ahal izateko, arazoak zeintzuk diren identifikatu, definitu eta mugatu egin behar dira.

-Gabezi horiei aurre egiteko interbentzio bat prestatzea.

Behin aurreko identifikazio eta zehaztapen horiek eginda daudela, interbentzioa prestatu behar da, ahulgune horiei erantzun positibo bat ematen saiatzeko.

-Interbentzio horretan hezkidetza eta irakurketa ahalik eta gehien uztartzea.

Prestakuntza horretan, lanaren gaiari kritikotasunez heldu behar zaio, zentzuzko interbentzio bat egiteko eta koherentzia izateko ikertzen eta lantzen ari zaren horrekin. Kasu honetan, hezkidetza eta irakurketa lanaren abiapuntu direnez, horiek biak uztartzen eta parekatzen saiatu behar naiz, interbentzio maila berdina egiteko bi arloetan.

-Liburu hezkide batzuk gomendatzea.

Azkenik, amaierako ekarpen gisa, liburu hezkide batzuen zerrenda partekatzea gustatuko litzaidake, horiekin landu daitezkeen gai bakoitza aipatuz; etorkizunean, niretzako bereziki, baliabide preziatua bihurtu daitekeelako.

5. Metodologia

5.1. Erabilitako ikerketa

_____ Ikerlan guztiek eskatzen duten gisan, eta izenak berak zehazten duen eran; honako honek ere, aurretiko azterketa bat eskatzen du. Azterketa hori burutzeko, behaketa eta elkarrizketa tresnak aukeratu ditut nik; hau da, ikerketa modu guztiz kualitatiboa. Ikerketa kualitatiboa ikerketa zientifiko mota bat da, datu ez numerikoak biltzen eta lantzen dituen,

eta datu horien esanahia interpretatzen laguntzen diguna, bizitza soziala ulertzeko, populazio edo leku zuzendutako azterketen bidez (“Ikerkuntza kualitatiboen metodoak ikuspegi orokorra”).

Gaur egun, gizarte eta ingurugiro garatu zein teknifikatu batean bizi gara. Teknologiarekin eta informatikarekin ditugun harremanak gero eta estuagoak dira, eta, nahi ala ez, eremu horiek gure bizitzaren funtsezko osagai bihurtu dira. Horrenbestez, gure egunerokotasuneko jarduerak burutzeko sarea bihurtzen dugu bidelagun, harengana joz estutasun egoera batean edota informazio bila gaudenean.

Halaxe ere gertatzen da umeen eskola aukeratu behar denean. Egungo honetan, eskolen ospea, itxura, balioak edota metodologiak zeintzuk diren ezagutzeko, guraso askok zentroen web-orrien informazioa edukiko dute ardatz, haienganako lehen iritzi bat sortzeko. Beraz, nik aukeratutako behaketa mota, ikastetxeen web-orrien bitartekoa izango da.

Behaketez gain, elkarrizketa baliabidea erabiliko dut, goian aipatu bezalaxe, ikerketak indar gehiago hartu dezan. Jarraian, elkarrizketa sakonaren definizioa eta horren funtzionamendua zein den aipatuko dut. Gaiari buruzko datu esanguratsuak eman diezazkigukeen pertsona talde murriz bati banaka egindako elkarrizketa da. Jasotako erantzunak grabatu egiten dira, eta ondoren, transkribatu. Transkribaketa osoa egingo dugu, eta eranskinetan atxiki. Hortik, erabilgarri zaizkigun datuak jasoko ditugu emaitzen aurkezpenean. Elkarrizketatuarekiko adeitasunagatik, eta erantzun aberatsagoak lortzeko, bestalde, galderak aurretik helaraztea komeni da. Gogoratu ezinbestekoa dela elkarrizketatuaren grabatzeko baimena izatea (“Ikerketa-txostena”).

Nire kasu espezifikora bueltatuz, elkarrizketak bi multzotan sailkatuko ditut, pertsona talde desberdinen arabera. Lehen multzoa gaien adituak eta ikasiak diren pertsonak osatuko dute; eta bigarren multzoa aldiz, eskolako irakasleek lekukotuko dute. Hortaz, hiru aditu eta hiru eskola izango ditut informazio-iturri, gaien sakontzea ahalbidetuko didatenak. Eskoletan web orrialdeen behaketa ez ezik elkarrizketak irakasleekin gauzatu dira.

5.2. Korpusa

5.2.1. Behatutako web-orriak

Web-orrien bitarteko behaketa-zentroen aukeraketa egiteko erabilitako irizpidea nahiko izan soila da. Bizkaiko bost ikastetxe desberdin erabili ditut, eta horrekiko bakoitzarekin erlazio estu bat gordetzea izan da aukeraketa horren arrazoia.

Hauek izan dira behaketa-zentroak:

-Zentro 1(BW): Zentro 1(B)-ko eskola publikoa nire auzoko eskola da. Etxe alboan dut, eta bertako errealitatea ikustea interesgarria iruditzen zitzaidan, etorkizuneko auzo egoera zein izan litekeen begitantzeko.

-Zentro 2(IW): Zentro 2(I)-ko eskola nire auzo ondoko eskola publikoa da. Haur hezkuntza bertan egin nuen, eta nire izeko bertan ibili zen lanean zenbait urtetan. Horregatik, erakargarria iruditzen zitzaidan konparatzea eta ikustea ia aldaketa nabarmenik eman den nik ikasi nuenetik hona.

-Zentro 3(JW): Zentro 3(J) itunpeko ikastetxe kristau bat da. Hau alboko auzoan dago ere bai, baina ez dauka zerikusirik goian aipatu dudako eskola publikoarekin. Nik bertan ikasi dut lehen hezkuntzatik batxilergora arte, eta badakit nahiko ondo nola den bertako funtzionamendua eta zeintzuk diren jarraitzen dituzten irizpideak. Hortaz, mamitsua iruditu izan zait zentro hau aukeratzea, besteekin konparatu nezakeelako eta konparaketa horren alde onak zein txarrak sailkatu.

-Zentro 4(MW): Zentro 4(M) ikastetxea kristaua eta itunpekoa da baita ere, baina hau Bilboko beste auzo batean kokatuta dago. Bertan nire karrerako azken praktikaldia burutu dut; hiruretatik luzeena izan dena, eta baita berezientakoa ere.

-Zentro 5(AW): Aukeratu ditudan zentroetatik Zentro 5(A) ikastola bakarra da, eta horrek nire behaketa aberastu dezakeela pentsatu izan dut. Gainera, amaren lantokia izan da betidanik, hau da, irakasle bezala jarduten hasi zenetik; eta horrek inplizituki nire irakasle izateko erabakian eragina izan duela uste dut.

Zentroen bilduma honen barruan eskola mota ezberdinak daude: bai publikoak, bai itunpekoak; bai ikastolak, bai eskolak, bai ikastetxeak... Eta aniztasun horrek, behaketa ikuspegi zabalago batez analizatzera eramango dit.

5.2.2. Elkarrizketak

Lehen esan bezala, ikerketa sakonagoa eta aberatsagoa egiteko asmoz, elkarrizketa batzuen prestaketa antolatu dut, web-orrien inguruko behaketekin gainazaleko ikerketa batean gelditzen nintzela uste izan dudalako. Elkarrizketak bi multzotan sailkatu ditut: zentro ezberdinei egindakoak eta aditu ezberdinei egindakoak. Lehen multzo horretarako aukeratu ditudan zentroak hauek izan dira: Zentro 5(AE), Zentro 2(IE) eta Zentro 3(JE). Bigarren multzorako hautatu ditudan adituak aldiz, elkarrizketa hauetan burutu izan ditut: 4. Elkarrizketa (A1), 5. Elkarrizketa (A2) eta 6. Elkarrizketa (A2). **(ikusi I. eranskina).**

Jarraian, lehen eta bigarren multzoko elkarrizketetan parte hartu duten irakasle zein adituen informazio gehigarria aipatuko dut:

-Zentro 5(AE): Ikastolako hezkidetza taldeko partaidea eta PTa den emakumea.

-Zentro 2(IE): Eskolako hezkidetza arduraduna den eta HHko irakaslea den emakumea.

-Zentro 3(JE): Eskolako hezkidetza batzordeko partaidea den eta DBHko irakaslea den emakumea.

Hauek aukeratzeko irizpidea hasierako behaketa-zentroetatik hiru eskola-mota ezberdin hartzea izan da, zehazki: itunpeko ikastola bat, itunpeko ikastetxe kristau bat eta eskola publiko bat; beste behin, hezkuntza munduko lortuko dudan panoramika anitzagoa izan dadin.

-4. Elkarrizketa(A1): Euskal ikasketetan lizentziatua den, literatura-kritika feminista den eta komikietan aditua den emakumea.

-5. Elkarrizketa(A2): Filosofia eta Hezkuntza-Zientzietan eta Filosofia-espezialitatean lizentziatua den, emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterduna den eta Berritzeguneko Hezkidetzaren eta elkarbizitzaren atalean aholkularia den emakumea.

-6. Elkarrizketa(A3): Pedagogian lizentziaduna den, eta azken 10 urteetan hainbat proiektu eta erakunderekin ikaskuntza, hezkidetza eta haur-literatura prozesuen inguruan lankidetzan aritu den emakumea.

Hauek aukeratzeko irizpide nagusia, hezkidetza eta feminismoan ibilbide luzea duten, eta/edo irakurketa feministekin harremanetan ibili diren emakumeak izatea izan da.

| | | | | | |
|----------------------|----|----|----|----|----|
| BEHAKETAK | BW | IW | JW | MW | AW |
| ELKARRIZKETAK | | IE | JE | | AE |
| ESKOLAK | | | | | |

| | | | | | |
|----------------------------------|----|----|----|--|--|
| ELKARRIZKETAK ADITUAK | A1 | A2 | A3 | | |
|----------------------------------|----|----|----|--|--|

Tabla 2: Ikertutako partaideen korpua. Elaborazioa propioa.

5.3. Ikerketarako erabili diren tresnak

5.3.1. Behaketa

Alde batetik, zentroen web-orrien inguruan egindako behaketari dagokionez, beheko taula hau erabili dut era nabariago batean ikusarazteko kontuan hartu izan ditudan puntuak, alegia: irakurketa-planik edo hezkidetzaren planik egituratuak dauden zentroan, irakurketari edo hezkidetzari egun berezirik eskeintzen dioten eta liburutegirik badagoen.

Taulan baieztatu erantzun bezala “x” letra agertuko da, eta ezeztatu erantzun bezala “-” gidoia.

| Zentroa | Irakurketa -plana | Hezkidetzaren -plana | Irakurketari egun berezirik eskeini | Hezkidetzari egun berezirik eskeini | Liburutegia |
|--------------------------------------|----------------------|-------------------------|----------------------------------------------|----------------------------------------------|-------------|
| Zentro 1 (BW) (Publikoa) | - | - | x | x | x |
| Zentro 2 (IW) (Publikoa) | - | x | x | x | x |
| Zentro 3 (JW) (Itunpekoa) | - | - | - | x | - |
| Zentro 4 (MW) (Itunpekoa) | - | - | - | - | - |
| Zentro 5 (AW) (Itunpekoa) | x | - | - | x | x |

Tabla 3: Web-orrien behaketarako erabili ditudan puntuak. Elaborazio propioa.

5.3.2. Elkarrizketak

Elkarrizketak bi multzotan banatu ditudanez (irakasleei egindakoak / adituei egindakoak), elkarrizketen galderak bi multzotan sailkatu ditut ere. Multzo bakoitzean galdera mota batzuk agertu dira, pertsona-arlo bakoitzari egokituak izan direnak, helburu ezberdinak direla eta.

-Zentro ezberdineko irakasleei egindako elkarrizketen galderak:

1. Hezkidetzaren zuzentzat, zentro bezala, zer motatako garrantzia dauka ikasleengan, ezinbesteko balioztat hartzen duzue? Zergatik?

2. Zer motatako lekua egiten diozue honi?
3. Irakasleek honen inguruko formakuntzarik jasotzen dute?
4. Eskolako zer espaziotan ikusten duzue desberdinkeria aregotzen dela?
5. Hezkidetzan planik badaukazue egituraturik?
6. Hala bada, eskola-komunitate osora proiektatuta dago? edo maila jakin batzuetako ikasleengan bakarrik zentratzen da?
7. Zerk eraman zizuen hezkidetzan lantzerik? Beharra ikusi zenuten?
8. Eusko Jaurlaritzak ateratako Hezkidetzan Plana (2019-2023) kontuan hartu duzue zuena sortzeko?
9. Nola hasi zineten antolatzen hori?
10. Norbaiten laguntza edo gidaritza izan zenuten?
11. Zer motatako baliabideak erabiltzen dituzue? Eta zeintzuk dira?
12. Gaiarekiko adituren/elkarteren bat ekarri duzue zentrori zenbait gai lantzeko?
13. Momentu honetan, batzorderen bat arduratzen da horretaz?
14. Familien parte-hartzea gai honekiko ematen da? Sustatzen duzue?
15. Plan hau aurrera eraman zenutenetik aldaketak ikusi dituzue umeengan, hasierako egoerarekin konparatuta?
16. Zer motatako jarduerak aurrera eramaten dituzue? Garrantzitsuenak edo aipagarrienak nabarmendu.
17. Aurrekoek zergatik funtzionatzen dute ondo? Klaberren bat badago gai honetan trebatzeko?
18. Testu-liburuaren aukeraketan, kontuan hartzen duzue hezkidetzailleak izatea? Nola egiten duzue sailkapen hori?
19. Uste duzue irakurketa baliabide ona izan daitekeela hezkidetzan bezalako balioa sustatzeko? Zuek baliabide hori erabiltzen duzue?
20. Berezitasun gehiagorik izango zenukete aipatzeko?

-Aditu ezberdinei egindako elkarrizketen galderak:

1. Zuretzat zer garrantzia du hezkuntzak (ez bakarrik akademikoak) gure gizartean?
2. Eraldaketa tresna al da?
3. Hala bada, generoaren lanketarako edo feminismoaren beste esparru batzuen lanketarako tresna erabilgarria iruditzen zaizu?
4. Praktikara eramanez, hezkidetzan balioa adibidez, izan beharko lukeen tokia dauka, zure ustez, hezkuntza zentroetan?
5. Nola landu daiteke balio hori (hezkidetzan)? Irakurketa baliabide ona izan daiteke horretarako? Posiblea da biak uztartzea? Nola?
6. Irakasleek formakuntza gehigarri bat jaso beharko lukete horren inguruan?
7. Zein punturaino dute eragina gurasoek haien umeen hezkuntza-prozesuan, pentsamoldean eta jarreran?
8. Zuretzat zein izan daiteke aldaketa burutzeko klabea?
9. Gaiarekiko adituren bat edo elkarteren bat eskolara ekartzea egokia al da gaiaren sakontzeko?
10. Zuek hitzaldi edo tailerren bat ematen duzue umei bideratua dena? Eskoletara joan zarete?
11. Nolakoa da gaur egungo egoera, generoari dagokionez, Haur eta Gazte literaturan? Era egokian lantzen da?
12. Nola landu beharko litzateke?
13. Zer motatako erreferentziak dituzte umeek?
14. Zertan jarri behar dugu arreta liburu baten aukeraketa egin behar dugunean?
15. Lanketa horretarako, zer motatako liburu edo zein idazle gomendatuko zenituzke?
16. Liburu on batek eragin handia eduki dezake haurrengan?
17. Amaitzeko, zuen liburutegian haurrentzako liburuak ere badaude?

Hauek izan dira ikerketa mota hau burutzeko erabili ditudan galderak. Elkarrizketatutako pertsonaren arabera, kasu batzutan, moldatu behar izan ditut galdera batzuk, baina orokorrean gidoia horixe izan da. Hauek sortzeko orokortasunetik hasi naiz, eta elkarrizketa aurrera joan heinean, gailan sakondu dut, zehaztapenetara ailegatu arte.

6. Emaitzak

6.1. Web-orriak

Bost zentroetatik bakarrik, Zentro 5(AW)-ak, du **irakurketa-planaren** aipamenen bat haren web-orrian. **Hezkidetzaren planari** dagokionez, ordea, Zentro 2(I)-ak bakarrik dauka honen inguruko aipamenen bat haren web-orrian. Horretan, proiektuen atalean, beste hainbatekin, hezkidetzaren proiektuaren dokumentu osoa agertzen da; eta dokumentu horretan, ikastetxearen ibilbidea edota helburuak (orokorrak zein espezifikoak) agertzen dira.

Plan horietaz gain, ikertzeko beste puntu garrantzitsu bat hezkidetzaren eta irakurketaren inguruan ospatzen edo ospatzen ez dituzten egunak iruditu zaizkit, ikusteko zer mailako ikusgarritasuna duten zentroetan gai horiek. Liburuaren eguna, M8a, A25...

Irakurketari egun berezirik eskeintzen dioten eta web-orrian agertzen diren zentro bakarrak Zentro 1(B) eta Zentro 2(I) izan dira. Eskeintzen dioten egun berezi hori liburuaren eguna da, bien kasuan berdina. Aldiz, **hezkidetzari egun berezirik eskeintzen** dioten zentroen kopurua askoz handiagoa da aurrekoa baino. Kasu honetan, guztien web-orrian, Zentro 4(M)-ko web-orrian izan ezik, aurkitu dut aipamenen bat gai hau jorratzen duena. M8-a edo A25-a izan dira ospakizun errepikatuenak.

Behaketa egiteko kontuan hartu dudana azkenengo puntua **liburutegiaren presentzia** dagoen ala ez izan da. Kasu honetan, bost zentroetatik hiruk badute espazio honen presentzia, eta hauek dira: Zentro 1(B), Zentro 2(I) eta Zentro 5(A).

6.2. Elkarrizketak

6.2.1. Zentro ezberdinetako irakasleei egindako elkarrizketak

Elkarrizketatu ditudan hiru zentroen (Zentro 2(IE), Zentro 3(JE), Zentro 5(AE)) irakasleek **hezkidetzaren plana** jada egituratuta dutela esan didate, edo horren bidean daudela behintzat. Hiruren kasuan, honen ezartzea arrazoi komun batetik dator,

desberdinkeriatik, alegia. Zentroetan egunero ikusi izan dituzten eta gaur ere ikusten jarraitzen dituzten jarrerak, bultzatu edo behartu die zentro bezala, horri konponbide bat bilatzera. Berdintasun horren bidean, zentroek egin duten lanketa orokortasunetik hasi da. Hau da, M8-ko edo A25-eko egunak ikastetxe osotik ikusgai egiten eta ospatzen. Behin egun berezi horien ospakizuna finkatuta dagoela zentroan, zehastasunen lanketara pasatzen ari dira; hots, hezkidetza egunerokotasunera ekartzeko lanketara: ekintza konketuagoak burutzen, gai berriak ezagutzen eta lantzen, egunerokotasunean suertatzen zaizkien kezkei edo arazoei konponbidea ematen saiatzen...

Erabiltzen dituzten baliabideei dagokionez, hirurek izan dute elkarte, erakunde edo zerbitzuren baten laguntza: bai planak ezartzerako orduan, bai materialen edo ekintzen eskaintzan. Berritzeguneak, Alboan, Emakunde, Sortzen, Berdindu, Udaletxeak... Horiek guztiek, klabeak eta indarrak eman dizkie zentroi eta bertako arduradunei honen borrokan jarraitzeko. Laguntzaile horiek eskaintzen dituzten klabeen barruan, badituzte irizpideak, erabiltzen dituzten materialak hezkidetzaileagoak izateko. Zentro 5(AE)-k adibidez, liburu batzuk alde batera utzi dituela aipatzen du, antzinako ikuspegia izateagatik. Hala ere, zentroek aipatu dute, irizpide horien bitartez liburuen aukeraketa egitea askotan zailtzen zaiela, prozesu horren ezjakintasunagatik edo derrigorra ez izateagatik; azkenean irakasle bakoitzaren aukeraketa da. Horrekin jarraituz, eta perspektiba pixka bat aldatuz, irakurketa orokorrean baliabide paregabea iruditzen zaie gai hau jorratzeko, eta horren adibide, Zentro 2(IE)-ak liburutegian duen "hezkidetza apala" dugu. Zentro 5(AE)-k ere buruan du "liburutegi morea" sortzea, nahiz eta orain Covid egoera dela eta, pausatua dagoen prozesua.

Ikasleen eragilei dagokionez, gurasoen eta irakasleen presentzia eta eginkizuna zein den jakin nahi izan dut. Hortaz, alde batetik, hiru zentroen elkarrizketatuei **irakasleen formakuntzaren** inguruan galdetu diet. Hiruren kasuan formakuntza premiazko baliabide bezala ikusten dute, aldaketa eman dadin. Formakuntza gehiena hezkidetza batzordean edo taldean daudenek jasotzen dute, dagoeneko gaiarekiko kontzientzia daukatelako, eta irakasle edo ikasle askok jada ez dutelako ikusten lanketa edo formakuntzaren berriaren beharrik.

Familien parte-hartzeagatik edo eraginagatik galdetu diedanean, orotariko erantzunak eta esperientziak jaso ditut. Zentro 3(JE)-an adibidez, ez dute argi ikusten familien parte hartzea sustatu nahi duten. Zentro horretako guraso askok haurrei ematen dieten heziketa ez dator bat ikastetxean landu nahi dituzten gaiekin, eta gorabeherak sortu dira horren inguruan. Hori dela eta, familiek gai horretan parte hartzea gustatuko litzaieke, bai, baina ez ildoan edota bidea markatzea. Zentro 2(IE)-an edo Zentro 5(AE)-ean berriz,

bestelako esperientziak eta usteak jaso ditut. Bietan esan didate gurasoak oso aktiboak direla, eta beti laguntzeko prest daudela; beraz, bi zentro hauetan horrekiko hauen sustapena ematen da, eta zentroen ustez, eman behar da.

6.2.2. Aditu ezberdinei egindako elkarrizketak

Hasteko, hiru elkarrizketatuak, ondorio komun batera heldu dira **hezkuntzaren garrantziaz eta horren eraginaz** galdetu diedanean. Haien ustez hezkuntza (ez bakarrik akademikoa) gizartearen alor garrantzitsuena edo garrantzitsuenetarikoa da. Hortaz, edozein balio ikasi edo desikasteko ezinbesteko tresna da. Eta hori horrela, feminismoaren edozein gai lantzeko lehen urratsa, jakina. Baina nahiz eta teorian hori horrela izan beharko lukeen defenditu, ez dute uste gero, errealitatean, hori gertatzen denik. Botearen banaketak, botereretsuek dituzten helburuak, irakaslegoaren pentsamoldeak eta formakuntzak bidea urratzen edo moteltzen dute, interesak medio direla.

Haurren gaur eguneko **erreferentziei** dagokionez, eta horrekin batera **gurasoen eraginari** dagokionez, hiru adituek esandakoaren inguruan hurrengo atera da: Era guztietako erreferentziak dituztela, ez bakarrik gurasoena, nahiz eta azkenengo hauena potenteena izan edo eragin handiena eduki haien prozesuan. Erreferentzia horiek oso efimeroak direla, arinak. Ez dutela sakontasunik. Azkar etorri eta azkar alde egiten dutela haien bizitzatik, arrastoa utzi barik. Eta amaitzeko, gero eta erreferente gehiago komunikabideetatik eta sare-sozialetatik ateratzen ari direla.

Eragileekin jarraituz, **irakasleen formakuntzaz** galdetu diedanean, azkenengo bietan (A2 eta A3) ados jarri dira. Formakuntza ezinbestekoa dela argi azpimarratu dute, baina bide horretan gabezia asko daudela ere komentatu. Irakasleei eskeintzen zaien formakuntza oso gainazalekoa da, edo ez dago egituratuta berme hori izateko. Hori dela eta, berme hori benetan egituratzen eta eskeintzen duten eragileek arazoak “partxeatzen” jarduten dute; hortaz, eragina edo programazioa, eskasa edo azalekoa da.

Irakurketaren gaur egungo egoeraz galdetzean, era askotako ideiak eta pentsamoldeak azaleratu dizkidate. Batetik, asko-asko ekoizten dela. Agian irakurtzen dena baino gehiago. Ateratzen dituzten liburuak oso gainazalekoak direla, eta tituluaren bitartez, liburu guztiaren trama eskuragarri duzula. Horietako asko politikoki oso zuzenak direla, eta liburuen helburua pentsaraztea edo informazioa ematea bada, hortik oso urrun gelditzen ari direla, zuzenean esaten ari digutelako zer pentsatu; eta hori, agian, ez dago hain ondo. Bestetik, gaur eguneko liburuak gaur egunekoak izan behar direla aipatzen dute.

Errealitateak gertuen daudenak aukeratu behar ditugula, modernoak, alegia. XXI. mendean gaudela, eta gaur eguneko liburuak XXI. mendekoak izan behar direla, gaur eguneko egoerari (maiztasun handiko gizarteari) eta gaur egungo kezkei erantzuna emango diotenak.

Adituei egindako elkarrizketen emaitzekin amaitzeko, **klabeen** inguruan galdetu diet. Alegia, bi gai hauek aldaketa burutzeko klaberik dagoen. Eta honetan, aurreko galdera askotan bezala, erantzun asko jaso izan ditut. Alde batetik, A1-k feminismo erradikalak duen helburuan sinisten du, hau da, patriarkatuaren erroa haustean. Beste alde batetik, A2-ren klabeak 5 bokaletan oinarritzen dira: Aliantzak, Esperientzien partekatzea, Informazioa, Ordena eta Umorea. Eta azkenik, A3-k, klabea, irakasleen formakuntzan zentratzen du. Haiek izango direlako hurrengo belaunaldien eragile zuzenak, eta hauen heziketan eragin zuzena izan dezaketeenak.

7. Interbentzioa

7.1. Ataza

Irakurketa-unitate bi sortzea, irakurriaren ulermena hezkidetzak gaiarekin lantzeko eta uztartzeko.

7.2. Onurak

Irakurketa, orokorrean, baliabide ezin hobea da heziketarako. Haren sorkuntzatik gizateria kulturaz, aisiaz eta pentsamoldez hornitu du; eta gaur eguneko garena eta badakiguna, hein handi batean, hari zor diogu. Nik egindako interbentzioa irakurketa batzuen bidez, hezkidetzak lantzeko unitateen prestaketan oinarritu da. Hori dela eta, jarraian, Emasia elkarteak (2006) ematen dizkigun ipuinen bidezko haurren garapenerako onurak zortzi arlotan sailkatuko ditut: Psikologikoa, Intelektuala, Afektiboa, Soziala, Hizkuntza, Pertzeptiboa, Estetikoa eta Morala.

Psikologikoa

- Sormena, irudimena eta fantasia estimulatzen ditu.
- Nahi psikologikoak betetzen ditu.
- Barne mundua, bere intimitatea aberasten du.
- Sentikortasuna suspertzen du.
- Kritika ahalmena lantzen du.
- Bere gatazka pertsonalak konpontzen laguntzen du.

- Beldurrak, kezak... gainditzeko ahalbidetzen du.
- Bere autoestimazioa lantzen du.
- Ohiturak sortzen ditu.
- Hazten eta heltzen laguntzen du.

Intelektuala

- Mundua, errealitatea ezagutzen laguntzen dio.
- Informazioak, ikasketak jasotzeko baliabide egokia.
- Jakinmina suspertzen du.
- Hausnarketa eragiten du.
- Bere "zergatiei" erantzuten du.
- Jarduera mentala egituratu eta aberasten du.
- Arreta, kontzentrazioa, oroimena..estimulatzen ditu.

Afektiboa

- Bere guraso eta hezitzaileekiko harreman afektiboak eta komunikazioa suspertzen eta hobetzen ditu.
- Emoziozko heziketa eratzen laguntzen du.

Soziala

- Giza harremanak ulertzen laguntzen dio.
- Rolak eta portaera ereduak irakasten ditu.

Hizkuntza

- Bere komunikatzeko gogoia betetzen du.
- Hiztegia aberasten du eta hizkuntza ulermena eta adierazpena garatzen ditu.
- Euskararekiko jarrera positiboa eraikitzen du.

Pertzeptiboa

- Sentimen-pertzepzioa orokorki (ikusmena, entzumena, ukimena, etab.) estimulatzen du.

Estetikoa

- Ahalmen estetiko eta artistikoa estimulatzen ditu.

Morala

- Besteekiko tolerantzia, ulermena eta errespetua errazten ditu.

7.3. Oinarrizko gaitasunak

7.3.1 Zeharkakoak

- a) Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia eta komunikazio digitalerako konpetentzia: Euskaraz idatzita egongo diren testuak ahoz eta idatziz ulertu behar izango dituzte, eta horiei jariozunez eta eraginkortasunez erantzun.
- b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia: Testuen edo liburuen bitartez landuko diren gaien sakontasunari eutsi behar izango diote, ondorio batzuetara helduz, horiek gordez eta zabalduz.

7.3.2 Diziplinari dagozkionak

- a) Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia: Testuak duen mami guztia ateratzea, baliagarria bihurtzeko lanketa.
- b) Konpetentzia sozial eta zibikoa: Gizartearen parte dela ohartu eta horretan dauden arazoez jabetu, hobekuntzan bere alea jartzeko.

7.4. Helburu didaktikoak

- Irakurriaren ulermena lantzea, irakurketa estrategiak eta prozesuak baliatuz, ikasleak irakurketan era egokiagoan trebatzeko.
- Hezkidetzaren arloko gai batzuk jorratzea, testuen bitartez, dagoen errealitateaz zein arazoetaz jabetzeko eta horiei konponbidea ematen saiatzeko.

7.5. Metodologia

Metodologia parte-hartzailea izango da. Talde lanetan bananduko dira, eta talde handian zein txikian aurrera eramango dute jardura. Talde txikiak gaiaren inguruko gogoetak eta galderen erantzunak egiteko erabiliko dira, eta talde handiak gogoeta edo erantzun horiek klase osoarekin partekatzeko erabiliko dira. Galderei dagokionez, gaiarekiko eta ulermenarekiko sakontasuna progresiboa izango da: hasierako galderak azalekoagoak izanik, eta amaierakoak askoz sakonagoak.

7.6. Kronograma

Irakurketa planean sartuta egongo diren irakurketa-unitateak burutzea, 15 egunik behin unitate bat landuz.

7.7. Jardueren deskribapena

Bi unitate desberdin prestatu ditut, bakoitza ziklo batera bideratua, hezkidetzaren bi arlo edo bi gai desberdin lantzeko helburuaz.

1. IRAKURKETA-UNITATEA

| |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| MOTA: Narrazioa. |
| GAIA: Zaintza-ardurak familiako sarean |
| MAILA: Bigarren zikloa, 6. maila (11-12 adin tartekoentzat) |
| SAIO KOPURUA: 2 saio |
| ESTRATEGIAK: <ol style="list-style-type: none">Irakurri aurretik: Galderak egin haien etxeko egoera pertsonalaren inguruan:<ul style="list-style-type: none">*Etxean nor joaten da erosketak egitera?*Non egiten dituzue? Etxetik hurbil edo urrun?*Nork gordetzen ditu erosketak?Irakurri bitartean:<ul style="list-style-type: none">*Azpimarratu produktuak.*Biribildu familiako pertsonak.Irakurri ostean:<ul style="list-style-type: none">*Zer iruditu zaizu testua? Zein izan da zure inpresioa?*Zenbat pertsonai egon dira? Aipatu bakoitza. |
| PROZESUAK: <ol style="list-style-type: none">Informazioa atera:<ul style="list-style-type: none">*Nork erosi zion giltzetakoa?*Noiztik erosten du supermerkatu horretan?*Norentzat erosiko du sojazko esnea?*Zer egingo du gauean afaltzeko?*Zer arrain-mota gustatzen zaie alabei?Ulermen globala:<ul style="list-style-type: none">*Egin bost lerrotan laburpena*Zer izenburu jarriko zenioke testuari?*Zenbat zati dauzka testuak? Argudiatu banaketa.Inferentziak: |

- *Gustuko du andra honek erosketak egitea? Zergatik?
- *Gustuko du senarrak erositako giltzetakoa? Zergatik?
- *Badauka janari osasuntsua erosteko ardurarik? Zergatik?
- *Zergatik geratu da txokolatinen aurrean?
- *Norekin egiten ditu erosketak? Zerk ordezkutzen ditu pertsonak?

4. Edukiaren gaineko hausnarketa:

- *Zergatik ez du gatza aurkitzen?
- *Zer jarrera dute etxeok amarekin?
- *Uste duzu astero erosten dituela txokolatinak?
- *Hau irakurrita, zure etxeko norbait etorri zaizu burura?
- *Berdin sentitzen da emakume hori testuan zehar?
- *Noiz aldatzen da bere jarrera? Noiz egiten du barre?

5. Formaren gaineko hausnarketa:

- *Non (zein tokitan) hasten da testua eta non bukatzen da?
- *Zer gertatu da euroarekin? Zergatik?
- *Eta giltzetakoarekin?
- *Zerrendatu beltzez dauden produktuak: 1. zatian/2. zatian.
- *Tankera berekoak dira produktuak? Zergatik?

Eurokoa sartu du zirriztutik. Poltsikoan prestaturik zekarren. Eta baita Visa ere, eta giltzak. Supermerkatu barrurantz mantso doa, zerrendari begira. Ezker eskuaz eta eskuin belaunaz darama karrotxoa. Bide erdian gelditu egin da, hutsari begira. Musikagatik. Gaztetan entzuten zuen kantaren bat. Bakeroak estu samar ditu, bakeroak normalean eramaten diren bezala. Ibiltzean min pixka bat ematen diote, poltsikoan, kotxeko giltzek; giltzek baino giltzetakoak. Senarrak erosi zion. Traste bat.

Urteak dira supermerkatu berera etortzen dela. Lehen alaba jaio eta auzoan etxea erosi zutenetik. Galdu egiten da oraindik. Hasieran biak etortzen ziren. Beti dago aurkitzen ez duen zerbaite. **Gatza** adibidez. **Zerealak** behar ditu alabarentzat; **txokolatetzkoak** eta **Kellog's**. Besteak azkarregi biguntzen dira. **Marmelada** (azukre gabe) eta **gurina** senarrarentzat. **Molde ogia**, **integrala**, beste alabarentzat, gehi **laranjak** eta **urdaiegosia**. Minutu gutxian bete daiteke karrotxoa. Leku handia du oraindik.

Esnea. Esnea denek edaten dute, nahiz senarrak **gaingabetua** behar duen (medikuak esana), alaba zaharrenak **sojazkoa** (besteak mukiak egiten dizkio) eta **egunekoa**

gazteenarentzat. Ez du **gatza** aurkitzen, gainera giltzatakoak min ematen dio. Ahate bat da. Plastikogogorrezkoa. Barre egin zuten oparitu zionean.

Autoa urruti xamar utzi du. Eskerrak haraino karrotxoarekin joan daitekeela. **Oliba olio**. **Espartzuak** hartu behar ditu, komunekoa zaharturik baitago eta sukaldekoa ere hortxe-hortxe. **Espinakek** itxura ona dute. Gaur gauerako purea egin dezake. Alaba gazteenari ez zaio gustatzen; berdin dio, prestatuko du beste zerbait berarentzat (tortillaren bat edo. **Arrautzak**). Bi eskuak behar ditu orain karrotxoari bultzatzeko. **Jogurtak**: bakoitzari bere zaporea, testura, marka. Giltzatakoa aukeratzen senarrak minutu bat baino gehiago pasa ote zuen bururatu zaio. Ke ba. Handiena, kolore asko baditu hobe, eta orain ahatearen mokoa izterrondoan sartzen zaio.

Txokolatea, lentejak, Cous-Cous-a, gazta; gatza non egongo da? **Tomatea, hortzetako pasta, patatak**. Nekea etortzen zaio hori guztia armairutan sartu beharko duela pentsatzearekin. Ez dago ziur indarririk izango duen. Ez zaio arrandegiko usaina gustatzen. Supermerkatuko arrandegiek gutxiago usaintzen dute; baina ez hobeto. Garestia da arraina eta berak garestiena erosi beharko du. Edo ia. Eta ganbak. Biharko. Freskoak, noski. Alabei ez zaie arraina gustatzen (ganbak bai), atuna bakarrik. Azkenean zakarrontzira bota beharko du erositakoaren herena. Jertsea kendu du eta karrotxoan utzi. President. Alaba gazteenari marka horretako camembert gazta gustatzen zaio. Barre egin eta buruan hazka egin du. **President**. Hozkailuan geratu da, apal zurian.

Ganba izoztuak ikusi ditu, poltsa handietan. Hartu egin ditu, beldurrez. Bihar atera ditzake freskoen orde. Barre egin du alaben aurpegiak imajinatuz. **Kroketa izoztuak, patata frijituak, patata-tortilla! Sobreko zopa**. Paper fosforitotan bilduta, **bizkotxoa**, antsietatez jaten denetakoa. **Ketchup-a** eta **saltxitxak** (gaztarekin, urdaiazpiko zaporeaz). Barrez hasi da berriro ere. Ez liokete etxean sartzen utziko. **Coca Cola**. Hori bai, hartu behar luke. Alaba gazteenak azken momentuan apuntatu dio zerrendan, "ez ahaztu, e?". Alaba zaharrenak egingo dio errieta hala ere, multinazional kriminal bati dirua emateagatik. Buruko eta izterrondoko mina du.

Txokolatinen aurrean geratu da. Zenbat kolore. Bat hartu du. Urre kolorekoa. Karameloa eta gaileta ditu eta goxo-goxoa dago. Beste bat hartu du karrotxoko euroaren truke edo, eta joan egin da.

Karrotxoa beterik utzi du, txokolatinen aurrean, jan duenaren papera eta plastikozko giltzetakoa. Agur gutunik ez. Agur gutunak gehienetan gezurra dira; egia jarrita, inork ez lituzke ulertuko.

UXUE APAOLAZA, *Umeeek gezurra esaten dutenetik*, Erein, 2006. (egokitua)

2. IRAKURKETA-UNITATEA

MOTA: Albuma.

GAIA: Genero estereotipoak eta rolak.

MAILA: Lehenengo zikloa, 1. maila (6-7 adin tartekoentzat)

SAIO KOPURUA: 2 saio.

ESTRATEGIAK:

1. Irakurri aurretik: Egoera pertsonalaren inguruko galderak egin:

*Azazkalak margozteak gustatzen zaizue?

*Zuek margozten al dituzue?

*Nork margozten dizkizue azakalak?

Etxean nonork gehiago margozten ditu?

2. Irakurri bitartean:

*Azpimarratu agertzen diren pertsonai nagusiak.

*Biribildu azazkalak margozteko erabiltzen dituzten kolore guztiak.

3. Irakurri ostean:

*Zer iruditu zaizue ipuina?

*Zenbat pertsonai agertu dira? Aipatu bakoitza.

PROZESUAK:

1. Informazioa atera:

*Nola da Jon?

*Gustatzen al zaio azakalak margozteak?

*Nola deitzen da Jonen adiskidea?

*Zer esaten diote burla egiten dioten umeei Joni?

*Zer kolore aukeratzen du aitak azazkalak margozteko?

*Zer gertatzen da bere urtebetetze egunean?

2. Ulermen globala:

*Kontatu zer gertatu den 3-5 lerrotan.

*Albumak izenbururik ez balu, zein izenburu jarriko zenioke?

*Kontakizuna zenbat zatitan bananduko zenuke? Zeintzuk dira zati horiek?

3. Inferentziak:

*Zergatik gustatzen zaio Joni azazkalak margotzea?

*Nortzuk dira Jonekin, hasieran, azazkalak margozten dituzten pertsonaiak? Zer dute komunean pertsonai horiek?

*Nortzuk burla egiten diote Joni? Zer dute komunean pertsonai horiek?

*Zergatik margozten ditu aitak azazkalak?

*Zergatik joaten da aita eskolara azazkalak margoztuta?

4. Edukiaren gaineko hausnarketa:

*Zer jarrera dute etxekoek Jonek azazkalak margotu nahi dituenean? Eta Margaritak?

*Zergatik eskolako ume batzuk berarekin sartzen dira?

*Gustuko duzun gauza bat egiteagatik zurekin sartu al da norbait?

*Zer egingo zenuke Jonen kasuan?

*Zergatik azkenean klasekide guztiek erabakitzen dute azazkalak margotzea?

*Berdin sentitzen da Jon testuan zehar?

*Noiz sentitzen da pozik?

5. Formaren gaineko hausnarketa:

*Noiz aldatzen da Jonen jarrera? Pozik egotetik, triste egotera?

*Eta noiz aldatzen da haren jarrera, berriz? Triste egotetik, pozik egotera?

*Zerk bultzatzen du aldaketa bi kasuetan?

Erabiliko dugun albuma *GORA KOLORETAKO AZAZKALAK!* izango da. Jarraian, album honen kontakizuna, bideo baten estekaren bitartez partekatzen dizuet. Hala ere, albuma fisikoki edukitzea gomendatzen da.

<https://www.youtube.com/watch?v=TXXcbhaLlaw&t=44s>

7.8. Ebaluazioa

7.8.1. Lorpen adierazleak

*1. zikloan:

- a) Testuko gaia eta ideia nagusiak ulertzen ditu.
- b) Oso nabarmenak diren bazterketa-adierazpenei igertzen die.
- c) Badaki adi-adi entzuten eta solasaldietan parte hartzen.
- d) Badaki besteei errespetu osoz entzuten.

- e) Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- f) Gai da androzentrikoak, sexistak eta bazterketazko zenbait adierazpeni igartzeko.
- g) Gai da komunikazio-egoeraren oinarriko ezaugarriak modu gidatuan aztertzeke: hartzailea, testuaren helburua...
- h) Era onargarrian ahoskatzen eta intonatzen du.
- i) Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak alde edo moldez kontrolatzeko.
- j) Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.
- k) Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.
- l) Solaskideari entzuten dio, eta gai da entzundakoa aintzat hartuta erantzuteko.
- m) Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.
- n) Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du.

*2. zikloan:

- a) Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- b) Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
- c) Igartzen die oso nabarmenak diren sexista eta bazterketa-adierazpenei.
- d) Badaki besteei aktiboki entzuten.
- e) Badaki besteei errespetu osoz entzuten.
- f) Gai da irakurgaiaren helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
- g) Gai da testutik abiatuta oso nabarmenak diren inferentziak egiteko.
- h) Erraz igartzen die bazterketa-adierazpenei.
- i) Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.
- j) Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeke: hartzailea, testuaren helburua...
- k) Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.
- l) Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du.
- m) Irakurketaren aldeko interesa du.
- n) Gai da ahozko eta idatzizko literatura-testuen zentzu orokorra ulertzeko.

7.8.2 Tresnak

- a) Behaketa

b) Taula (ikusi II. Eranskina)

8. Ondorioak

8.1. Lanaren ondorioak

Bibliografian analizatu ahal izan dudanez, hezkidetzaren terminoaren sorkuntza edo genero segregazioaren galtzea 1970eko Hezkuntza Lege Orokorretik aurrera ematen hasi zen. Handik hona aurrerapauso handiak eman dira gai honetan, baina oraindik bide handia dugu aurretik egiteke. Izan ere, Aizpuruak eta Lasartek (2016) dioten modura, kontuan hartu behar da hezkuntza politika erabat baldintzatuta dagoela garai historikoaren arabera, tokiaren arabera edota jendartea antolatzeko moduaren arabera. Hala, bada, egungo eskola eredua (hedatuen dagoena) jendartearen isla da: ikasgelatik at maskulinitate eredu nagusitzen, eta ikasgela barruan beste horrenbeste gertatzen.

Eskolekin eta adituekin egindako ikerketan aurreko paragrafoaren “teoria” oso argi ikusi dut praktikan; alegia, errealitatean. Legez bai, hezkidetzaren lantzen da, derrigorrez gainera gaur egun, baina oso era “partxeatua” esango nuke, sakontasunik gabe, errora ailegatu gabe. Instituzioetatik bultzatzen duten lanketa oso eskasa da arazoak duen edukiera kontuan hartuta. Rimari (2002) argi mintzatzen da aurrekoaren inguruan: aldaketak benetan sakonak izan daitezten eta denboran iraun dezaten, funtsezkoa da zentzuzkoak izatea eta aurrera eramango dituztenek aldaketa horien ideiak partekatzea, hau da, haien kezka eta beharrei erantzuna ematea. Hori da arazo garrantzitsuenetako bat. Legeak ez du eskoletan dauden kezka eta beharrei erantzuten. Kontzientzia handia falta da oraindik hezitzaile askoren eskutik, eta horri gain hartzeko, formakuntza da bide bakarra. Hezkuntza zentroetan, ikasleen erreferentziak, irakasleak dira, eta haiengandik jasotzen duten oro umeen heziketan eragiten du. Elkarrizketatutako irakasle gehienek komentatu dute hezkidetzaren balioa edo pentsamoldea ez dela eskolako langile guztien eskutik ematen. Zergatik? Kontzientzia falta izugarria dagoelako oraindik. Horregatik lehen aipatutako sakontasunik gabeko heziketa. Uste da ikastetxetik kartel iraultzaileak jartzearen, egun aldarrikatzaileak ospatzearen edota bideo adierazgarriak egitearen, aldaketa emanda dagoela. Eta ez. *Iceberg*-aren punta besterik ez dugu ukitzen horrelako ekintzak aurrera eramaten ditugunean. Eta kontuz, ez dut esaten txarto daudenik, baina ez dira nahikoak. Hezkuntza eragile nagusia da edozein gizarte aldatzen saiatzeko. Aprobetxatu gaitetzen horretaz. Kontuan eduki behar da gure kaleetatik dabilen jende oro pasa dela hezkuntza sistematik, horregatik da hezkuntza sistema garrantzitsua berdintasuna errotzeko (Moreno, 2019).

Hortaz gain, ikerketa zatian murgilduta ibili naizenean, oso argi ikusi dudan beste kontzeptu bat Platero aldizkarian (2019) agertzen dena da: interesen dibertsifikazioa, alegia (Bibliotecas escolares y animación a la lectura, 2019). Umeek jada ez dituzte haien jarrerak edota pentsamoldeak liburuetatik hartzen, umeek jada ez dute letretan kodifikatzen, iruditan baino. Eta hori guztia oso nabaria da gizartearen esparru anitzetan. Bideojokoek, telesailek, programek... erabateko eragina (bai positiboa, bai negatiboa) dute belaunaldi berrietako umeengan, eta hori da gaur eguneko gure kulturaren panoramika. Horregatik, edozein gauza lantzerako orduan, ez dut uste irakurketan edo kode idatzian bakarrik ainguratu behar garenik. Interesak dibertsifikatu dira, horiek ere gure kulturaren parte dira gaur egun, eta errealtate horri aurre egin behar diogu, gure gustukoa izan ala ez.

Hala ere, honekin ez dut esan nahi ditugun idatzizko baliabideak ez direnik erabili behar, edo ez denik lanketarik egin behar. Irakurketa oso euskarri egokia eta erabilia da oraindik ere, baina baldintza batzuk bete beharko lituzke gela barruan hauekin lan egiteko, esaterako: hezkidetzailleak izatea edo behintzat aspektu horrekiko kritikotasun bat adieraztea. M^a Antonia Moreno Llanezak (2013) dioen modura: Irakasleek ikasgelara eramaten dituzten material guztiek gure gizartearen eta gure kulturaren irudi bat ematen dute, eta, era berean, balioak eta ideiak transmititzen dituzte. Beraz, garrantzitsua da aztertzea testuliburuek, materialek, unitate didaktikoez, testuek, ereduek edo ilustrazioek berdintasuna transmititzen duten edo, alderantziz, genero-estereotipoak eta -rolak sustatzen dituzten.

Aurrekoaz gain, nire interbentzioaren bitartez, eta eranskinetan atxikitu dudan liburu hezkidetzaillearen zerrendaren bitartez (**ikusi III. eranskina**), gaur eguneko gabeziei erantzuna ematen saiatu naiz. Badakit bi edo lau saio aurrera eramateagatik ez dela ikasleen pentsamoldea edo jarrera aldatuko, baina agian abiapuntua izan daiteke ikasle bakoitzaren kritikotasunaren edo kontzientziaren garapenaren bidean. Bi unitatetan adin bakoitzean dauden zailtasunei aurre egiten saiatu naiz. Batetik, 6. mailan familiako zaintza-ardura gaia jorratuz: jada gauzak egiteko burujabeagoak bilakatzen direlako, haien kabuz hasten direlako gero eta gauza gehiago egiten (bai etxean eta bai etxetik kanpo), eta horren perspektiba edo antolakuntza goizdanik nola den ezagutzea garrantzitsua iruditzen zait, gauzak aldatu daitezten. Bestetik, ordea, 1. mailan genero estereotipoak eta rolak landuz: adin horretan jada oso argi dituztelako genero bakoitzari esleitzen zaizkion rolak, gustuak, nahiak, etab. Eta horiek guztiak desikasteko ezinbestekoa da gaia behar bezala abordatzea.

8.2. Ondorio orokorrak

Orokorrean, oso gustura gelditu naiz burutu dudan lanarekin. Hasieratik hartu dut gaia gogo handiarekin, nire interesekoa izan baita guztiz. Badira urteak jada feminismoa nire bizitzara heldu zela, eta hari zor diot, hein handi batean, gaur naizen emakumea. Kontzientzia dudanetik, eta betaurreko moreak jantzita ditudanetik, mundua beste era batean ikusten dut, eta badakit zerikusi gutxi daukala ikusten, entzuten edo kontatzen diguten horrekin.

Etorkizuneko irakasle bezala, lan honek asko lagundu dit ikuspegia zabaltzen, errealitatea zein den gordinik ezagutzen eta nire formazioa indartzen. Asko irakurri, aditu eta partekatu dut gai honekin erlazio zuzena edo estua duten pertsonekin, eta guztiek ekarpen positiboa egin didate lanean, zein nire diskurtsoan. Eta orain, lana amaitzeko zati gutxira, eta ikasi dudan guztia kontuan harturik, hezkidetzaz bezalako balioa hezkuntza munduan lantzea derrigora delakoan berresten naiz. Ez dut feminista ez den hezkuntza batean eta heziketa batean sinesten; beraz, nire esku dagoen guztia egingo dut, errealitatea eta bidegabekeriak ikusten edo ikusi nahi ez dituzten itsuen gizarte hau aldatzen saiatzeko.

Azkenik, nahiz eta gaur eguneko testuingurura moldatu behar garen, gustatuko litzaidake esatea kode idatzia bidelagun ezin hobea dela bizitzaren hainbat esparrutan eta bizitzaren hainbat esparrutarako. Euskarri guztiek eskatzen duten eran, honek ere bere berrikuntzak, gaurkotzeak, kritikak, etab eskatzen ditu. Baina gaur egun alternatiba eta baliabide asko ditugu eskura, munduko edozein bazterretik gure aletxoak ipintzeko, gizarte bidezkoago baten bidean. Aprobetxatu dezagun.

9. Bibliografia

Aizpurua, I., Lasarte, G. (2016). Literatura eta generoa haur hezkuntzan: Bizkaiko haur eskola baten azterketa. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 27(2), 41-73.

Area, M. (2001). *Las mujeres, las nuevas tecnologías y la educación.: Un camino lleno de obstáculos*. Desclée De Brouwer.

Asti Leku. Web-orrien bitarteko behaketa egiteko.
(<https://astileku.eus/es/>).

Basurto ikastetxea. Web-orrien bitarteko behaketa egiteko.
(<https://www.basurtoikastetxea.net/>).

- Berritzegune Nagusia. (2013). *Irakurketa Lantzeko Orientabideak*. https://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/121468/500011e_Pub_BG_N_irakurketa_BH.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Bilbao, B. (2008). Euskal curriculuma lehen eta orain. *Ikastaria: cuadernos de educación*, (16), 83-108. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/16/16083108.pdf>
- Carr, N. (2008, Uztaila-Abuztua). Is Google Making Us Stupid? What the Internet is doing to our brains. *The Atlantic*. <https://www.theatlantic.com/magazine/archive/2008/07/is-google-making-us-stupid/306868/>
- Calvo, A., Susinos, T., García Lastra, M. (2011). El largo camino hacia la coeducación. Un análisis de las etapas de la educación de las mujeres a partir de tres relatos de vida escolar. *Revista de Educación*, (354), 549-573.
- Codina, M. T. (2002). Rosa Sensat y los orígenes de los movimientos de renovación pedagógica. *Historia de la educación. Revista interuniversitaria*, (21), 91-104.
- Cortina-Pérez, B., Fleita, T., Andúgar, A. (2019 Apirila 23). *Sin motivación no hay aprendizaje*. [Mezua blog batean]. <https://www.elauladepapeloxford.com/sin-motivacion-no-hay-aprendizaje/>
- EMAISIA elkarte. (2006). *Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta*. http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0168/5_EMA_AIS.pdf
- Emakunde. (1997). *Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko gida*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones/guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf
- Erriondo, L. (1996). Euskal Curriculum? *Jakin*, (93-93), 25-43.
- Escudero J.M. (1988). La innovación y la organización escolar. In Pascual, R. (Ed.). *La gestión educativa ante la innovación y el cambio*. (84-99). Narcea.
- Estadísticas de educación y formación. Eurostat. *Porcentaje de hombres y mujeres graduados en educación superior en la UE*. https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925481157&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout
- Eusko Jaurlaritz. (2020). *Oinarrizko hezkuntzako curriculum*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf
- Felix Serrano. Web-orrien bitarteko behaketa egiteko. (<http://www.felixserranoeskola.net/>).

Flores, D. (2016). La importancia e impacto de la lectura, redacción y pensamiento crítico en la educación superior. *Revista del Instituto de Estudios en Educación Universidad del Norte*, (24), 1-8.

Fernández, J. (2009). Emaisia: tiempo libre con gafas de género. *Emakunde*, (75), 58-60.

García, G. (2013, Apirila 22). La lectura, una de las actividades más beneficiosas para la salud de nuestro cerebro. *ABC*.

<https://www.abc.es/cultura/libros/20130423/abci-beneficios-lectura-libro-201304221632.html>

Ikerketa-txostena. <https://sites.google.com/view/ikerketa-txostena/orri-nagusia?authuser=0>

Ikerkuntza kualitatiboen metodoak ikuspegi orokorra.

<https://eu.eferrit.com/ikerkuntza-kualitatiboen-metodoak-ikuspegi-orokorra/>

Jesuitak Indautxu. Web-orrien bitarteko behaketa egiteko.

(<https://www.indautxujesuitak.org/>).

Bibliotecas escolares y animación a la lectura. (2019). *Platero: Revista de Literatura Infantil*, (222), 1-40.

Lege Organikoa 3/2020, abenduaren 29koa, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006 (LOMLOE), de 3 de mayo, de Educación. (BOE zb. 340, 2020ko abenduaren 30a, 122868-122953).

Lévy, P. (2000). La cibercultura y la educación. *Pedagogía y Saberes*, (14), 23-31.

<https://doi.org/10.17227/01212494.14pys23.31>

M^a Antonia Moreno. (2013). *Queremos coeducar*.

<http://www.educatolerancia.com/wp-content/uploads/2016/12/queremoscoeducar-2.pdf>

Maristak Bilbao. Web-orrien bitarteko behaketa egiteko.

(<https://www.maristasbilbao.com/>).

Martínez, J., Rodríguez, J. (2010). EL CURRÍCULUM Y EL LIBRO DE TEXTO ESCOLAR. UNA DIALÉCTICA SIEMPRE ABIERTA. In Gimeno J. (Ed.), *Saberes e incertidumbres sobre el currículum* (246-268). Morata.

Moreno, M. (2019). *Berdintasunean hezi daitekeenaren adibide garbia da Skolae*. Klitto!.

<https://www.klitto.eus/berdintasunean-hezi-daitekeenaren-adibide-garbia-da-skolae/>

Mujeres graduadas en educación superior.

https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925481157&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout

OECD. (2011). *¿Leen actualmente los estudiantes por placer?*.

<https://www.oecd.org/pisa/pisaproducts/pisainfocus/49184736.pdf>

PISA en español. <https://www.oecd.org/pisa/pisa-en-espanol.htm>

Sánchez, A. (2002). El androcentrismo científico: el obstáculo para la igualdad de género en la escuela actual. *Educar*, (29), 91-102.

Sánchez, D. (2014ko maitzaren 11). Las chicas rinden más que los chicos... excepto en PISA. *elDiario.es*.
https://www.eldiario.es/sociedad/chicas-rinden-chicos-excepto-matematicas_1_4892957.html#:~:text=En%20la%20C3%BA%20ultima%20etapa%20del,datos%20del%20Sistema%20Universitario%20Espa%C3%B1ol

Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad. La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, (6), 49-78. <https://rieoei.org/historico/oeivirt/rie06a02.pdf>

Tiana, A., Ikeda, M. (Uztailaren 23 2020). Los resultados de lectura del informe PISA en España fueron anómalos por disposición negativa de los alumnos, según OCDE. *Europapress*. <https://www.europapress.es/sociedad/educacion-00468/noticia-resultados-lectura-informe-pisa-espana-fueron-anomalos-disposicion-negativa-alumnos-ocde-20200723140537.html>

Ugarte, B. (2005). Hezkidetza, detaile sutilen indarra. *Hik Hasi*, (96), 8-17. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20050301/hezkidetza-detaile-sutilen-indarra>

Unibertsitatea, M. (1992). Jakingarriak. *Eskoriatzako dokumentazio zentroa*, (22), 1-40.

Viviana, M. (2012). Fracaso escolar: ¿Fracaso en la alfabetización inicial?. *Revista Pilquen*, (8), 1-9.

Wilfredo Rimari. (2002). *LA INNOVACIÓN EDUCATIVA: Un instrumento de desarrollo*. http://eoepsabi.educa.aragon.es/descargas/G_Recursos_orientacion/g_8_innovacion_educativa/g_8_1.docum.basicos/1.3.Innovacion_educativa_desarrollo.pdf

Zergatik Irakurketa Plan bat?. <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/zergatik-irakurketa-plan-bat>

Zertarako ikastetxeko irakurketa plan bat?. <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/zertarako-zentroko-irakurketa-plan-bat>

10. Eranskinak

10.1. I Eranskina

10.1.1. 1. Multzoa: Zentro ezberdinei egindako elkarrizketak

-1.ELKARRIZKETA. Zentro 3(JE): Hezkidetza batzordeko arduradunari egindako elkarrizketa:

1. Hezkidetza zuentzat, zentro bezala, zer motatako garrantzia dauka ikasleengan, ezinbesteko balioztat hartzen duzue? Zergatik?

Bai, argi eta garbi. Ikastetxeko arlo nagusi bat da, edo hori izatea nahi dugu. Egia da duela gutxi hasi zela lantzen, izan ere, eta hau askotan errepikatuko dut, gure egoera berezia izan da, ikastetxe hau mutilen ikastetxea zelako. Orduan, neskak sartu zirenean, sartu bakarrik ez ziren egin, ikastetxeko egitura, patioa edo curriculumak ez zelako aldatu. Aldaketa bakarrik neskak sartzearen ekintza hutsa izan zen. Beraz, urte batzuk pasatu eta gero, ondorioa nesken presentzia zerbait gehiago aldatu behar zuela izan zen, areagotu. Horregatik, hasi zen hezkidetza prozesua, horregatik bultzatu zen autodiagnostiko bat egitea, eta bultzatzen da hezkidetza balore moduan: ikasleentzat, irakasleentzat, familientzat (saiatzen gara).

2. Zer motatako lekua egiten diozue honi?

Beitu, nik uste hasierako lehen pausua talde feminista sortzearekin eman zela, batxilergoan, ikasleena. Eta hori irakasle baten ideia izan zen. Orain dela urte batzuk talde bat existitzen zen, solidaritza batzordea deitzen zena, eta hortik ideia bat atera zen ikasleekin lan egiteko helburua zuena, giza-eskubideen lanketan. Hau da, giza-eskubideak defendatzeko talde bat sortzea. Boluntariotza-taldea. Batxilergoan gaur egun ere, eskaintzen da boluntariotza egiteko posibilitatea, eta aspaldi asmatu genuen giza-eskubideen taldea. Talde horretan, bageunden bi irakasle. Itziar V. eta biok. Bi urte pasa ziren giza-eskubideen taldea sortu zenetik, eta super ondo atera zen, proposamen super polita izan zen. Baina guk, beste arrazoi batzuegatik utzi behar izan genuen taldearen gidaritza, eta Marta F.-ek hartu zuen. Berak giza-eskubideei buruz ez zekiela hainbeste komentatu zuen, baina feminismoarena interesatzen zitzaioela; orduan, ikasle batzuekin lan egiten hasi zen horretan. Hasieran nesken taldea zen bakarrik. Eta hor, nolabait, ikasleen artean interesa eta berdinatsuna bazegoela atera zen (ikastetxean preseski falta zena), eta horrelako beste zenbait ondorio gehiago.

Aldi berean, Alboanetik, autodiagnostiko bat egitea proposatzen digute, ez zena inoiz egin ordurarte, baina autodiagnostiko bat egiteko beste 6-7 ikastetxeekin lan egingo genuela proposatu ziguten. Haiek erremintak proposatuko zizkigutela, edo ideiak eman; bueno, prozesua konpartitua izango zela. Hori horrela, ikastetxea hartara sartuko zela erabaki zen, eta hor bi irakasle sartu ziren: Gotzon G. (arlo sozialaren burua zelako) eta Marta F. (talde-feminista eramaten zuen irakaslea zelako). Talde motor bat eratu zen: familia, irakasleena eta ikasleena; baina talde oso handia zen, jende gehiegi zegoen, eta ez zen oso ondo atera. Beraz, urtebete pasatu eta gero, autodiagnostikoaren barruan paper pilo bat bete ziren, ikerketa pilo bat egin ziren... eta azkenean hezkidetza-taldean irakasleak bakarrik egotea praktikoagoa zela erabaki zen.

Horretan, LH-ko pertsona bat sartu zen, ni DBH-tik, Marta jarraitu zuen Batxilergotik, eta Gotzon arlo-sozialetik. Ai barkatu, eta PAS-eko pertsona bat (administrazioko pertsona bat). Hau da, ikastetxea esaten dugunean, irakasleak ez diren pertsonak sartzeko ere bai. Guk horrekin jarraitu genuen, autodiagnostikoarekin. Aldi berean, talde feministak bere lanarekin jarraitzen zuen batxilergoan, eta hasi ginen jada proposatzen Martxoak 8ko ekintzaren bat, Azaroak 25erako besteren bat; saiatzeko ginen ere bai beti ikasketa buruekin hitz egiten,

hezkidetza sartzeko irakasgai guztietan, ez bakarrik egun konkretuetan... hori izan zen asmoa eta horretan jarraitzen dugu.

Lehen autodiagnostikoa amaitu zen, orain bigarrena egiten ari da, eta bertara sartu gara. Jarraitzen dugu bilera horrekin. Orain badaude LHko 3 pertsona, DBHtik jarraitzen naiz ni bakarra izaten, batxilergoan orain da Gotzon dagoen pertsona bakarra, eta PASEko pertsona bakarra baita ere. Beraz, taldea handiagoa da, eta egiten dugun lana eta egiten ditugun ekintzak presentzia gehiago daukate, baina ideia da berbera. Ordubete astero, ekintzak prestatzeko (normalean data berezietarako), baina baita ere saiatzen ari gara orain tutoretza guztietan sartzan.

3. Irakasleek honen inguruko formakuntzarik jasotzen dute?

Hezkidetza taldean gaudenak saiatzen gara formakuntza bat egiten, gutxienez urtero gauzaren bat. Oraindik jarraitzen dugu Alboanekin lan egiten, eta momentu horretan sartu ziren eta orain sartu diren ikastetxe berriekin lan egite. Horrekin sortu da deitzen dutena: "comunidad de aprendizaje" bat. Bertan, urtero jartzen dute gai bat eta horren inguruko formakuntza jasotzen dugu, ekintzak konpartitzen ditugu ...

Irakasle taldeak, hau da, klaustro osoak bi jaso ditu. Autodiagnostikoa hasi zenean, Alboaneko formakuntza bat, eta autodiagnostikoa amaitu eta gero (formakuntza nabaritzen delako arazo larria dela) Mondragon Unibertsitatetik beste emakume bat etorri zen, nik uste, orain dela bi edo hiru urte. Eta hortaz aparte, hezkidetza batzordekook beste formakuntza bat egin dugu, edo formakuntza izan beharrean, ikasleek ateratzen zituzten ondorioak klaustroari komunikatzean zetzan gure lana. Aurten beste formakuntza bat ematen jarraituko dugu, arazo larria da eta horretan gabilta. Baina pilo bat faltatzen da. Bai guretzat, taldean gaudenontzat, eta bai orokorrean guztiontzat.

4. Eskolako zer espaziotan ikusten duzue desberdinkeria aregotzen dela?

Non ez. Berriro. Gure kasua oso berezia da. Bueno ez bakarrik gure kasua, badaudelako beste ikastetxe asko gurea bezalakoak direnak. Mutilen ikastetxea izanda, nabaritzen da patioan, nabaritzen da geletan, nabaritzen da bainugeletan... Beitu, autodiagnostikoarekin atera zen datu "txorra" baina aldi berean oso grafikoa izan zena: DBHko solairu guztietan orain badago nesken komuna eta mutilen komuna, antzinean irakasleen komuna eta ikasleen komuna zen. Neskak ikastetxera sartu zirenean, irakasleena desagertu zen neskena bihurtuz, eta orain neskek komun bat daukagu eta mutilek lau. Desoreka edonon ikusi daiteke hemen, eraikina bera ez delako aldatu. Patioetan pila bat futbol zelaiekin, saskibalo zelaiekin... nabaritzen da. Tratuetan nabaritzen da pila bat ere bai, klaustroaren konposaketan ere bai: LHn gehienak emakumeak direlako, eta mailaz igotzen zoazen heinean, emakumeen presentzia asko gutxitzen delako. Batxilergoko irakasleria ia-ia gizonena da, gainera gizon helduagoak. Hortaz, edonon ikusi daiteke desberdinkeria.

5. Hezkidetza planik badaukazue egituraturik?

Bai, badaukagu. Gainera bi ditugu. "Plan de igualdad" Eusko Jaurlaritzak eskatzen zuena enpresa moduan; izan ere, hemen 150 langile baino gehiago daude eta hori dela eta, egin behar den plan bat da. Haiek badatoz begiratzera ia enpresa moduan, kontratazioetan

berdintasuna bermatzen dugun, salatzeko bideak ditugun... Orduan hori badaukagu, eta bestalde, Hezkidetza plana dugu hezkidetza taldeak burutzen duguna. Formakuntza, ospakizunak antolatzea, eta ekintza gehiago Alboanen esku egiten ditugu, gure kasuan.

6. Hala bada, eskola-komunitate osora proiektatuta dago? edo maila jakin batzuetako ikasleengan bakarrik zentratzen da?

Eskola-komunitate osora, bai. Egia da gaur egun galdera izaten ari dela familien parte hartzea zelan sustatu daitekeen. Zaila da jakitea familiek nola parte hartu dezaketen, baina irakasleen parte hartzea behintzat bermatuta dago. Librea da hezkidetza taldean sartzea. Justu aurten galdetu da ia nor sartu nahi duen taldera, eta bederatzi pertsona apuntatu dira. Badirudi jendea... horretan gabiltzala. Eta ikasleen artean talde feministarena jarraitzen duenez, nahiz eta aurtengoa ez izan haien urterik onena, bermatzen jarraitzen da. Nahi baduzu sartu ahal zara. Gero beste gauza bat da ia jendea sartzen den ala ez, baina badaukazu espazio hori, posibilitatea.

Agian LHn parte hartzeko posibilitatea ez, baina bueno. Batxilerrean taldea badago, eta DBH osoan, duela urteak salatzeko buzoi batzuk jarri genituen, edo berdintasunaren inguruan edozein gauza proposatzeko. Egia esan, orain nahiko geldirik daude, nahiz eta azken bi edo hiru urtetan proposamenak eta salaketak atera diren. Orduan parte hartzeko aukera hori badaukate, buzoien bidez.

7. Zerk eraman zizuen hezkidetza lantzerantz? Beharra ikusi zenuten?

Bai, bueno hori erantzun dizut jada. Baina bai, beharra, nahiz eta guztiek ez ikusi. Alboanek proposatu zigunean autodiagnostikoa egitea ikastetxeak baietz esan zuen, orduan, nik ez dakit beharra ikusi zen ala ez, baina behintzat interesa bai egon zela. Eta hori, irakasle bat izatea, dena mugitzen ari dena, eta dena bultzatzen duena, oinarritzakoa da. Gainera talde feminista bat sortua egotea Alboanekin elkarlanean hasi ginenean, perfektua da.

8. Eusko Jaurlaritzak ateratako Hezkidetza Plana (2019-2023) kontuan hartu duzue zuena sortzeko?

Ez. Hezkidetza plana egiten ari zenean, gurea zaharragoa baita, Berritzegunetik laguntza eskeitzen zuten, eta Gotzon eta Marta joaten ziren, baina gure erabakia azkenean Alboanekin lan egitea izan zen, hurbilagoa iruditu zitzaigulako. Askotan Berritzegunera jende pilo joaten zen, eta Alboanen kasuan 6 ikastetxeen artean, taldea ezagututa, eta horrelako sarea sortzea, guretzat super interesgarria izan da; orduan, horretaz baliatu gara. Eta ez da kontuan hartzen ez dugulako. Guk begiratzen dugu, baina hori, guretzat hurbilagoa eta praktikoagoa da beste aukera. Gainera egia da, Eusko Jaurlaritzaren plana Alboanen planean oinarritzen dela, zaharragoa delako, horregatik guztia dago erlazionatuta, bide berean gaude.

9. Nola hasi zineten antolatzen hori?

Ba hori, gure autodiagnostikoarekin, talde motor horrekin, hasieran sortu zena (nik uste ideia ona zela baina ez zela praktikoa). Azkenean ikastetxearentzat, hezkidetza plan bat egiteko familia sartzea eta ikasleak sartzea ez da praktikoa, ordutegi aldetik adibidez. Orduan

lehenengo saiakera txarto aterata, bigarrena jada ondo atera zen. Ikastetxean gure lekua egin dugu. Hasieran beti azaldu behar genuen nortzuk ginen, zertarako ez dakit zer, baina jada sei urte pasata, jendeak badaki nortzuk garen, zertan gabiltzan... Kurtsoetatik jada galdetzen dute: martxoak 8an zerbait egingo da? jendeak badaki, eta bai, ikasgai askotan sartu da.

Adibidez aurten, martxoaren 8an zientzia arloan zerbait antolatzea zen ekintza. Ni zientzia irakasle batzuegana hurbildu nintzen esatera: "pentsatu dugu ia honen inguruko zerbait landu ahal duzuen edo ez", eta gehienek horren lanketa martxan zutela jada erantzuten zidaten. Eta guri perfektu iruditzen zitzaigun. Ikusten da badagoela jende pilo mugitzen ari dena, egia da oraindik erresistentzia existitzen dela, baina orokorrean gero eta jende gehiago inplikatzen da.

10. Norbaiten laguntza edo gidaritza izan zenuten?

Bai, argi eta garbi Alboanena.

11. Zer motatako baliabideak erabiltzen dituzue? Eta zeintzuk dira?

Ba beitu horretan ere aldatzen ari gara aurten. Orain arte egin duguna ekintza berezien prestaketan oinarritu da: arazoren bat sortzen zenean, adibidez, hemen, 4. DBHn, buzoiekin erlazionatutako ekintza bat egin genuenean, buzoiak bete ziren, eta salaketa pilo bat agertu ziren. Beraz, horregatik aurkitu genuen indarkeriaren inguruko arazo bat zegoela kurtsoan, eta orduan, mugitu ginen. Alboanen galdetu genuen, eta tailer batzuk aurkitu genituen. Indarkeria prebenitzeko tailer batzuk ziren, eta bertan gelditu dira. Guztia oinarritu da arazo-ondorioetan. Arazo bat sortzen da, eta horri konponbidea aurkitzen saiatzen gara. Edo M8an adibidez, ekintza berezia egiten da. Tutoreek orain badakite zerbait egongo dela. Egia da ere, irakasle batzuk haien irakasgaietan hasi direla hezkidetzara sartzeko.

Gure asmoa orain gaiak banatzea da. Lehenengo DBHn estereotipoak lantzea, bigarren DBHn indarkeria lantzea, hirugarren DBHn ez dakit zer. Baina klaro, hori guztia orain egiten ari gara. Hezkidetzaren inguruko Alboanen materiala erabiltzen dugu. Joko desberdinak heltzen zaizkigu. Enteratzen gara zerbait berria atera dela, eta baliabide horiek leku batean edo bestean sartzeko edo kokatzeko saiatzen gara.

Orduan, oraingo helburua ez da bakarrik M8an edo A25ean gauzak antolatzea, baizik eta tutoretza guztietan sartzeko. Kurtso bakoitzari zerbait esleitzea, orden bat jarraituz, eta horuztea, dena ondo programatuta dagoenean.

12. Gaiarekiko adituren/elkarteren bat ekarri duzue zentzura zenbait gai lantzeko?

Ba bai. Amelia Barkin etorri zen Mondragon Unibertsitatetik, hezkidetzaren inguruan orokorrean hitz egiteko. Alboanetik ere bai etorri ziren. Egia da ere bai, 4. DBHn orain indarkeria matxista prebenitzeko programa etortzen dela, baina udaletxekoa. 3. DBHn, duela gutxi beste arazo bat aurkitu dute (horregatik esaten dizut: arazo-ondorio), eta horregatik Sortzen Bilboko beste erakunde honekin lanean gaude.

Normalean elkarte pribatuei konkretuki laguntza eskatzen diegu, formakuntzarako batez ere.

13. Momentu honetan, batzorderen bat arduratzen da horretaz?

Bai.

14. Familien parte-hartzea gai honekiko ematen da? Sustatzen duzue?

Hau zaila da. Egia da autodiagnostikoan, ama bat egon zela taldean, baina birritan edo besterik ez ziren bildu, oso zaila izan zelako biltzea. Hori izan zen lehenengo arazoa. Autodiagnostikoan inkestak egin dituzte, baina prozesua beti izan da haiei eskatzea, eta ez kontrakoa (nahi duten eran parte hartzea). Baina guk ez dugu ikusten, edo argi ikusten behintzat, nola egin daitekeen hori. Debatea da, momentu honetan. Ez daukagu argi sustatu egin behar dugun ala ez. Nahi dugu haien parte hartzea ematea, baina ez haiek markatzea bidea. Gure ustez ikastetxeak markatu behar du bidea eta ildo, eta ez familiek nahi dutena egin. Gainera gure giroan hori, batzuk markatuko dute gauza bat, eta beste batzuk beste gauza bat; orduan ez daukagu argi. Adibidez, guraso batzuk indarkeriaren kontrako programa egitegatik urduri jartzen dira. Orduan haiek nolabait parte hartzea nahi dugu, baina ez ildo markatzea, hori guk egin behar dugu, ikastetxeak.

15. Plan hau aurrera eraman zenutenetik aldaketak ikusi dituzue umeengan, hasierako egoerarekin konparatuta?

Nik uste gero eta kontzientzia gehiago dagoela ikasleen artean. Nire sentrazioa da, urtero-urtero M8a eta A25a heltzen direnean, lehen aipatzen ez ziren arazoak agertzen direla. Orduan uste dut, nolabait, horrelako ekintzak egiten "agitamos el avispero". Askotan isiltzen dutena egun horietan azalertzeko erabiltzen dutela. Eta nik uste hori oso ona dela. Bestela, nire sentrazioa da ikastetxe honetan neskak ez dutenez espazio askorik, isiltzen direla pila bat; eta 4. DBHtik aurrera bereziki, hasten direla bere espazioa eskatzen, haien historia kontatzen... Eta gaia mahaigaineratzen duzunean, gero eta gehiago hitz egiten dute (emakumeek). Bai, nik aldaketa ikusi dut.

16. Zer motatako jarduerak aurrera eramaten dituzue? Garrantzitsuenak edo aipagarrienak nabarmendu.

Bai hori, bereziki, azaroaren 25a eta martxoaren 8a. Aurten saiatuko gara zerbait egiten maiatzaren 17an. Baina zerbait, askoz gehiagora ez garelako heltzen. Aipagarrienak horiek bi. Eta gero tailerrak.

Orain LHn sartuko dira afektibitateari buruzko tutoretza batzuk, horiek antolatzea izan da bereziki azken hiruhileko lana, behin M8a pasatuta; ikusi dugulako gabezia handia bereziki gai horri dagokionez. Beraz hori izan/izango da gure jarduna aurten.

17. Aurrekoek zergatik funtzionatzen dute ondo? Klaberen bat badago gai honetan trebatzeko?

Ba ez dakit klaberen bat dagoen edo ez honetan. LHn adibidez ez dakit nola ateratzen diren prestatutakoak, ni ez nagoelako bertan. Baina aurten A25eko ebaluazioa egin genuenean, denetarik atera zen. Batxilerrean eta DBHko bigarren zikloan uste dut ateratzen direla ondo,

inplikazioa eta parte hartzea bultzatzen delako pilo bat. Ekintza hauek beti dira zure iritzia emateko edo zure pentsamoldea azalertzeko sortuak, eta hauen beharra ikusten dut egia esan. Ikasleei gustatzen zaie haien iritzia ematea eta partekatzea, eta agian seguraski, horregatik ateratzen da ondo.

M8a prestatzeko, ikastetxeko talde feministak egiten duen lana izaugarritzkoa da, eta egunean bertan kalera ateratzea eta hori aldarrikatzea tradizio bihurtu da. Super pozik daude horrekin, gustatzen zaie parte hartze hori. Horregatik aurten, nik uste dut taldea nahiko flojo ibili dela, ezin izan direlako horrelako gauzak egin. Hori nahiko kolpe handia izan da taldearentzat. Klaseetatik pasatzea, mobilizatoriora deitzea, etab, aurreko urteetako lanean gelditu da. Ikastetxearen protagonistak sentitzen dira gauza hauekin baita ere. Parte hartze handia egon behar da, astuna izan liteke, baina hori klabe bat da.

18. Testu-liburuaren aukeraketan, kontuan hartzen duzue hezkidetzailleak izatea? Nola egiten duzue sailkapen hori?

Ba autodiagnostikoaren erramintan badaude irizpideak begiratzeko liburuetan, baina gero erabiltzea edo ez, gure esku dago. Boluntarioa da. Nik bere garaian egin nuen. Jada duela urte asko ez dugula aldatzen liburua, baina bere garaian egin genuen. Eta hezkidetzaren planean badago hori kontuan hartu behar dela. Gero guztiz betetzen den ala ez... ezin dizut esan, irakasle bakoitzaren aukeraketa edo erabakia delako.

19. Uste duzue irakurketa baliabide ona izan daitekela hezkidetzaren bezalako balioa sustatzeko? Zuek baliabide hori erabiltzen duzue?

Bai, nik uste irakurketa baliabide ona dela edozein gauzetarako. Baina, bai. Nik uste gainera ikastetxe honetan, ez hainbeste liburuekin baina bai testuekin, nik esango nuke jende pilo batez ere hizkuntzetan, eta bueno matematiketan ere, testuak erabiltzen dituztela, beraiek nahi dituzten baloreak transmititzeko. Eta badakit denek ez dutela egiten. Baina adibidez, badakit ingeleseko irakasle batek, *reading* asko emakumeen historia aldarrikatzeko erabiltzen dituela. Guk historian, 4. DBHn Sufragisten mugimendua ematen dugu, badago gure plangintzaren barruan, eta horren inguruko lanak egiten ditugu. Matematikan ere, buruketak sortzean, gai hau sartzeko eskatzen dugu... Orduan nik esango nuke baliabide super ona dela, askotan zaila, baina jende askok erabiltzen duela, oso erraminta praktikoa delako zure ikuspuntua sartzeko, inplizituki bada ere.

20. Berezitasun gehiagorik izango zenukete aipatzeko?

Ba ez, egia esan nik uste dena esanda dagoela.

-2. ELKARRIZKETA. Zentro 5(AE): Hezkidetzaren batzordeko kide bati egindakoa:

1. Hezkidetzaren zuentzat, zentro bezala, zer motatako garrantzia dauka ikasleengan, ezinbesteko baliotzat hartzen duzue? Zergatik?

Ikastola moduan ezinbestekoa da, baina zailtasunak topatzen ditugu irakasle batzuen inplikazioan eta ikasleen adinaren arabera ere. Hala ere, esparru hau lantzea ikastola

bezala funtsezkoa ikusten dugu. Hori dela eta, etapa ezberdinetan (HH,LH eta DBHn), hezkidetza taldeak sortuta ditugu. Aipatu beharra dago, oraindik hezkidetza, proiektu modura hasi berria dela.

2. Zer motatako lekua egiten diozue honi?

Hezkidetza taldea (LHn gure etapan) hamabost egunero biltzen gara eta honen inguruko erabakiak hartzen ditugu. Tutoretza eta hezkidetza plana bateratzen saiatzen ari gara. Hezkidetzarekin lotutako egun berezietarako plangintza egiten dugu eta gaiekin lotura duten ekintza ezberdinak antolatzen ditugu maila ezberdinetarako, ikasleen adinari erreparatuta.

3. Irakasleek honen inguruko formakuntzarik jasotzen dute?

Hezkidetza taldean sartuta gauden irakasleok formakuntza jasotzen dugun bakarrak gara. Emakundek eskaintzen dizkigu ikastaroak eta " Nahiko" proiektuaren barruan sartuta daude. Aipatutako proiektua, berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria ezarako hezkidetza-programa bat da.

Zain gaude irakasle guztiei bideratuta egongo den ikastaro orokor bat egiteko, baina Covid 19-aren egoera hobetzen denerako utziko da.

4. Eskolako zer espaziotan ikusten duzue desberdinkeria aregotzen dela?

Desberdinkeria ageriago dagoen espazioa patioa da. Toki fisiko nagusia futbol zelaia da eta hauxe bihurtzen da erdigunea. Azkenaldian, Covid egoera dela eta ez da hain nabaria izan, ez dutelako aukerarik izan futbolera jolasteko eta orduan, guztiok batera jolas berdinetara jolasten egon dira. Baloiak berriro bueltatu direnean aldiz, ikasleak berriro hasi dira zituzten dinamika edo ohitura berdinekin.

5. Hezkidetza planik badaukazue egituraturik?

Horretan gaude lanean.

6. Hala bada, eskola-komunitate osora proiektatuta dago? edo maila jakin batzuetako ikasleengan bakarrik zentratzen da?

Printzipioz etapaka antolatzen goaz pixkanaka, baina lortu nahi dugun helburua da, eskolako etapa guztietan proiektu amankomuna izatea. Eskola komunikate osoa inplikaturik egotea, hau da, irakasleak, ikasleak eta euren familiak ere.

7. Zerk eraman zizuen hezkidetza lantzerantz? Beharra ikusi zenuten?

Irakasleek ekimena izan zen. Premia ikusi genuen hezkidetzaren esparrua lantzeko eta hortik abiatu ginen proiektuari ekiteko. Honela sortu zen hezkidetzako lehenengo taldea. Hasiera batean, egun berezietako ekintzak antolatzeko biltzen ginen, baina hortik aurrera, orokortzearen beharra ikusi genuen.

8. Eusko Jaurlaritzak ateratako Hezkidetza Plana (2019-2023) kontuan hartu duzue zuena sortzeko (plana edukitzeko)?

Ez, LHko hezkidetzako buruek dokumentua ezagutzen duten arren, guk hasiera puntu

moduan Emakundek eskainitako materiala eta formakuntza hartu dugu oinarritzat.

9. Nola hasi zineten antolatzen hori?

Duela bi urte DBHn hezkidetzaren proiektuaren arduradun bat jarri zen eta NAHIKO programa eskaini ziguten. Lhn, NAHIKOREKIN aritu gara eta DBHn, Beldur Barik proiektuarekin.

10. Norbaiten laguntza edo gidaritza izan zenuten?

Kanpotik jasotzen ditugun ikastaroak gidaritza moduan hartu ditugu. DBHko burua zenak, gai honen inguruan asko zekien eta laguntza handia ematen zigun.

Portugaleteko udaletxean, hezkidetzaren inguruko proiektuak antolatzen dituzte, Agente Moreak deiturikoa bezala. Beraz, udaletxearekin elkarlanean gaude eta gidari moduan ere hartzen ditugu.

11. Zer motatako baliabideak erabiltzen dituzue? Eta zeintzuk dira?

NAHIKO programak eskainitako materialak erabiltzen ditugu (fisikoak zein online jolasak) eta Berritzegune zein udaletxeak proposatzen dituzten materialak jasotzen ditugu. Ikastolan egun berezietarako, LHko etapan, maila bakoitzera bideratutako ekintza bereziak guk antolatzen ditugu.

12. Gaiarekiko adituren/elkarteren bat ekarri duzue zentzura zenbait gai lantzeko?

Orain arte, egoera dela eta ez.

13. Momentu honetan, batzorderen bat arduratzen da horretaz?

Azaldu dugun moduan, etapa bakoitzean hezkidetzaren taldeak sortuta ditugu. Talde honetan irakasleak sartuta daude eta DBHn ikasleak ere sartuta daude.

14. Familien parte-hartzea gai honekiko ematen da? Sustatzen duzue?

Familia batzuk proiektuan parte hartu eta inplikatu nahi izan dira, baina oraindik, proiektuan hasi berriak ginen eta momentuz, ez daude honen barruan. Hala ere, helburua da beraiei zabaltzea ere. Nahiko programak aukera ematen du materialen bidez familiak inplikatzen eta lantzen den gai bakoitza familian ere jorratzeko.

15. Plan hau aurrera eramanean zenutenetik aldaketak ikusi dituzue umeengan, hasierako egoerarekin konparatuta?

Momentuz, ez da aldaketa nagusirik egon baina proiektuan hasi berriak garelako. Guk aurretiaz, gai hauek lantzen genituen (tutoretza orduan baloreak...).

16. Zer motatako jarduerak aurrera eramaten dituzue? Garrantzitsuenak edo aipagarrienak nabarmendu.

Orain arte egun berezietako ekintzak sortzen aritu gara (martxoak 8 eta azaroak 25), baina hemendik aurrera ekintza orokorragoak prestatuko ditugu modu egituratu eta jarraituan lantzeko. Patioen behaketa beharrezkoa dela ikusten dugu.

17. Aurrekoek zergatik funtzionatzen dute ondo? Klaberen bat badago gai honetan trebatzeko?

Momentuz ezin dugu hori baloratu. Dena den, beharrezkoa ikusten dugu planaren ebaluaketa egitea eta esparru konkretuetan jarrera batzuen behaketak egitea (irakurtzen ditugun liburuetan agertzen diren mezuak, hitz egiteko moduan erabiltzen dugun hizkuntza nolakoa den...).

18. Testu-liburuen aukeraketan, kontuan hartzen duzue hezkidetzailleak izatea? Nola egiten duzue sailkapen hori? Uste duzue irakurketa baliabide ona izan daitekeela hezkidetzaz bezalako balioa sustatzeko? Zuek baliabide hori erabiltzen duzue?

Orain arte ez da aukeraketa berezirik egin. Egia da liburu batzuk alde batera utzi direla, antzineko ikuspegia zeukatelako. Baina uste dugu irakurketa baliabide bikaina dena eta honen inguruan hausnarketa bat egin beharko litzateke. Buruan daukagu horrelako zerbait antolatzea (liburutegi morea), baina egoera dela eta hor geratu da.

19. Berezitasun gehiagorik izango zenukete aipatzeko?

Emakundeko NAHIKO proiektuari buruz gehiago jakin nahi izatekotan, hemen uzten dizut webgunearen esteka, agian interesgarria egiten zaizu.

<https://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/informazioa/nahiko/>

-3. ELKARRIZKETA. Zentro 2(IE): Hezkidetzaz batzordeko arduradunari egindakoa:

1. Hezkidetzaz zuentzat, zentro bezala, zer motatako garrantzia dauka ikasleengan, ezinbesteko baliotzat hartzen duzue? Zergatik?

Ba, bai. 2013an hasi ginen. Ni momentu horretan zuzendaritzan nengoen, orduan derrigortuta geunden figura edo gai hori eskolan lantzerako. Urte horretan nik hartu nuen ardura, bertan nengoelako, eta hortik aurrera oraindik ardura horretan jarraitzen dut. Niretzat garrantzia oso handia dauka gai honek. Gizartean oraindik ere ikusten da ez garela berdintasunetara ailegatu, indarkeria mota asko existitzen direla oraindik ere... eta horiei esku hartzeko lanketa derrigorra bihurtu da. Gu horretan gabilta, asko aurreratu dugu orain arte, baina gauza asko eta bide handia gelditzen zaigu aurretik.

2. Zer motatako lekua egiten diozue honi?

Alde batetik badaukagu berdintasun batzordea, guraso batzuekin batera osatuta dagoena. Ni hezkidetzaz arduradun bezala nago eskolan. Batzorde horretan 2 aita, 2 ama eta 2 irakasle gaude; eta egia esan, mugimendu handiko batzordea dela uste dut. Hasi ginetik ez dugu arazorik izan parte hartzeko, beti izan dugu jendea prest parte hartzeko, oso giro onean... Eta horretaz gain, ikastetxeko planean beti egon da edo sartu dugu helburu bat honekin lotuta dagoena.

3. Irakasleek honen inguruko formakuntzarik jasotzen dute?

Bai, guztiz. Bueno hasieratik, formakuntza gehien jaso duen pertsona ni izan naiz, momentu horretan ardura hori hartu nuenean, premia hori nuelako. Orduan, Berritzeguneetatik jaso dugu laguntza, Emakundetik jaso dugu, eta beste hainbat lekutatik. Egia esan, gero eta eskaintza gehiago dago: Meet bitartez hitzaldiak entzuteko, Webinar-ren bitartez...

Hortaz gain, eskolan ere hitzaldiak antolatu ditugu, Power Pointen bidez; beraz bai, formakuntza ezinbestekoa da. Betaurreko moreak jartzeko edo begirada desberdina izateko, jabetu behar zara. Askotan gauza asko orekatuta daudela jada pentsa dezakegu, bizi garen gizarte maila nahiko altukoa delako, eta desberdinkeria ez delako era hain nabarian ematen. Baina mundu honetan sartzen zarenean, gero eta formakuntza gehiago jasoz, gero eta hutsune gehiago ikusten dituzu. Horregatik formakuntza premiazkoa da, bai. Askotan zaila da moldatzea, bakoitzak bere ordutegia duelako etab, baina saiatzen gara.

4. Eskolako zer espaziotan ikusten duzue desberdinkeria aregotzen dela?

Ba honekin hasi ginenean, patioa adibidez, oso espazio argia zen desberdinkeria hauek detektatzeko. Baloia zen jabea, eta baloia jabea zenez, mutilak ere jabeak ziren (haien generoari esleitutako objektua baita). Orduan, hasi ginean hori lantzen, egun bat baloi gabeko eguna bihurtu genuen. Kriston burruka izan zen guretzat, 6. mailakoak asko haserretu ziren, sinadurak bildu zituzten... Oso prozesu luzea eta zaila izan da, beste jolas mota batzuk sartu ditugu...

Pandemia baino lehenago, bazeuden bi egun baloirik gabe genituenak, oso ondo hartuta. Gero eta hobeago funtzionatu dugu. Baina zerbait aukeratu behar banuke, patioa jarriko nuke desberdinkeria gehiago dagoen espazio bezala. Espazio "libretzat" hartzen da, baina gero ez da askatasun hori bermatzen. Bagoaz aurrera, baina astiro. Orain lortu dugu erdian dagoen futbol ataria kentzea, baina bai oso prozesu luzea izan da ere. Eta orain adibidez, gurasoek zorua jolas batzuekin margotuko dute, ekaina aldera.

5. Hezkidetza planik badaukazue egituraturik?

Bai, duela urteak hasi ginen horrekin. Beti izan dugu proiektu bat, baina ez dugu beti aurkeztu. Duela urteak hasi ginen horrekin bai, aurrez ginen, aurrera eraman genuen eta hurrengo hiru urteetan hori eduki genuen finkaturik. Gero urtebete egon ginen proiektu barik, eta iaz aurkeztu genuen beste proiektu bat, baina atzera bota ziguten. Hala eta guztiz ere, nahiz eta ofiziala ez eduki guk jarraitzen dugu lan egiten prestatu dugunarekin (atzera bota ziguten horrekin adibidez). Lan egiteko era berdina da azken finean.

6. Hala bada, eskola-komunitate osora proiektatuta dago? edo maila jakin batzuetako ikasleengan bakarrik zentratzen da?

Ez, ez, eskola osora dago proiektatuta. Eskola osora islatzen saiatzen gara, bai.

7. Zerk eraman zizuen hezkidetza lantzerantz? Beharra ikusi zenuten?

Bueno, hasieran komentatu dizudan bezalaxe, hasieran legeak derrigortzen zuen. Ni hasi nintzenean, lehenengo Berdingunean, eskeini ziguten lehenengoetariko hitzaldi bat, Marian

Morenok eman zigun. San Inazion izan zen, musika-gela batean, eta niretzat kriston aurkikuntza izan zen. Hortik aurrera, begirada desberdina hartu nuen, eta beste hainbat formakuntza jaso nituen. Baina hori, lehenengoko hasiera hori, berezia izan zen.

8. Eusko Jaurlaritzak ateratako Hezkidetza Plana (2019-2023) kontuan hartu duzue zuena sortzeko?

Bai, bai. Hezkidetza Plan horretan badaude zortzi zutabe, eta gure proiektua egiteko, kontuan hartu genituen zutabe guztiak.

9. Nola hasi zineten antolatzen hori?

Hasi ginen pixkanaka-pixkanaka ekintza batzuk prestatzen, esaguratsuenak, Martxoaren 8a eta Azaroaren 25a. Gutxinaka, zabaltzen joan ginen eta gauza desberdinak egin genituen. Gero eta sakonago lan egiten genuen, eta azkenean Eusko Jaurlaritzan aurkezteko aukera eman ziguten eta aurkeztu genuen. Ordu batzuk ematen zizkiguten horretan lan egiteko, eta horrexegatik egin genuen hori lehenengo aldian.

10. Norbaiten laguntza edo gidaritza izan zenuten?

Bai eta ez. Ni hasieratik joan naiz Berritzeguneko mintegietara, eta lagungarriak izan dira. Beste eskolekin esperientziak partekatu ditugu eta alde horretatik bai egia esan.

11. Zer motatako baliabideak erabiltzen dituzue? Eta zeintzuk dira?

Denetik. Segun eta zer ekintza egiten dugun. Izan daitezke ipuinak, filmak, bideoak, gurasoen laguntza... Azkenengo hauek eskolara hurbildu dira lanbidetaz hitz egitera, ekintza batzuen bidez. Eta gero bai, zailena da egunerokotasunean ditugun gauzen artean, liburuetan, ipuinetan, dauden hutsuneak ikustea.

12. Gaiarekiko adituren/elkarteren bat ekarri duzue zentrorra zenbait gai lantzeko?

Bai, Berdindu elkarte adibidez etorri da sexu-aniztasunari buruz hitz egitera. Hori bereziki izan da. Gero nik Power Pointen bitartez, klaustro osoari luzatu diot jaso dudana formazioa. Duela urte batzuk Argipas elkarte etorri zen (ez dakit jada existituko den) familien inguruan lanketa egiteko, tailerren bidez. Gero hasieran aipatutako Berdindu elkarte bat baino gehiagotan hurbildu da eskolara. Hemen ere badago neska transgenero bat, orduan lanketa bai ala bai egin behar dugu.

13. Momentu honetan, batzorderen bat arduratzen da horretaz?

Bai, berdintasun batzordea.

14. Familien parte-hartzea gai honekiko ematen da? Sustatzen duzue?

Ba bai. Beti izan dugu haien aldetik laguntza. Eta edozein momentutan eskatzen badugu laguntza, beti daude prest. Ideiak sortzea edo antolatzea gure esleitzen zaigu. Baina bai,

gurasoak oso aktiboak dira eta beti-beti laguntza emateko prest daude. Lehen ere, Azaroaren 25ean egiten genuen manifestu bat, gurasoek irakurtzen zuten eta guk ere bai... Eta ia inoiz ez dugu gurasoen ukapenik izan gauza bat edo bestea lantzeko. Baten bat egon da gai hori lantzea ez duena nahi izan. Baina guk argi utzi diegu hasieratik gai hori eman behar genuela, eta bere umeak horren inguruan zerbait jasotzea ez bazuen nahi, beste leku batera eramateko.

15. Plan hau aurrera eraman zenutenetik aldaketak ikusi dituzue umeengan, hasierako egoerarekin konparatuta?

Ba umeengan oso zaila egiten zait neurtzea. Baina eskola mailan bai, bereziki irakasleen artean: duten jarrera, haien proposamenak. Ikusten dut normaltasun gehiagorekin hartzen ari direla asuntua. Egiten ditugun jardueretan ikusten da erreferentzia desberdinak ematen zaizkiela, eta gu baino aurreiritzi gutxiago dituztela, aspektu horretan. Hala ere, oraindik ere existitzen dira.

Nik bi urteko gelan ematen dut klase, eta duela aste batzuk bertako neskatxo bat esan zidan: "aulki horiek neskenak dira". Eta pentsatu nuen: baina nola da posible adin hain txikiko umetxo batek hori esatea? Egia da, horrelako kasuak asko jaitsi direla, baina hala ere, lanketa bat ematen segitu behar da.

16. Zer motatako jarduerak aurrera eramaten dituzue? Garrantzitsuenak edo aipagarrienak nabarmendu.

Hasteko, alde batetik egun esanguratsuak daude, ospakizunak antolatzen ditugun egunetan, azaroaren 25ean eta martxoak 8an. Batzutan ere bai, maiatzaren 17a ospatu dugu, aurten astelehena. Eta horretaz aparte, niretzat oso potentea dena "MILA KOLORETAKO MOTXILA" da. Motxila hau bai HHn eta bai LHn dago, eta nahiz eta aurten ezin izan dugun egin, kontuan hartzen dugu baliabide potente bezala. Motxila etxera eramaten dute, astebete daukate etxean, eta bertan liburu batzuk eta filma batzuk daude, familian ikusteko. Gure helburua honetan familien kontzientziazioa da. Eskolak formakuntza gisa hitzaldiren bat proposatzen badie gurasoei, normalean oso jende gutxi hurbiltzen da. Horregatik, etxera heltzeko oso tresna ona ikusi genuen. Bestalde, ipuinak aukeratzeko orduan kontuan hartu genuen indarkeria, estereotipoak, genero-identitatea...

Liburutegian ere, hezkidetza apala sortu dugu, umeek liburu hauek irakurtzeko aukera izateko.

17. Aurrekoek zergatik funtzionatzen dute ondo? Klaberen bat badago gai honetan trebatzeko?

Ba inplikazio eta denbora asko sartzen ditugula horretan. Gogoak ere bai, ez desanimatzea, taldean lan egitea, bilatzea norbait zurekin bat egingo duena honi aurre egiteko, babesa... Sortzen bada giro ona, familiekin baita ere, ba errezago egiten dira gauzak, eta hori beste klabe bat izan daiteke.

18. Testu-liburuen aukeraketan, kontuan hartzen duzue hezkidetzailleak izatea? Nola egiten duzue sailkapen hori?

Ba egia esan ez dugu kontuan hartzen. Ni HHkoa naiz eta oso zaila egiten zait guztia kontuan hartzea. Adibidez HHko liburuak aukeratzen ditugunean saiatzen gara egokiak izatea, baina beste alde batetik, existitzen dira ipuin klasikoak baita ere, eta horiek lantzen ditugu. Egia da buelta bat ematen diogula honi, nola landu daitezkeen pentsatzeari, etab, baina gure ustez kritikarako tresna oso baliagarriak ere izan daitezke.

19. Uste duzue irakurketa baliabide ona izan daitekela hezkidetzaz bezalako balioa sustatzeko? Zuek baliabide hori erabiltzen duzue?

Ba bai. Irakurketa beti da ona gauza guztietarako. Eskeintzen baditugu ipuin egokiak, indarkeria edo genero-identitatea lantzen dutenak adibidez, oso baliagarriak dira guretzat horiek lantzeko. Euskarria dira. Hortaz gain, irakurzaletasuna sustatzeko edota bultzatzeko ere baliabide paregabea da.

20. Berezitasun gehiagorik izango zenukete aipatzeko?

Ba nik uste ezetz. Gauza askoren inguruan hitz egin dugula jada pentsatzen dut, eta ez zait gehiago bururaten honen inguruan hitz egiteko.

10.1.2. 2. Multzoa: Aditu ezberdinei egindako elkarrizketak

-4. ELKARRIZKETA (A1): Euskal ikasketetan lizentziatua den, literatura-kritika feminista den eta komikietan aditua den emakume bati egindako elkarrizketa:

1. Zuretzat zer garrantzia du hezkuntzak (ez bakarrik akademikoak) gure gizartean?

Nire ustetan ezinbesteko eragilea da edozein gizartetan. Hezkuntzan kokatzen da belaunaldi batetik bestera doan aldea, pentsamolde batetik bestera doan aldea, tradizioetik aldentzen duen mundua kontatzeko beste bidea; beraz, eragile nagusia da nire ustetan.

2. Eraldaketa tresna al da?

Bada, beti izan da, eta izan behar da. Gainera, nik oso ikuspegi feministatik aztertzen dut hori, mendeetan gizonezkoek emakumeak hortik guztiz aldentuta egoteko ahalegin, presioa eta lana, eta feminismoa horra heltzeko ahalegin presio eta lana. Bai, bai, guztiz.

Eta gainera ez era inkontzientean. Ematen du boterea bakarrik patriarkatuak, edo botereak bakarrik neurtu dituztela gerratan, botere militarra... Eta inondik inora, patriarkatuak beti eduki du oso argi diskurtsoen boterea goimailakoa dela. Eta hortik hezkuntza oso itxia, oso hartua eta oso eskuratua izatearena.

3. Hala bada, generoaren lanketarako edo feminismoaren beste esparru batzuen lanketarako tresna erabilgarria iruditzen zaizu?

Bai, eta gainera denok izan dugu argi feminismoaren historian lehenengo urratsa izan dela. Boto eskatzea edo gure gorputzaren jabe izatea... Mugimendu feministek, orokorrean, oso argi eduki dute hau izan dela lehendabiziko urratsa. Lortu beharreko lehendabiziko urratsa.

4. Praktikara eramanez, hezkidetzak balioa adibidez, izan beharko lukeen tokia dauka, zure ustez, hezkuntza zentroetan?

Zelan espero dezakegu geuk, kanpoaldekoek, barrualdekoek sistema barrualdea aldatzea, haiei ondo egokitzen zaien sistema izanda. Nik argi dauzkat hezkuntza eta heziketen zera guztiak; beraz nik eskuratu nahi baditut edo nahi baditugu, bada horren boterea daukatenek ez dutelako hori egingo, guk, bazterretatik hitz egiten dugunok bideratu behar dugu aldaketa hori. Azkenean diskurtso boterea da.

Hezkuntza, heziketa, gure duzuna, baina gakoa edo muina da boterea, diskurtso boterea, eta horren inguruan, sortzen dira horren inguruko zerak nola transmititu, zelan kontatu, zelan mantendu... Orduan, ia haiek egiten duten nahikorik? Ez. Baina ez dute nahi, eta ez dute nahi izango, hor dagoelako botere kontu bat. Hau ez da hegan dabilen hodei bat, momentuz beste hodei batekin elkartzen dena, eta talka egiteko trumoiak sortzen duena; baizik eta, oso ondo kontrolatuta dagoen satelitea. Hemen dago botere diskurtso eta botere kontua. Ez dutela ondo egiten? Jakina ezetz. Ez, gure begiradatik ez dute ondo egiten. Haien begiradatik, primeran egiten dute, baina haien helburua da orain arteko kontuak transmititzen egin eta egiten duten lana mantentzea; beraz, haiek primeran egiten dute.

Eta guk esaten badiegu aldatu behar duzue... ba bale, esan, guri bost. Guk egin behar dugu aldatze lan hori. Eta guk eskatzen badiegu zerbaiten inguruko aldaketa ematea, haiek esango digute benga %5 emango dizuegu, lasai gelditu zaitezten. Orduan, uste dut ez dela ondo lantzen landu beharreko diskurtsoa; alegia, beraiek primeran egiten dutela haien lana! Eta haien lana da gauzak dauden moduan mantentzea, eta patriarkatuak jaso duen moduan, ez bakarrik bizirautea, baizik eta aberastea, freskatzea, gaurkotzea, "perpetuar", gazteleraz. Eta primeran egiten dute.

5. Nola landu daiteke balio hori (hezkidetzak)? Irakurketa baliabide ona izan daiteke horretarako? Posiblea da biak uztartzea? Nola?

Ba gauza pila. Ze gauza da barrutik zer egin daitekeen, eta kanpotik zer egin daitekeen. Lehenengo ñabardura da, era horizontalean, hierarkikoan, era soltean ala talde lanean. Neu bakarrik, nire etxetik eta nire indarbako lekutik, oso kontu gutxi. Baina neu feminismoak indartua, feminismoak hainbat gako teoriko-literario emanda, talde-lan bat sortuta, leku finko batean jarrita, Skolastika moduan? Bff, oso lan handia; gainera haien muinoetaraino heltzeko gai dena. Gauza asko egin ahal ditugu, baina beti oso kontuan harturik lan-taldeak izan behar direla, energia-kontu ezberdinak adostu behar direla, eta behin-behineko lanetan. Hau da, gaur hau, aste honetan hau, hile honetan hau, ikasturte honetan hau; alegia, oso elkarrizketa arinean dagoen lanean, baina asko, asko, asko.

Haiek munduan dagoen energia baten adierazleak dira, baina geuk, bagara munduan beraiekin batera dagoen beste energiaren adierazleak. Haiek esaten dute, munduan gu baino ez dago; baina guk badakigu ezetz. Munduan zuek baino askoz gauza gehiago

daude, beraz, gure energia dator zuek zenbatzen edo ikusten ez dituzuen beste energia guzti horietatik hartutako indarrak, bultzadak, eta emaitzak. Esan nahi dut, patriarkatuak esango dizu, beraien hezkuntzan eta heziketa horretan kontaktzen dena besterik ez dela existitzen. Baina zorionez, esperientzia pertsonalak dio ezetz. Munduan energia eta eragiletarako sistemak daude, eta guk gure energiak lerrotu behar ditugu besteetan. Ez dago lerro bakarra, ezta bi ere, pila bat lerro daude, eskerrak.

Beste alde batetik, irakurketa eta hezkidetzak uztartzea jakina egin ahal dela! Kontuan hartu azken hamarkada hauetan, Europako biztanlegoa, oro har, eta Espainiakoa baita ere, alfabetatua dela. Azken bi belaunaldietara hurbiltzen bazara, euskaldunok ere bai alfabetatuak gara. Horrek esan nahi du badugula mundua ikusteko eta irakurtzeko ahalmen eta ohitura. Orduan, guk ez ditugu bakarrik liburuak irakurtzen, mundua irakurtzen dugu. Hau da, gure bizitza, gure esperientzia, gure kultura, gure baliabide literarioak, gure liburuak, gure komikiak... askotan honen moduko ikerketetan kontuan hartzekoa da irakurketa hitz bakoitzak duen eguneko eduki eta esanahia. Orduan irakurle amorratuak gara, jadanik.

Eta ia irakurketaren bitartez... jakina! Guk jada jakin badakigu irakurketaren bitarteko ondorioak edo mezuak gureganatzen. 2021ean gaude, eta 2021eko jendea gara, nahiz eta boteretik esan, ez oraindik XIX. mendean gaude, hori baita unibertsitatean dagoen kodea, XIX. mendekoa. Nora joango da herrialde hau XIX. mendeko unibertsitate batekin?

2021eko jendea 2021ean bizi da. Eta hori da dagoen nahitanahiezko errealitatea. Gure alde zein gure kontra.

6. Irakasleek formakuntza gehigarri bat jaso beharko lukete horren inguruan?

Dudarik gabe, eta mesedez! Badakizu zer gertatzen den? Unibertsitatean zu jasotzen ari zaren hezkuntza eta ezagupen guztiak XIX. mendekoak dira. Unibertsitatean egiten den errealitatearen irakurketa oso baldintzatuta dagoen horretarako ideala zen gizarte batean. XIX. mendean ondino mantentzen zen egitura guztiz hierarkikoa, ia-ia koloniala, bazterreko diskurtso gabea zen. Orduan, horregatik etengabe mantentzen da garai hartako unibertsitatea, unibertsitate patriarkala delako, patriarkal sortu zen eta patriarkal mantendu nahi da. Horrek sorbalda ematen dio benetako errealitateari. Orduan zeu ikasten duzu egunean existitzen den errealitatean kokatuta; bada, unibertsitate ideal baterako egoera ideal bat, eta nahi duzun ideala izango da, baina ez da errealitatezkoa. Zuk ikasten duzun ideal, abstraktu eta burbuila batekoa, eta gero egungo errealitatera heltzen zara. Dibertsitatea, aniztasuna, *queer* mugimenduak, feminismoa... pil-pilean dagoen errealitatea da, diskurtsoen aniztasuna, botereen marka ezberdinak, eta unibertsitatean, printzipioz zu ez zara horretan trebatzen, ez aditzen, ez kontuan hartzeko formatzen. "Porque te cuentan una sociedad del siglo XIX que no existe, que no ha existido nunca, ni en el XIX"...

Orduan formakuntzarik behar baduzuen? Bai. Egokitzapen ikastaro bat beharko zenukete unibertsitatetik mundu errealeko lanbideetan jarduteko. Kaleko lanbideetan jarduteko. Eta gainera zu horietan lan egingo duzu, bide horietatik ibili beharko zara. Orduan, horietan edukiko dituzu kontuan hartzeko hainbat puntu: batetik, norberaren nortasuna, kanpoan dauden diskurtso ezberdinetatik zein den zurekin bat datorrena edo gustatzen zaizun gaia zein arlotan kokatzen den, literaturan benetan eragile izateko tresnak... Horietaz ez dizute ezer kontatu.

7. Zein punturaino dute eragina gurasoek haien umeen hezkuntza-prozesuan, pentsalmodean eta jarreran?

Gurasoen sentsibilitatea, hezkuntza (guraso bakoitzaren hezkuntza eta hazkuntza eta heziketa...), etab kontuan hartu behar dira. Gu gara hurbilen gaudenok, eta horregatik gu gara lehenak konturatzeko existitzen den aldeaz, eta flipatzeko, sufritzeko... Guk, guraso bezala, pila bat kezka ditugu, baina kezka horiek guztiak bideratzeko tresnarik eduki baditugu?

8. Zuretzat zein izan daiteke aldaketa burutzeko klabea?

Nik argi eduki izan dut beti horretan ez dagoela aldatzerik. Baina klaro, ez dakit ondo kokatuta nauzun, baina ni feminista erradikala naiz. Ni feminismo erradikalean beti kokatu dut nire pentsamendua, nire diskurtsoa patriarkatuaren erroa haustean. "A la línea de flotación del patriarcado".

Unibertsitatea da patriarkatuaren zutabe bat. Zelan aldatuko duzu patriarkatuaren euskarria zutabe batetik? Ezin da. Gainera ez da ariketa iraultzailea, baizik eta zentzuzkoa. Ematen du unibertsitatea eta beste hainbat asko, bazterreko lekuak direla, eta patriarkatuaren zutabeak politika, ekonomia... direla. Baina ez. Ez bakarrik. Eta diskurtso ideologiko guztiak? Eta kanonak? Eta unibertsitatea? Bankukoek, politikariek badute patriarkatua mantentzeko zera batzuk. Baina unibertsitatean, hezkuntzan, heziketan eta hortan dagoen bestea, aurrekoak bezain garrantzitsuak dira. Hemen esku artean duguna botere kontu bat da. Argi izan! Gainera, parean izango duzuna, mundu hortan, argi eta garbi daukate hau botere kontu bat dela. Ez libururik, ez literaturarik, ez, ez. Hau ez da anekdotikoa. Inondik inora ere.

Beitu datu bat emango dizut, adibide bat, ikusteko hezkuntza, eta horren garrantzia eta ezinbestekotasuna gauzak berean mantentzeko. Kanon literarioan eragile batzuk daude: egilea, sortzailea, editorea, literatur-kritikaria eta transmititzaileak (alegia, irakaskuntzan daudenak). Literatura, artea... guztiz merkantilizatua dago, hemen kapitalismoa nagusitzen delako, irakurleak dauden neurrian liburuak saltzen eta erosten badira ongietorriak dira. Aurrerapausu handiak eman dira, benetan handiak, azken hamarkada hauetan gizartearen esparru honetan. Baina hartu eskuliburuak, hartu manualak eta neurtu azkeneko hamarkada hauetan emakumeen presentzia azaleratzeko ahalegin guztiak noraino heldu diren. Manualetara ez. Baina larriena da, hori ilegala dela. Suposatzen da, printzipioz, mugimendu feministaren eragin argia legedian neurtzen dela, legedia aldatu dugu eta...

Baina non dago benetazko borondate politikoa guzti hori aldatzeko? Ez dago. Emakume eragileen portzentaia aldatu da, sortzaileen portzentaia aldatu da, argialetxeen prozesua aldatu da, baina manualetan ez daude. Nahiz eta ilegala izan. Orduan imaginatu zer argi daukaten hor, hezkuntzan oraindik dagoen aurreko baloreen transmisio eta mantentze euskarria eta zutabea. Izugarri kostatuko zaigu. Izan ere, zuk baloratzen duzun horretan dagoen boterea ez dakit neurtu duzun. Hemen ez dago gizarte baten aurrerakuntza, atzerakuntza... baizik eta botere bataia gorri-gorria.

9. Zuek Skolastika moduan, hitzaldi edo tailerren bat ematen duzue umeei bideratua dena? Eskoletara joan zarete?

Jakina! Nola ez gara joango gure benetako eragile kontuan hurrengo belaunaldietara begira badago? Gure diskurtsoaren neurria kontuan harturik, institutoetara jotzen dugu. Skolastika bere marko ideologikoan jarrita, guk feminismo erradikala egiten dugu. Horrek esan nahi du guztiz ados daukagula gure pentsamendua horren oinarrian. Alegia, hau ez da tiritak ipintzeko zera, baizik eta, kriston misila hartu eta “a la linea de flotación del patriarcado”. “Somos feministas radicales, a por el patriarcado”. Eta zertan oinarritzen da? Ba, gure ustetan emakumeenganako indarkerietan (sinbolikoa, gure dozuna). Orduan, hezkuntza berri hortan hau egon behar da. Gure diskurtsoa, ondo edo gutxienez entzuteko, edateko, jateko gai diren adinetara jotzen dugu guk, alegia institutoetara. 14-18 urteko ikasleekin jardutera. Emakumeenganako indarkeriak ondo kontatzera, maitasun erromantikoa desmontatzera, edo fobia guzti horiek desmontatzera... bai, bai, argi eta garbi.

10. Nolakoa da gaur egungo egoera, generoari dagokionez, Haur eta Gazte literaturan? Era egokian lantzen da?

Literatura hitz gakoa bada, guk beste era batean ulertzen dugu literatura. Literatura ez da bakarrik liburuetan oinarritzen, baizik eta literatur-sistemetan. Guk literatura esaten badugu, Mendebaldean etortzen zaigun ideia liburua da. Gainera lupa bat jarrita, liburu hori eleberri bat izango da. Baina hori literatura ikusteko oso ideia sinplista, pobrea eta guztiz desitxuratua da. Guk beti hitz egiten dugu literatur-sistemen inguruan. Eta hauek eguzki biko sistemak dira. Unibertsitatean zuk ikasiko duzu literatura eguzki bakarreko sistema dela, sortzaileena. Baina, errealtatean, hori ez da benetazkoa. Izan ere, literatur-sistema guztiak eguzki biko sistemak dira, unibertsitatean ikasiko ez duzun alde jasoleena izango da (irakurleena, erosleena...).

Orduan, Haur eta Gazte literatura bada zentratzeko gunea, oso kontuan hartu behar dituzu zeintzuk diren HGLren sortzaileak, eta era berean, HGLren jasoleak. Dena merkantilizatua dagoen heinean, umeak haien lehenengo liburua erosten duten arte, urte asko pasako dira. Zenbat urtekin erosten dugu gure lehenengo liburua? Tarte luze hortan, jasoleak gurasoak dira.

Kontuan hartzeko puntuak: zer idazle dauden HGL sortzen momentu honetan, zer-nolako irizpideekin, zer ezaugarriekin, gurasoen aukeraketa izango dela...

Orokorrean, literatur-sistema guztietan aurrerapauso oso handiak ematen dira. Baina horren irakurketa, unibertsitateak egiten duen bitartean, ez da egongo aurrerapausurik. Unibertsitateari bost. Unibertsitatearen helburua boterea mantentzea delako, elkarrizketa gaurkotzea baino. Salbuespenak salbuespen. Inoiz ez ahaztu unibertsitatea dela boterearen mantentzaile nagusietako bat. Eta printzipioz, patriarkatuaren kontra doa diskurtsoa, ahalegina; eta unibertsitateari bost.

11. Zer motatako erreferetziak dituzte umeek?

Zorionez, era guztietakoak: gurasoek esaten dutena, lagunek esaten dutena, kalean entzuten dutena, telebista bidez ikusten dutena, kantetan entzuten dutena, gehi beraiek

asmatzen dutena. Benetan, guk pentsatzen badugu, gure gazte eta umeen heziketa eta prozesuan liburuak eta gurasoak baino ez daudela... kar, kar.

Bai, gurasoek badugu gure zatia. Ehuneko zenbat? %20? Nik benetan pentsatu behar dut nire umearen hezkuntzan eta heziketa prozesuan ni bakarrik naizela eragilea? Ba agian emozioen lanketan bai, harreman pertsonaletan, psikologian... bai. Baina plazek, jolastorduek, kaleek, kanteak, literaturak oso eragin zuzena dute baita ere haien hazkuntzan.

Ni ama naiz, eta bi seme ditut. Arlo musikalaria dagokionez, edo orokorrean, gaur egungo gizartearen hainbat esparruei dagokionez haiek kontaktzen dizkirate pila bat kontu. Pasa den egunean, seme txikia supermerkatuara joan zen erosketa batzuk egitera. Bertan zegoela, argazki bat bidali zidan Whatsappetik. "Ama, flipa". Emakumeentzako eta gizonentzako depilatze xafila ezberdinak bidali zizkidan. Emakumeen paketea arrosa, eta gizonena urdina. Oso ondo desberdinak. Nik horiek existitzen zirenik ez nekien. Baina eskerrak eman nizkion, nire lanerako argazki hau oso ondo etorriko zitzaidalako adibide gisa, gai batzuen inguruko lanketa egiteko. Orduan, nik kontaktzen diot semeari, edo semeak berak dit?

Edo seme nagusiarekin. "Ama, ikusi duzu *This is America?* Edo *Childish Gambino?* Super gomendagarria afroamerikarrekin egiten dituzun tailerretan lantzeko". Eta klaro, flipatzen dut. Super kode potenteak dituzte, askoz hurbilago daude errealitatekin ni baino. Orduan...

12. Zertan jarri behar dugu arreta liburu baten aukeraketa egin behar dugunean?

Literaturekin, zorionez, guk kriston herentzia jaso dugu. Hau da, literatura zer da? Literatura gizateriaren altxorra da. Eta altxor horren barruan hau daukagu: jendeak zer bizi izan duen, jendeak zer duen horren inguruan kontatzeko jendeari... Benetan, gizateriaren zeregina ondo kontatzen duena literatura da! Orduan, unibertso guzti hori ondo aprobetxatzeko kontuan hartu behar: zertarako nahi dugu, zer motatako jendea dagoen, kontuan hartu literatur genero, aro, etnia, klasea dagoela. Hain da altxor handia, printzipioz handik hartu ahal izateko mami guztia, jendea aditua izan beharko litzateke.

Orduan, printzipioz, orain arte erabili diren printzipio guztiak alde batera utzi beharko liratezke, XIX. mendekoak direlako. Ni gogoratzen dut nerabe nintzenean, Pio Barojaren *Arbol de la Ciencia* liburua irakurri behar izan nuela. Zer gertatzen da? Nire semeak, 25 urte igaro ondoren, ere bai irakurri behar izan zuela. Orduan, "A ver señores, que después del Arbol de la Ciencia, se habrán escrito libros que dialogan con las preocupaciones de nuestra juventud ¿250-300?" Zer egin behar den? Unibertsitatea gainditu. Unibertsitatea botere iturri bat da, eta botere diskurtsoak besterik ez ditu mantentzen. Nik beti esaten dut: "Todos los discursos de poder naturales están en el XIX en la universidad, porque es donde todavía la jerarquía patriarcal estaba sin tocar. Todo lo que ha pasado después: el estructuralismo, el post-colonialismo, el feminismo y lo queer allí llega de manera simbólica. Es todo mentira".

Baina zorionez, badaude beste mota batzuetako eragileak, gero eta mugimendu gehiago eta hori oso ona da.

13. Lanketa horretarako, zer motatako liburu edo zein idazle gomendatuko zenituzke?

Modernoenak, jakina. Eguneko gizartearekin etengabeko elkarrizketan daudenak. Zer motatako gizarteak dira gaur egunekoak? Maiztasun handikoak. Orduan, hori oso kontuan hartzen dituztenak. Eta gainera literatur-sistema guztietan daude horrelakoak. Nire ustetan, emakumeak dira, ez emakumeak izateagatik, baizik eta emakumeoi egokitu zaizkigun roll sozialen araberragatik. Guk askoz gehiago ezagutzen ditugu gure umeak eta nerabeak hurbilenak garelako. Emakumeen haur eta gazte literaturak egokienak dira, hobeto ezagutzen dituztelako. Mariasun Landa batetik hasi, Miren Agur Meabe batera joan... Hurbilenak daudenak. Osea idazleak dira, baina gehienetan amak ere. Orduan, errealitateetik hurbilen daudenak. Eta zaintza eta hezkuntza bada gaia, emakumeak izan dira, ez gizonak. Gizonek edukiko dute nahi duzun teorizatze maila, baina beneztazko eta errealitatean oinarritutako lana eta literatura sortzen dutenak emakumeak dira. Eta kontuz, ez dute esaten feminista naizelako! "Es de sentido común".

14. Liburu on batek eragin handia eduki dezake haurrengan?

Bai. Baina galdera da: zer da liburu on bat? Liburu on bat zer da: ondo idatzita dagoena, gaien aldetik modernoa dena, liburu original bat, liburu apurtzailea, berritzailea... zer da? Jakina liburu on batek eduki dezakeela kriston eragina umeengan, baina egunean zer da liburu on bat?: eleberri on bat ala komiki on bat... Egunean, 2021. urtean, liburu on bat eleberri bat izan behar da? Panorama zein den jakinda, badaikit gaur egungo gazteek eleberririk ez dituztela irakurtzen. Baina horrek ez du esan nahi kulturarik ez dutenik. Hori da unibertsitatean sortutako aurreiritzia. Ez dute irakurtzen, beraz, ez dute kulturarik. Bai hori! Agian ez dute hiztegi aberatsik izango esan nahi dutena kontatzeko, hori egia delako, baina gure umeek jada ez dute letretan kodifikatzen, baizik eta iruditan! Eta hori da benetako errealitatea. Nik nire benetako eragina ikusten dut telesailen inguruan hitz egiten dudanean. "No leen nada, pero han visto todo Netflix". Gure kulturaren panoramika da. "Esto es el siglo XXI, y la universidad está en el siglo XIX".

Haiek flipatzea, harritzea nahi baduzu, *Euphoria* ikusteko esan. Edo Sex Education, edo *Podría destruirte*, edo *Elite*. Hori da dagoena. Nik asko lan egiten dut telesaiekin. Egunekoak direlako. Eta horiek guztiek euskarri literario bat dute, gidoia, beraz, literatura. Ni unibertsitateetik oso urrun nago. Niri interesatzen zaidana da nire baliabide teorikoa egungo gizartearekin harremanetan eta elkarrizketan jartzea. Baina nik ikusten dut jada liburuetan ez dela oinarritzen. Gu Skolastikan feminista erradikalak gara, eta guk ez dugu energiarik galduko "en cosas que no sea coger un misil y a la linea de flotación del patriarcado".

Eragina izan nahi baduzu horizontalidade bat eduki behar duzu. Oraindik ere, literaturak badu kriston lekua eta garrantzia, bestela Cincuenta Sombras de Grey liburuak ez ditu saltzen 150 miloi ale. Literaturak oraindik eragin handia du, baina ez bakarra. Ez nagusia. Orduan, egunean, nik askoz gehiago azpimarratuko nuke, gurasoei begira, ia zer nolako telesaia ikusten dituzten haien umeek, zer nolako liburuak irakurtzen dituzten baino. Literatura bakarka egiten den zerbait da, baina telesaia ikustea taldean egin daitekeen zerbait da. Liburu baten irakurketak ematen ez duena.

Eta guri, istorio on bat asko gustatzen zaigu. Eta egunean, nork kontatzen dizkigu istorio on horiek? Ba telesailek, pontzentai oso handia batean. Adin jakin bateko pertsoneri, agian oraindik ere liburu batek kontu dakiok istorio on bat, baina portzentaia era esanguratsuan jaisten da. Baina telesail horiek literatura dira baita ere! Kontuz.

-5.ELKARRIZKETA (A2): Filosofia eta Hezkuntza-Zientzietan eta Filosofia-espezialitatean lizentziatua den, emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterduna den eta Berritzeguneko Hezkidetzaren eta elkarbizitzaren atalean aholkularia den emakume bati egindako elkarrizketa:

1. Zuretzat zer garrantzia du hezkuntzak (ez bakarrik akademikoak) gure gizartean?

Nik hezkuntza kontsideratzen dut badela bai gizakion eta bai gizartearen garapenerako baliabidea. Sistemak duen baliabidea. Orduan, niretzako garrantzitsua da, badelako tresna bat aukera ematen diguna giza garapena era positiboan hezteko, edo era horretan ere, gizarte bestelako gizarte bat eraikitze al funtsezkoena, ez bakarria, baina bai funtsezkoena. Eta ez bakarrik eskola eremuan, baita hortik kanpo ere. Hortaz, funtsezkoa, bai.

2. Eraldaketa tresna al da?

Bai, bai. Aurreko galderaren haritik doa. Azken finean, hezkuntzan egiten duzu baloreen autu bat, orduan segun zer balore lantzen edo bultzatzen dituzun, horrelakoa izango da ikaslearen eta herritarren konpetentzien garapena. Konpetentzien garapen hori segun eta zein balioetatik egiten duzun, modu batean edo bestean eraikitzen da pertsona eta gizartea. Orduan bai, eraldaketarako ezinbesteko tresna.

3. Hala bada, generoaren lanketarako edo feminismoaren beste esparru batzuen lanketarako tresna erabilgarria iruditzen zaizu?

Bai, bai. Nik uste gainera dela espirala, zirkulua. Azken finean, hezkuntza eta horren ikuspegia, hezkidetzak, nik ez dut beste era batean ulertzen. Hezkuntza feminismoak sortutako modu bat da. Orduan, egia da hezkuntza elikatu egiten dela feminismitik, baina baita ere hezkuntza modu bat edo tresna bat da feminismoa ere elikatze eta... "La pescadilla que se muerde la cola". Feminismoak behar du hezkuntza, eta hezkuntzak behar du feminismoa, jakiteko zer bidetik jarraitu.

4. Praktikara eramanez, hezkidetzak balioa adibidez, izan beharko lukeen tokia dauka, zure ustez, hezkuntza zentroetan?

Bai, bai. Nik gainera leku guztietan esaten dut derrigorrezkoa izan behar zela. Berez bada, izan ere legean agertzen da, kurtso hasierako orientabideetan agertzen da, baina hori paperetan gelditzen da. Gero noraino bultzatzen den hori ikastetxeetan... Ba egia badagoela administrazio aldetik laguntzak, hori ezin dugu ukatu. Baina gero, asko-asko gizakien eskuetan gelditzen da. Segun eta zer irakasle dagoen, segun zer kultura dagoen ikastetxeetan eta jakinda kultura azkenean irakasleok eraikitzen dute, ba horren

araberakoa izaten da. Orduan, beste gauza batzuk bezala, oso baloratuta daukagula derrigorrezkoa izan behar dela, ni mateko irakaslea banaiz, badakit matematika erakutsi behar dudala; ba hori ere, egon beharko zen barneratuta gure funtzioa eta gure lana dela. Eta hortarako oraindik asko falta da.

5. Nola landu daiteke balio hori (hezkidetza)?

Printzipioz, hezkidetzan aritu garenok orain dela dekadak jada, momentu batzuetan ilegalak izan gara, edo ez dugu marko bat izan babesten gintuenik. Gaur egun badaukagu. Orduan, ikastetxeetan marko horretan oinarritu beharko zen legitimatzeko egiten dutena. Hortik abiatuta, nik uste baditugula tresnak bai ikastetxeetan, bai planifikazioetan, bai egituretan, bai dauden plan guztietan... baditugu tresnak, genero ikuspuntua sartu ezkerro bermatu egiten dugula hezkidetza, eta nola ez curriculum.

6. Irakasleek formakuntza gehigarri bat jaso beharko lukete horren inguruan?

Jo ba ni ikusten dut honetan nagoela, departamentutik saiatzen gara hutsuneak betetzen. Ikusten dugu irakasleak ez datozela prestatuta, edo behintzat berez, bai magisteritzan, eta bai bestelako formakuntzetan, edo lizentziatuek (bigarren hezkuntzako irakasleek) jasotzen duten prestakuntza masterraren bidez (CAP) ez dela bermatzen formakuntza hau. Edo behintzat ez dago egituratuta berme hori izateko. Berrito ere, bai magisteritzan edo bai master horretan dagoen irakasleen araberakoa izaten da. Orduan, departamentutik zer egiten da? Ba, nolabait, "partxeatu". Hutsune horiek detektatu eta saiatu horri erantzuten. Baina ez da nahikoa. Orduan, nik uste dut estrukturalki dagoela hutsunea. Eta indarra sartu beharko genuke irakaslearen hasierako prestakuntzan. Eta gero, nola ez, prestakuntza jarraia mantendu, edozein profesio bezala. Baina akatsa oinarri-oinarrian dago.

Nahiz eta horko eskoletako irakaslerian edo masterreko irakaslerian jakin badaudela irakasle jantziak. Baina berez, estruktura edo programa oso eskasa da.

7. Zein punturaino dute eragina gurasoek haien umeen hezkuntza-prozesuan, pentsalmodean eta jarreran?

Jo, ba handia. Nik uste oso garrantzitsua dela familien formakuntza, eta ikastetxeak hartu beharko lukeela ere erantzukizun hori. Azken finean, nik uste dut dugun eragile gertuena dela eta gero jada DBHn badaudela bestelako eragileak, beharbada, familiek baino eragin handiago dutena. Horregatik, nik uste dut hezkidetza lantzeko edo hezkuntza orokorrean, hezkidetzan ari garenok, oso-oso inportantea da elkarlana, bai familiekin eta bai bestelako beste eragile sozialekin. Eta azkenean gai soziala da. Baina horren arriskua da familien gainean jartzea erantzukizuna, zeren hori ikastetxeetan ikusten dugu, ba beharbada: "hori etxetik ekarri beharko lukete"... sartzen garenean beharko horietan da era batean gure erantzukizunari pisua kentzeko. Egongo dira familiak bermatu egiten dutenak bere papera, eta beste batzuk ez. Eta ikastetxea horretarako dago ere. Kontuan izateko hutsune hori. Erantzukizun soziala dauka hezkuntzak.

8. Zuretzat zein izan daiteke aldaketa burutzeko klabea?

Begira, ba nik askotan formula hau kontuan hartzen dut. Eta hau honetan oinarritzen da: a, e, i, o, u. Eta agian hauekin gauzaren bat bidetik uzten dut, baina nik uste aipatzen ditudan hauek klabeak direla:

-A: aliantzak. Horrelakoetan hasten garenean, oso garrantzitsua da identifikatzea ikastetxeetan zer-nolako aliatuak ditugun. Eta aliatuak egon daitezke: irakasleen artean, ikasleen artean, familien artean, eragile-sozialen artean... oso ondo identifikatu aliatuak. Zeren batzutan ez ezagutzeak zer indar kontuan hartu ahal ditugun, pila bat indar eta gogo galdu ditzakegu, frustrazioak agertu... Guk Berritzegunetik asko ikusten dugu nola irakasle asko sentitzen diren bakarrik. Horregatik aliantzak bilatzea eta identifikatzea inportantea da.

-E: esperientziak partekatzea: Guk garrantzia handia ematen diogu sareak antolatzeari. Sareak izan daitezke: barrukoak (ikastetxe barnekoak) edo kanpokoak.

-I: informazioa (formakuntza): Klabea baita ere. Denbora asko eta asko galtzen dugu "dando por hecho" irakasle goa jantzita dagoela hainbat haieran, eta ez, desoreka handia dago. Orduan, bermatu behar dugu oinarritzko formakuntza dagoela. Urtero egon beharko zen honen inguruan lantzeko tarte bat, formakuntzarako.

-O: ordena (antolakuntza ona): Hor eragin handia egin egituretan. Esan nahi dudana, egituretan, arlo honetan aurrerapausu handiak eman dira, jada ikastetxe guztietan eskatzen da hezkidetzaren arduradun bat egotea, eta hori BAT (elkarbizitzaren inguruan antolatutako taldea) taldean egotea. Orduan, horrekin bermatzen dugu pertsona horrek alde egiten badu, mantentzen dela lan hori.

-U: umorea: Umorearekin ez badugu lan egiten akabo! Guk askotan kolaboratzen dugu Virginia Imaz-ekin, laguntzen digu askotan latza den lanari umore puntua jartzen.

9. Zuek Berritzegunetik eskoletara joaten zarete? Hitzaldi edo tailerren bat ematen duzue?

Gure antolakuntza batez ere, badakizu deialdi bat egoten dela, eta urtero (baina hiru aldiz bakarrik eskatu dezakete) 50 ikastetxe publikok eta itunpekoek aukera daukatela honetan aritzeko. Orduan, hezkidetzaren ikastetxeetan antolatzeko, horretaz arduratzen den batzorde horietako jendeek behartuta daude hilean behin Berritzeguneetara etortzen. Bertan formakuntza, laguntza ematen zaie, ikastetxean bertan aritzeko. Baina mintegi horiek zabaldua daude beste edozein ikastetxeetara ere bai. Ikastetxeek eskatu ditzakete proiektuak, eta horren barruan haiek eskatuko dute behar dugu Berritzeguneko norbait etortzea honen inguruan formakuntza emateko, ordu pare bat, edo behar direnak emateko.

10. Zer motatako erreferentziak dituzte umeez?

Ba daukaten erreferentzia zuzenena familia ingurua da. Baina gero, komunikabideak, sare-sozialak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira, eta nik uste horretan atzetik goazela. Azkenengo gure kezka handiena da: hezkuntza afektibo-soziala, beti izan da ukitzea kostatu zaigun gai bat, tabu handiak daude hor, gezurra ematen du, baino oraindik horrela gabiz, eta orduan bada gai bat uzten dela kanpoko eragileen eskutan. Eta bueno ez dago gaizki ondo integratzen bada ikastetxeko jardunetan, eta ez etortzea tailerrak ematera

eta agur. Eta gero egunerokotasunean ematen dena ez edukitzea zerikusirik tailerlean egindakoarekin. Orduan, nik behintzat temati nabil gai horrekin, eta gogoratu naiz, bereziki hezkuntza afektibo-soziala pornografiaren eraginarekin gero eta lehenago hasten direla, haien erreferentziak harremanetan, sexualitatean horiek izaten ari direla... eta enfin, badakigu zer gertatzen den horrekin. Eta guretzat agian hori da erronka handiena. Baina ez bakarria. Azken finean hori gai guztiakin pasatzen da, nola aurre egin...

Orduan erreferentziak? Ba sare-sozialak eta komunikabideak. Eta penagarria da, tresna oso onak eta erabilgarriak izan daitezkeelako ondo erabiltzen jakinda.

11. Gu irakasle bezala, edozein baliabide aukeratu behar dugunean gai konkretu bat lantzeko, zertan fijatu behar gara?

Bueno ba horretan, ez dakit ezagutzen duzun gure planean, azkeneko atalean badago ekintza bat "8 zutabe" deitzen dena. Hezkidetzak sortzeko oinarritzko 8 zutabe. Bata da hezkuntza afektibo-sexuala eta bestea pentsamendu kritikoaren beharra sexismoaren aurrean garatzea. Azkenengo honen barruan lantzen duguna da: betaurreko moreak jartzea gure jarreraren aurrean, baina baita ere, erabiltzen ditugun materialetan. Orduan, hor badaude tresnak oso aproposak materialak aztertzeko. Eta holan labur esatearren, garrantzitsua da, nola agertzen diren emakumeak, nola agertzen diren gizonezkoak, zer motatako estereotipoak dauden hor, zer harreman motak sortzen diren bai emakumeak edo bai gizonezkoak agertzen direnean zer papelean agertzen diren emakumeak, zer hizkuntza erabiltzen den, zer nolako androzentrismoa egon daitekeen... Baina guk asko esaten dugu, filtroa hauetan guztietan jartzen badugu, material asko erretiratu beharko genuke. Bi aukera ditugu: edo erretiratu, edo erabili material horiek erakusteko ikasleei betaurreko moreak identifikatzen.

12. Lanketa horretarako erabilitako baliabideak eta materialak eragin handia dute umeengan?

Eragina izan dezake, baina eragina izateko nik uste dut landu egin behar dela baina ez bakarrik maila kognitiboan (normalean hori bakarrik egiten baitugu). Heldu gaitzke nerabazarora, niri tokatu zait institutoetara joatea emakumeen biolentziaren inguruan tailerrak ematera, eta denak "mas politicamente correctos que ni se". Baina ukitzen badituzu emozioak, bestelako gauzak agertzen dira. Orduan materiala aztertzen dugunean, kontuan izan behar dugu zer emozio mugitzen diren ikasleengan. Eskoletan horren inguruko gai asko lantzen ditugunean, kontuan hartzen dugu maila kognitiboa, baina ez emozionala. Eta nik uste hezkidetzak, feminismoaren ildotik, eman duen pista oso garrantzitsua izan da zein garrantzitsua den hezkuntza emozionala. Biak uztartzea azken batean.

13. Zuk zein baliabide (liburu, idazle, telesail, testu...) gomendatuko zenituzke?

Niri adibidez, Virginia Imaz-ek egiten duen liburuen interpretazioa asko-asko gustatzen zait, zeren ez da sartzen topikoetan. Gainera pista oso onak ematen dizkigu ipuin tradizionalak berregiteko, berritzeko. Eta gainera umorea erabiltzen du!

14. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Ba agian bai aipatuko nuke, azkenaldiotan ditugun kezka oso garrantzitsu bat bezala, zer egiten dugun mutilekin. Nik uste hor erronka oso handia daukagula, emakumeen kontrako indarkeria azaltzen dugunean, azken finean eragileak dira mutilak, eta babesa zentratzen dugu emakumeengan, “como no puede ser de otra manera”, hezkuntza munduan zerbait egin beharko genuke. Zerbait gertatzen zaie mutilei, eta orduan horretan lan handia egin behar dugu “porque están mas perdidos que perdidos”. Orduan nik uste erreskatatu egin beharko genituzkeela, aliatuak gizonezkoen munduan, oso zaila da topatzea aliatu maskulinoak, “porque hay mucho fraude por ahí”. Gizonezko aliatu on bat aipatzearren Ibai Fresnedo iruditzen zait niri oso tipo ona, eta baita ere Xabier Odriozola, beste ikuspuntu bat ematen du. Eta nik uste aliatu oso potenteak izan daitezkeela.

-6. ELKARRIZKETA (A3): Pedagogian lizentziaduna den, eta azken 10 urteetan hainbat proiektu eta erakunderekin ikaskuntza, hezkidetzak eta haur-literatura prozesuen inguruan lankidetzan aritu den emakumeari egindako elkarrizketa:

1. Zuretzat zer garrantzia du hezkuntzak (ez bakarrik akademikoak) gure gizartean?

Bueno ba esango dugu hori dela sistema birsortzeko eta sistemaren hanka bat, ez? Berez transformaziorako espazioa izan beharko litzateke, baina ez dut uste denik. Esango nuke iraurarazteko hanka bat dela, gaur egun baita ere.

2. Eraldaketa tresna al da?

Izan beharko litzateke. Baina uste dut oso ondo armatua dagoela dena, muga bat egoteko hor, non ezin zaren hortik aurrera mugitu. Orduan, esango nuke makillaje asko dagoela nire ustez, eta ur sakonetan aldaketa gutxi.

3. Hala bada, generoaren lanketarako edo feminismoaren beste esparru batzuen lanketarako tresna erabilgarria iruditzen zaizu?

Bai, klaro. Uste dut eskolak edo guk horrela ikasten ditugula gauzak. Eta sexismoa, arrazismoa ikasten den moduan, ikuspegi feminista edo beste edozein gauza, hortik ere ikasi ahal direla. Horrela sortzen da sistema. Askotan ez duzu uste gauza asko uste dituzunik edo pentsatzen dituzunik baina egiten dituzu horrela, ideologia horren menpe zaude, nahiz eta zuk pentsatu ezetz. Orduan uste dut argi eta garbi dela. Baina ikusten duzun moduan, dago nahiko... “esto no va bien”.

4. Praktikara eramanez, hezkidetzak balioa adibidez, izan beharko lukeen tokia dauka, zure ustez, hezkuntza zentroetan?

Teorian bai, papeletan bai, eskola batera sartzen zarenean bai, nik gaur egun eskola batean egiten dut lan, zentro ezberdinetan aholkularitzak, eta bisitak, feedback-ak... eta ikusten dut ba agian dekorazioa edo paisaia teorian badela hori, mezu pila bat daude horrekin lotuta, eta hori dana, berez, askotan, niri deitzen didate lan hori egiteko, orduan klaro dagoela presente. Baina uste dut dagoen presentzia ez dela benetan aldaketa baterako nahikoa, osea badaukala presentzia oso konkretu bat, eta mugatua. Baina honekin ez dut esan nahi

ez dagoela irakaslego super potente bat, eskoletatik eta eskolak ez diren lekuetatik barreiatuta, lan super iraultzailea eta transformatzailea egiten. Baina klaro, banaka edo taldetxoetan. Ostera sistemari begira edo eskola instituzio gisari begira, benetan ez dago nahiko integratuta asuntua. Duela urte batzuetatik hona asko aldatu da gauza, ez dauka zerikusirik lehengokoarekin, baina “ojo cuidado”.

5. Nola landu daiteke balio hori (hezkidetzat)? Irakurketa baliabide ona izan daiteke horretarako? Posiblea da biak uztartzea? Nola?

Nik uste dut, uztartu, dena uztartu daitekeela irakurketarekin, irakurketa hori da: atea zabaldu, leihoak zabaldu, pentsarazi, kuestionatu... baina uste dut esaten ari nabilenaren ildotik, diskurtso horrekin jarraituta, hezkidetzat... edo ikuspegi hezkidetzat ezin dela modu horretara bakarrik mugitu. Hezkidetzat ez da modu kognitiboan ikasten den zerbait, eta horrela ari gara irakasten, bueno ia dena bezala. Orduan, gauza asko... bueno nire lema totala da: gauza guztiak ikasten ditugu buruz eta umeei ikastarazten dizkiegula diskurtso horiek. “Del palo de: denak berdinak gara, neskak eta mutilak berdin egin ahal dugu, edonor izan ahal da ez dakit zer...” Horrelako gauza pila bat eta gero egitan, inorrek ez du ulertzen hau zertaz doan. Eta horrek kezkatzen nau pixkat. Ari garelako eraldaketa oso sakon baten inguruan berbetan eta batzutan, agian asko errepikatuko naiz, baina makilaje handia dagoela uste dut.

Hala ere, noski, irakurketak, literaturak, eta literatura ez dena, balio dutela leiho horiek zabaltzeko.

6. Irakasleek formakuntza gehigarri bat jaso beharko lukete horren inguruan?

“Por supuesto”. Irakasleen formakuntzan gauza asko falta dira. Baina uste dut ikuspegi feminista edo lantzen da zentralidade batekin edo bestela izango dela ba hori, txapa bat, pegatina bat, eranskin bat...

7. Zein punturaino dute eragina gurasoek haien umeen hezkuntza-prozesuan, pentsalmodean eta jarreran?

Izugarria. Izugarria daukate. Pasada bat da. Uste dut hor dagoela zerbait lotzen gaituena gure eredu diren pertsona horiekin, pixkat barrura sartzen zaizkigula haiek diren hori, eta egia da ere, gero heltzen dela nerabezaroa, eta horretan justu kontrakoa gertatzen dela. Ni ez naiz zu, eta ez arre ez iso. Zuk ez duzula irakurtzen, ba ni izango naiz irakurle. Orduan hori ere badago hor. Baina nik uste familiekin, senide inguruekin, asko eragiten dutela hor. Horrekin ez dut esan nahi eskolako helduekin ez dutenik eragiten, edo auzokide batekin, pritzipioz ezin duenak eragin, asako eragiten duela. Klik egiten dizulako edozein gauza dela eta. Bai, bai.

8. Zuretzat zein izan daiteke aldaketa burutzeko klabea?

Irakasle formazioa da klabeetako bat niretzat. Irakasle formazioa azkenean beste hanka bat da. Ikasten zaiena irakasleei da proposatuko zaiena eskolei lan egiteko. Irakasten badugu jendea egokitzen ba gero hori gertatuko da, irakasten duguna bada irakaslea dela transformatzailea izan beharko litzatekeen agente bat, ba orduan seguruenik beste

errealitate baten aurrean egongo ginateke. Adibidez, hezkuntzan aritzeko, uste dut feminista izan behar dela! adibidez. Ez dit balio beste edozer, barkatu, hau horrela da “por decreto ley”. Orduan formazioa uste dut klabeetako bat dela, ez dudalako pentsatzen sistemak berak emango digunik hori.

9. Gaiarekiko adituren bat edo elkarteren bat eskolara ekartzea egokia al da gaien sakontzeko?

Gaur egun bai, oso beharrezkoa da. Baina kontua da zertarako. Zertarako eraman norbait. Pertsona hori baldin badoa zerbait irakastera, zerbait proposatzera eta gero badoa, eta gelditzen da hor... ba ez da askorik lortzen. Baina pertsona hori bada aholkularitza bat, edo horretan dauden profesionalak, gauzak aldatu daitezke. “Sino es alguien que viene te cuenta su historia super interesante y se va”. Baina klaro, gero nola harrapatzen da hori egunerokoan edo.

10. Zuk hitzaldi edo tailerren bat ematen duzue umeei bideratua dena? Eskoletara joan zarete?

Bai, nik egiten dut umeei, gurasoei, irakasleei bideratua. Momentu honetan denekin nabil. Irakurzaletasunaz, balioen hezkuntza eta irakurzaletasuna... Osea bai.

11. Nolakoa da gaur egungo egoera, generoari dagokionez, Haur eta Gazte literaturan? Era egokian lantzen da?

Uste dut asko-asko ekoizten dela gaur egun HGL, ez dakit hainbeste irakurtzen den, ekoizten dena kontuan hartuta. Baina klaro, asko ekoizten da, oso ondo saltzen den produktu bat delako. Eta izenburuan politikoki oso zuzena den zeozer jartzen duzu eta “como los churros”. Baina liburuak liburuak dira. Liburuek informazioa ematen digute, pentsarazi egiten digute, baina liburu batek zuzenean ematen badit zer den pentsatu behar dudana hori, agian ez da hain ona. Agian hori jada ez da literatura. Eta ni oso panfletera naiz, pintaden aldekoa, “camisetas con slogans”, baina cada cosa en su sitio. Eta gaur egun uste dut oso pastel saltzen dela asuntoa. Izenburu asko: guraso bananduen istorioa, pardela kentzeko mimimi, berria naiz eta ez dakit euskeraz... “todas las tematicas que te puedas imaginar”. Baina jada tituluak. Ez da elaboratutako pertsona bat. Orduan horrela ikusten dut gaur eguneko ekoizpena.

12. Nola landu beharko litzateke?

Ba liburu onak aukeratzen. Norbait dedikatu behar da irakurtzera, aukeratzera, gauza desberdinak eskeintzera... Klaseetan dauden aniztasun guzti horiei esku hartzera. Adibidez, klase batean ezin dute denek berdin irakurri. Beste leku batetik duda barik.

13. Zer motatako erreferetziak dituzte umeeek?

Ba denok moduan. Oso arinak. Sortu eta desagertu arin egiten direnak. Ez dakit, gaur egun oso zaila iruditzen zait gauzetan sakontzea, dena arina da, mezu bat, bestea, titular, titular, titular... “¿quién se lee las noticias enteras?”, sare sozialak, twitterrak, besteak... pim, pam, pum. Uste dut erreferente horiek oso arin pasatzen direla, ez direla gelditzen. Lehen

bazenituen telesailenak, ez dakit jakingo duzun, *Punky Brewster*, osea oraindik gogoratzen dut “como me marcó”.

Orduan niretzako orain falta dira pisuzko gauzak egotea, sakonak direnak. “Todo es muy mucho postureo, muy efímero”. Baina “lo efímero no es malo”, ez dut hori esan nahi. Baina hori dena pixka bat “chapa y pintura”.

Nire lobarri adibidez, gustatzen zaio pila bat *Frozen*, eta pelikula horretatik Elsa. Nahi du dena Frozenekoa izatea. Baina nik gero esaten dut, berarentzako nor da Elsa? Non dauka kokatua? Zer daki Elsari buruz? Ez da landu duen edo geratu zaion... bere esentzia... Ez, pum! Gelditu zaion produktu batean gelditzen da. “En un producto que le atrae. Que es normal que le atraigan esos productos”. Niri ere gertatzen zait.

14. Zertan jarri behar dugu arreta liburu baten aukeraketa egin behar dugunean?

Ba lehenengo gustatzea, “que te mole”. Zuri zerbait esatea. Bestela ez du zurekin bitartekaritarik izango. Orduan gustatzea, eta zerbait itxurazkoa esatea. Ni batez ere detaile txikietan fijatzen naiz.

15. Lanketa horretarako, zer motatako liburu edo zein idazle gomendatuko zenituzke?

Niretzako *Momo* “es una obra maestra que hay que leerse todo el tiempo”. Oso kontenporaneo da, nahiz eta urte asko izan. Baina “beharrezko” irakurketatzat hartzen dut. Gustatzen zait asko ere Leire Bilbao-ren *Pikondoaren balada*. Ilustratzaile asko bebai. Nik asko esaten dut, gainera album ilustratuetan bereziki kontuan hartu beharreko puntua da, Noemi Villamuza asko gustatzen zait. “Infinito gustatzen zait”. André Neves... Askok gustatzen zaidan liburu bat *Titiritesa* da, orain euskaraz *Titirimari*. Gero ere bai bakoitzari zer gustatzen zaion bere bizitzaren arabera doa.

16. Liburu on batek eragin handia eduki dezake haurrengan?

Uste dut, liburu super on batek ahal duela gauza megapositiboak sortu, uste dut liburu batek ez duela zertan sentimendurik edo pentsatzekorik sortu, uste dut liburu batek bi edo hiru pertsonengan eragina sortu dezakeela, uste dut liburu super txar batek kriston eragina izan dezakeela besteengan...eta hori ezin da kontrolatu. Zerk zeri egiten dion kili.

Gero egia da kalitatezko literatura kalitatezko literatura dela, bitartekaritza on batekin dena doala hobeto, bestela hau ezin daiteke egin, ume txikiekin ezinezkoa da. Orduan uste dut sinpleagoak edo konplexuagoak, baina eduki behar dutela zerbait, txitxa.

10.2. II. Eranskina

Interbentzioaren (irakurketa-unitateen) ebaluazioa egiteko erabili dezakegun taula:

1.ZIKLOAN:

| | | | | |
|--------------------|---------------|-------------|--------------|--------------|
| Adierazleak | Amelia Garcia | Oier Manero | Olatz Prieto | Lur Ansotegi |
|--------------------|---------------|-------------|--------------|--------------|

| | BAI / EZ | BAI / EZ | BAI / EZ | BAI / EZ |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|----------|----------|----------|
| Testuko gaia eta ideia nagusiak ulertzen ditu. | | | | |
| Oso nabarmenak diren bazterketa-adierazpenei igertzen die. | | | | |
| Badaki adi-adi entzuten eta solasaldietan parte hartzen. | | | | |
| Badaki besteei errespetu osoz entzuten. | | | | |
| Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko. | | | | |
| Gai da androzentrikoak, sexistak eta bazterketazko zenbait adierazpeni igartzeko. | | | | |
| Gai da komunikazio-egoeraren oinarriko ezaugarriak modu gidatuan aztertzeke: hartzailea, testuaren helburua... | | | | |
| Era onargarrian ahoskatzen eta intonatzen du. | | | | |
| Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak aldez edo moldez kontrolatzeko. | | | | |
| Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan. | | | | |
| Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu. | | | | |

| | | | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|--|--|
| Solaskideari entzuten dio, eta gai da entzundakoa aintzat hartuta erantzuteko. | | | | |
| Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du. | | | | |
| Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du. | | | | |

2. ZIKLOAN:

| Adierazleak | Amelia Garcia | Oier Manero | Olatz Prieto | Lur Ansotegi |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|-------------|--------------|--------------|
| | BAI / EZ | BAI / EZ | BAI / EZ | BAI / EZ |
| Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko. | | | | |
| Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko. | | | | |
| Igartzen die oso nabarmenak diren sexista eta bazterketa-adierazpenei. | | | | |
| Badaki besteei aktibo entzuten. | | | | |
| Badaki besteei errespetu osoz entzuten. | | | | |
| Gai da irakurgaiaren helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko. | | | | |
| Gai da testutik abiatuta oso nabarmenak diren inferentziak egiteko. | | | | |

| | | | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|--|--|
| Erraz igartzen die bazterketa-adierzpenei. | | | | |
| Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan. | | | | |
| Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua... | | | | |
| Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du. | | | | |
| Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du. | | | | |
| Irakurketaren aldeko interesa du. | | | | |
| Gai da ahozko eta idatzizko literatura-testuen zentzu orokorra ulertzeko. | | | | |

10.3. III. Eranskina

Ikastetxeetan gai honen lanketan jarraitzeko gomendagarriak izan daitezkeen liburu hezkidetzaileen zenrenda:

| Liburuaren informazioa | Zer gai lantzen du |
|-----------------------------------|--------------------------------------------|
| Gora koloretako azazkalak! | Estereotipo sexistak |
| Arturo eta Klementina | Estereotipo sexistak |
| Printzesek ere puzker egiten dute | Estereotipo sexistak |
| Enekoren soineko arrosa | Genero bakoitzari esleitzen zaizkien rolak |

| | |
|------------------------------------------------|--------------------------------------------|
| Arrosa eta leuna | Genero bakoitzari esleitzen zaizkien rolak |
| Bestiario sekretua. Neskabila gaiztoak | Genero bakoitzari esleitzen zaizkien rolak |
| Mari Joseri zergatik deitzen diote Mari Joxe? | Transexualitatea |
| Jonek Jon izan nahi du | Transexualitatea |
| Ni nirea naiz | Transexualiteta |
| Tango iritsita hiru dira | Familia ereduak |
| Familia giroan | Familia ereduak |
| Paulak bi amatxo ditu | Familia ereduak |
| Urdaburutarrak | Zaintza-ardurak familia sarean |
| Hondamendi zoriontsua | Zaintza-ardurak familia sarean |
| Nire aita etxekoandrea da, eta zer? | Zaintza-ardurak familia sarean |
| Tximeleta-belarriak | Autoestimua, bakoitzaren onarpena |
| Ez dut ile kizkurrik izan nahi | Autoestimua, bakoitzaren onarpena |
| Neskek hegan egiten dutenean | Autoestimua, bakoitzaren onarpena |
| Mariziprztinek ez du zorioneko galeperrik nahi | Betaurreko moreak jartzea |
| Nirekin noa | Betaurreko moreak jartzea |
| Carlotaen egunkari morea | Betaurreko moreak jartzea |